


288. Zenb.  
2014-4  
Iraila - Abendua

# karmel

## S<sup>T</sup>J 500

### Santa Teresa

1515  
2015





**NON ZER****Editoriala**

Santa Teresaren jaiotzaren bosgarren mendeurrenean (1515-2015) .....	3
-------------------------------------------------------------------------	---

**Kultura**

Dimatik mundura: atzerrietan ere, euskaldun. Aita Soloeta- Dima (1881-1964), <i>Iñaki Sarriugarte</i> .....	6
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---

**Gizartea**

Jabier Kaltzakorta Elorza euskaltzain berriaren sarrera-ekintza, <i>Juan Mari Arrizabalaga</i> .....	32
---------------------------------------------------------------------------------------------------------	----

**Eliza:*****Santa Teresaren jaiotzaren 5. mendeurrenean***

Aita Santuaren gutuna .....	46
Santa Teresa fundatzaile, <i>A. Olea</i> .....	52
Bizitza liburuaren sarrera, <i>Luis Baraiazarra</i> .....	65
Santa Teresaren <i>Bizitza liburuaren</i> testu aukeratu batzuk...	76

**Iritziak**

Jose Antonio Retolazaren ondarea, <i>Luis Baraiazarra</i> .....	101
Logoaren bikaintasuna, <i>Roman Garmendia</i> .....	114

**Literatura*****Kontu-Kontari***

Gerezien denbora. Pastoral, <i>Joseba Aurkenerena</i> .....	119
-------------------------------------------------------------	-----

***Olerkiak***

Santa Teresaren olerkiak, Luis Baraiazarrak itzuliak .....	129
------------------------------------------------------------	-----

***Bertsoen txokoa***

<i>Juan Luis Goikoetxea</i> .....	142
-----------------------------------	-----

# KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

**Zuzendaria:** Julen Urkiza (Markina)

**Idazle kontseilua:** Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,  
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

**Helbidea:** Karmeldarrak – Markina  
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)  
karmelaldiz@telefonica.net

**Harpidetza:** Urteko harpidetza: 14 €  
(Amerika: 35 dolar)

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

**Aldizkari honetan agertzen diren mota guztietako lanak Creative Commonsen baimenarekin babestua daude.**



***Eratxikipena - Ez komertziala - Deribatu gabe.***

Erabiltzaileak Karmel aldizkariako elementu guztiak bistaratu, inprimatu, kopiatu eta gorde ditzake, betiere bere erabilera pertsonal eta pribaturako badira soilik; betiere obraren *egiletza, jabetza modu egokian aitortu ezkerro*. Karmel aldizkariako edukiak baimenik gabe merkataritza-helburuetarako erabiltzea edota haiak birsaltzea edo banatzea debekatuta dago. *Lan bat nahastu, eraldatu, edo bertatik beste eginiza bat sortzea ere debekatuta dago* betiere **Karmelen** aldez aurretiko baimen idatzia izan ezean, eta hala badagokio, dagokion eskubideen jabearena.

*Diruz lagundutako aldizkaria:*



Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak  
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

**SANTA TERESAREN JAIOTZAREN BOSGARREN  
MENDEURRENEAN  
(1515-2015)**

1515ean jaiotako emakume hau ikuspuntu askotatik begirata ere harrigarri agertzen zaigu. Teresa orduan eta gaur bertan ere galdera askoren deia buru-bihotzetara dakarren emakumea da.

Haren datu biografikoak aztertuz gero, ikusten dugu biziaren eta ekintza harrigarriez, baita erabaki konprometituez beterik dagoela, beti guztienganako bihotz zabaltasunaz.

Teresa XVI. mendeko emakumea zela izan behar dugu kontuan. Eta bestalde mende horretan pil-pilean zeuden borroak eta nazioarteko gerrak, baita erlijiozkoak ere, mundu berrien aurkikuntzak bizi izan ziren baita zientifikoak ere, beti pertsonen eta nazioen ohorearen eta aintzaren gogo amorratu eta biziaren. Eta giro eta sasoi, kultura eta gizarte honetan emakumeak ez zuen ia agertzerik ere. Baina Teresa, bere aldetik barneko mundu berriak bilatzen eta aurkitzen sakonki saiatu zen, bihotz barruko bizia agerian jarritz; hori topatu egin du Teresak benetako maitasunaren gar biziaren, eta ezin esanezko maitasuna aurkitu du, eta horren pozaren pozaz bizi ziko da. Gehiago oraindik: Ordena erlijioso zaharretik berri bat sortu du, eta harrigarriena: ez emakumeentzat bakarrik, baita gizonezkoentzat ere.

Identitate pertsonalaren bila zebiltzan gazte askorentzat Teresak erakarpen-indarra zuen, batez ere beren izaera fedearen oinarri sakonetan, hau da, Kristogan bilatzen zutenentzat.

Teresa gizon eta emakumeen begiradapean aztertua izan zen, orduko gizartean goi-mailan zeuden gizon eta emakumeen eta orduko elizako doktore eta maisu gorengoen begiradapean. Arrazoi eta arazo batzuegatik aurrez aurre izan zituen gizarteko botereak, adibidez, Éboliko printzesa edo teologo batzuk, baita autoritate zibil nahiz elizakoak ere..., baina Teresak oztopo guztiak gainditzen zituen. Zer zuen emakume hark?

Beraren arma edo jokabidea: egia, argi eta lasaitasunik handienaz adierazitako egia; eta bestetik, apaltasun sakona eta xalotasun xarmangarria; horrela solaskideak konbentziturik geratzen ziren.

Itxurakeriatik ihes egiten zuen, ez zuen bere burua agertzeko nahirik; alderantziz: bere barru-barruko izateari eta existentziari oinarri sakona jartzen ahalegintzen zen.

Maitasunez eta barneko bizipen espiritualez beteriko bihotzak gidatutako emakumea dugu; horrela, gaixotasun eta sufri-menduak gainditzeko indarra zuen; bere bizitzan oinaze fisiko nahiz psikiko oso gogorak izan zituen bere heriotzara arte (1582), eta hala ere poztasuna eta bakea erakusten zituen, gaur egunekoentzat era harrigarrian edo ezin ulertuzkoan.

Argi dago: haren ekintza guztien eta izaeraren sekretua edo errazoi nagusia pertsona bat zen: maite-maite zuen Kristo Jaun berpiztua, eta hori erakutsi zuen bere bizitza osoan mila erara.

Kultura aldetik, idazle bezala aztertuz gero, ikusten dugu Teresa oso trebea zela gai zailetan, hau da, barneko mistika bizitzako gaietan bere pentsamendua adierazten: harri eta zur utzi zituen orduko eta geroko idazle onak eta klasikoak. Eta gaztelaniazko literaturan Teresaren luma honetarikoen artean

onartua izan da. Eta harritzekoa eta kontuan izatekoa da: idazle izatea Teresagan bere barneko pertsonalitate aberatsaren distira besterik ez zen. Eta hala ere idazleen zaindari izendatu zuen Elizak, eta azken aldian Eliz Irakasle; historian zeharreko lehenengo emakumea da titulu hori eman zaiona.

Bere idazlanak: Bitzita liburua, Perfekzio bidea, Barne gaztelua, Fundazioak, Arimako kontakizunak, Jainko-maitasunari buruzko gogoetak, Konstituzionak, Olerkiak, etabar; gainera, hamar mila gutun baino gehiago idatzi zituen...; horietan adierazten dizkigu orduko gizarteko bizia eta mugimenduak, eguneroko bizitza eta ekintza sozial eraginkorrak, baina batez ere pertsonen barneko bizitza aberatsa, zentzuz bizi izaniko existentzia.

Aurten urrian hasita datorren urrira arte *Karmel* aldizkaria, zatika bada ere, Teresaren nortasuna, gaurkorako ere balioetsua dena, erakusten ahaleginduko da.

**DIMATIK MUNDURA: ATZERRIETAN ERE,  
EUSKALDUN  
AITA SOLOETA-DIMA (1881-1964)**

Duela 50 urte joan zen mundutik Saturnino Soloeta Iturrondobeitia, anaia kaputxinoentzat Dimako Fernando M<sup>a</sup> izan zena. Haren heriotzaren urteurren esanguratsu honetan, lerroon bitartez, Arratiako bere umetako habiatik mundu zabalera hegaldatu zen Soloeta-Dimari omen txiki bat egin gura izan diogu. Ez zuen denbora luzea eman jaio zen habian, baina euskal lumajea distiratsu ere distiratsu eraman zuen azken hatsa eman artean.

### **Bargondiako mutikoa abadetzarako bidean**

Saturnino Soloeta Iturrondobeitia Bizkaiko Dima herriko Bargondia auzoan jaio zen, 1881eko otsailaren 11n. Mutikotxo zela, Zornotzako prezeptoria baten egin zituen komentura joan aurreko ikasketak, latinarekikoak batik bat. Gero, hamazazpi urterekin, kaputxinoek Bilboko Basurtu auzoan zeukaten komentura jo zuen, eta bertan egon zen nobizio modura urtebetez.

Basurtuko komentuko egotaldia amaituta, Saturnino gazteak Gaztela aldera jo zuen ikasketekin jarraitzeko; batez ere, filosofia eta teologia arloetan sakontzeko. Aita Yurrek dioenez, 50eko hamarkadaren amaieran, Madrilen ikaskide izandako kaputxino asko gogoratzen zen Saturnino Soloetaz: buru argikoa, oroimen onekoa, sakona, ekina... Gutxi beza-



lako: “Gure urteetan igarotako bururik argienetakoa”<sup>1</sup>, zioten ikaskide ohiek.

Kaputxinoen Navarra-Cantabria-Aragón probintzia berria sortzean<sup>2</sup>, 1907. urtean, Soloeta Hondarribira dator, eta hango komentuan filosofia-irakasle egon zen 1907-1908 ikasturtean. 1908ko martxoaren 13an abadetu zen, eta handik lasterrera, hilaren 19an, San Jose egunez, esan zuen bere lehenengo meza, Dimako parrokian.

Ikastaroa amaituta, 1908ko udazkenean, nagusiek hala erabakita, Aita Soloeta Suitzako Friburgo hirira abiatu zen, hango goi-ikastetxean legetan sakondu, eta arlo horretako ikasketa bereziak egitera. Dakigunez, bertan zegoela, euskaltzaletasunak eraginda, Soloeta gaztea Julio Urkixo jakitunarekin harremanetan hasi zen<sup>3</sup>.

1908-1909 ikasturtea Friburgon emanda, Soloetak pausaldi bat egin zuen Hondarribiko komentuan, ikasturtearen amaieratik azarora arte, hots, Ameriketara joan arte; eta, litekeena da, dimoztarrak egotaldi hori aprobetxatzea Urkixo jaunarekin harremanetan jartzeko. Harreman horiei esker eskuratu ahal izan zuen Urkixok, Pedro Antonio Añibarro arratiarrak Axularraren *Gero* liburuari bizkaieraz eginiko moldaketa: *Guero* *guero*. Izan ere, eskuizkribua Hondarribiko komentuan zegoen argitara emateke, eta Soloetak jakinarazi zion Urkixori Añibarroren lanaren berri<sup>4</sup>.

<sup>1</sup> Aita Julian Yurrekoa: “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, *EGAN*, 1964, 1/6, 134-140.

<sup>2</sup> *Gran Enciclopedia Navarra*: <http://www.enciclopedianavarra.com/navarra/capuchinos/4332/1/>

<sup>3</sup> “[Cartas] 1909-1920 [a] Julio de Urquijo, San Juan de Luz [Manuscrito] / Fr. Fernando Soloeta de Dima”, Koldo Mitxelena Liburutegia, Donostia. <http://oaiprod1.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/3898>

<sup>4</sup> Fr. Fernando M<sup>a</sup> Soloeta: “Añibarro traductor del *Guero*”, *RIEV*, 4, 1910, 592-594. Urkixo bera hasi zen eskuizkribua *RIEV* aldizkarian atalka argitaratzen, baina ez zen osorik argitaratu, 56 buruetatik bakarrik 42 argitaratu baitziren (1923tik 1933ra). Blanca Urgell-ek, 2001ean, eskuizkribu osoaren edi-

Laburra izan zen kaputxino gazteak Euskal Herrian eginiko pausaldia. Izan ere, 1909ko azaroaren 20an, bere bizitza neurri handi baten markatuko zuen Argentinarako bidea hartu zuen Dimako seme adoretuak.

## Dimako kaputxino gaztea Argentinara: Euskal Echea

Aita Soloeta-Dima 1909. urtearen azkenetan heldu zen Hego Ameriketara. Bertan 18 urte eman zituen, 15 Argentinan eta hiru Txilen. Herrialde bietan izan zituen ardura eta betebeharrak garrantzitsuak, baina denen artean, Buenos Airesko Euskal Echea ikastetxean egindako lana azpimarratu behar da; izan ere, 13urtez bera izan zen bertako “Euskera eta Euskal Literatura” katedrako arduradun nagusia. Argentina noraino sartu zen Soloetaren baitan ikusteko, esan dezagun bertako naziotasuna lortu zuela, eta argentinartzat agertzen zuela bere burua atzerrietan<sup>5</sup>.

Buenos Airesko Euskal Echearen sorrerak lotura estua dauka Argentinan, XIX. mendearen bigarren erdian, euskal koloniak erakundetzeko sentitzen duen nahiarekin. 1877an arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar zenbaitek “Laurak Bat” izeneko elkarte sortu zuten, baina Euskal Echearen proiektua hogeigarren mendearen hasieran gorpuztuko da: “De este modo, el 1º de Abril de 1900, en el local de la Sociedad Vasco-Española Laurak Bat, se realiza una reunión organizada por los presidentes de los centros Laurak Bat, Vasco Francés y Navarro”<sup>6</sup>; eta, 1904ko apirilaren 24an, estatutuak eta araudiak

---

zio kritikoa opetsi zigun: *Gueroco guero*, Euskararen Lekukoak 22, Euskaltzaindia, Bilbo, 2001.

<sup>5</sup> “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 139. or.

<sup>6</sup> Iriani Zalakain, Marcelino / Alvarez Gila, Oscar: *Euskal Echea. La génesis de un sueño (1899-1950)*: Llavallol, E. Jaurilaritza, Gasteiz, 2003, 94-95.

onartuta, “Euskal Echea” sortzen da. Jaka jaunak fundazioaren sortze-bileran esan zuenez, “*¡Abora no hay más Pirineos!*”<sup>7</sup>.

Obrak 1905eko abenduaren 17an hasi ziren, eta irakas-kuntzaren ardura orden erlijioso biri eskainiko zaie: nesken ikastetxearena Ipar Euskal Herriko Angeluko “Mariaren mirabeak” ordenari, eta mutilen ikastetxearena Nafarroako kaputxinoei. 1908ko martxoan, ikasturte berriarekin batera zabaldu zen mutilen ikastetxea, eta hiru bat hilabete geroago, neskena eta asiloa, azken hau umezurtz zein edadeko jendearentzat.

Euskal Echeak bere urrezko ezteiak ospatzen dituenean, 1955. urtean, Natividad Baylac-ek, bertako ikasle izandakoak, honela laburbiltzen ditu urte horien historia bere liburuaren azken pasarteetan: “En síntesis: Euskal-Echea fué forjada por el amor, la caridad y el trabajo de los vascos, sus hijos y amigos; todos contribuyeron a que ocupara un sitio de honor entre las Instituciones más prestigiosas del país”<sup>8</sup>.

Sortu zenetik mende luzetxo bat pasa denean –110 urte joan dira fundazio-akta onartu zenetik–, zutik jarraitzen du Euskal Echeak, eta lau haizeetara zabaltzen da sarean haren oihartzuna: <http://euskalechea.esc.edu.ar>.

---

<sup>7</sup> Esan beharra dago, Euskal Echearen lehenengo Zuzendaritza taldearen idazkaria (1904ko maiatza) Frantzisko Esteban Laphitz apaiz, idazle eta euskaltzale ezaguna izan zela, *Bi saindu beskualdunen bizia* (1867) liburu gogoangarria idatzi zuena, hain zuzen ere. Lehenago ere, 1904an, proiektuaren inguruko behin-behineko komisioa sortzen denean, talde horretako ohorezko lehendakaria izan zen Laphitz kalonjea. Tamalez, ez zuen ikusi Euskal Echea zutik, 1905eko urriaren 25ean hil baitzen.

<sup>8</sup> Baylac, Natividad: *Euskal Echea. Su obra a través de 50 años, 1904-1954*, B. Aires, 1955, 164. or.



*Euskal Echea, gaur egun (Llavallol, Buenos Aires)*

Ikastetxean, Aita Soloetak irakasletzan ez eze, idazletzan ere jardun zuen, Llavallol-en burutu baitzituen bere obra nagusiak, denak euskal hizkuntzaren ingurukoak. Hona, zer dioskun gorago aipatu dugun Baylac andereak:

“Muchas generaciones de niños lo conocieron y todos lo apreciaron, porque bajo su aspecto austero ocultaba una bondad extraordinaria, fruto de su acendrado espíritu de santidad. Sumamente ilustrado, a sus múltiples funciones en el Euskal Echea, sumó la de profesor de euskera. Enseñaba su lengua de origen con entrañable afecto y no pocos premios se discernieron entre sus alumnos, en mérito al mayor aprovechamiento de sus clases”<sup>9</sup>.

Euskal Echean sortzetik bertatik eman zitzaion leku esanguratsua euskal hizkuntzari, bertako ikasketen osagarri funtsezkotzat ikusi baitzuten proiektuaren bultzatzaileek. Bide horretan, Aita Soloetak lan eskerga egin zuen euskararen alde, Dima bere jaioterritik mila kilometrotara dagoen Buenos Aires hiri erraldoian emandako eskoletan. Eskertu ere, behin baino

<sup>9</sup> *Ibidem*: 112. or.

gehiagotan egin zion lan hori bertako euskal komunitateak: “Yo conocía al Padre Soloeta únicamente como religioso ejemplar, hoy que creo conocerlo algo, como basko y filósofo, no puedo por menos de hacer pública mi admiración por el hombre que compartiendo lo divino con lo humano, será para Euskal Echea uno de sus más valiosos factores de engrandecimiento”<sup>10</sup>.

Gaur egun ere, nahiz eta 91 urtetsu diren hango ikasgelak utzi zituela, Euskal Echearen web ofizialeko “Gure Historia” atalean aipamen berezia egiten zaio Aita Soloetari, euskara eta euskal kulturaren alde eginiko lana beren-beregi azpimarratuz. Era berean, esanguratsu da oso, hona aldatu dugun partartetxoan egiten den komentarioa:

“El primero (sic) profesor fue el Pbro Fernando Soloeta Dima, que escribió entre 1912 y 1922 cuatro libros de euskera. Para sus alumnos, siempre fue el *padre Jauna* (Señor, en euskera), y quizás esa palabra, Señor, sea la que lo define enteramente”<sup>11</sup>.

Dakigunez, Soloeta 1909. urtearen azkenetan heldu zen Ameriketara. Hori dela-eta, eta Argentinako irakaskuntzaren baitako eskola-egutegia kontuan hartuta –otsailaren azken astean hasi ohi da ikasturtea, eta abenduaren amaieran bukatu–, beranduxe hasi zen 1910eko kurtsoa euskara-eskolei zegokienez. Katedra horrek, beraz, halako hasiera probisional bat izan zuen, eta ez zen ospakizun berezirik izan Euskal Echean.

<sup>10</sup> Egia, Juan de: “En Euskal-Echea”, *La Baskonia*, 649, 1911-10-10, 4. or. *Uchagakoa* ezizendun idazlea, urrunago doa bere laudorioetan: “Juntamente con su gran compañero Astarloa, contribuye al resurgimiento de nuestra habla nacional y sus obras serán el pedestal en el cual ha de colocarle la generación actual para pasmo y admiración de las futuras, que mejor que la presente sabrán apreciar su titánica labor” (*Uchagakoa*: “Figuras Euskarianas. El R. P. Soloeta”, *La Baskonia*, 735, 1914-02-28, 229. or.).

<sup>11</sup> <http://euskalechea.esc.edu.ar/llavallol/historia.htm> (Azken kontsulta, 2014-06-20an egina).

Hurrengo ikasturtearen hasieran (1911) baina, Aita Soloetak hitzaldi luze eta mamitsu bat<sup>12</sup> irakurri zuen, kurtsoari hasiera solemneago bat emanik. Hitzaldiaren hasieran, kaputxino adoretzuak hasiera hartan topatutako arazoak eta oztopoak aipatzeari ekin zion:

“Los alumnos basko-argentinos, no obstante su despejo natural, su aptitud para toda suerte de estudios, parecían refractarios en extremo al Euzkera [...]. Cuando el maestro, pasados días tras días, preguntaba la lección á un discípulo dado: *Fulano, díganos por favor algo de la lección señalada: No la he aprendido, Padre, es muy difícil el vasco, y además feo, áspero, duro; por Dios, Padre, enséñenos el francés, que es muy fácil y, por otra parte, lindísimo.*

Así dialogábamos en los comienzos de nuestra carrera y del primer año del curso basko”<sup>13</sup>.

Nola altxatu ikasleen gogo abaildu hori? Zelan egin aurre kontrakar sendo, finkatu eta barneratu horri? Ataza gogorra, zinez! Baina Bargondiako kaputxinoa nekagaitza zen, eta apurka-apurka, “Ezina, ekinez egina” esakune zaharrari jarraituz, egoerari buelta ematen hasi zen, baita lehenengo lorpenak ikusi ere: “hacia mediados de curso, los nuevos baskófilos conversaban con el profesor en lenguaje que estimaban de todo inaprendible”. Baina, hizkuntza ikastera ez ezik, maitatzera ere heldu ziren ikasle argentinarrak: “Desde aquella fecha, los más se encariñaron con el euzkera, los menos permanecieron en la indiferencia, y todos á una conceptuaron el basco idioma pulcro, rico y filosófico, y estudiable en corto espacio de tiempo”<sup>14</sup>.

<sup>12</sup> R. P. Soloeta: “Euskalechea: Discurso pronunciado por el R. P. Soloeta, en la apertura de las clases baskongadas de los institutos de Euskal-Echea”, *La Baskonia*, (I) 632, 1911, 325-326 / (II) 633, 1911, 341-343 / (III) 634, 1911, 360-362.

<sup>13</sup> *Ibidem* (I), 325. or.

<sup>14</sup> *Ibidem* (I), 325. or.

Sutsu jarraitzen du Soloetak bere hitzaldian: “He aquí en breves palabras, mis queridos jóvenes la historia de nuestro pasado. Humildes por demás fueron nuestros comienzos; mas la constancia baska coronó nuestro trabajo con un éxito inesperado”. Soloetak goretsi egiten ditu ikasleek aurreko kurtsuan eginiko ahalegin guztiak, eta animatu, hasten den kurtsu berrian lanean jarrai dezaten; izan ere, euskal kolektibitatearen nahia da Argentinako euskal umeak euskalduntzea, eta arbasoen kulturaren heztea.



*Aita Soloeta, Euskal Echea-ko bulegoan lanean*

Ikasturtea amaitzen denean –1911ko azken egunetan gauden–, kurtsu amaierako hitzaldian aldaketa nabarmen bat dago; izan ere, Aita Soloetak euskara hutsean egin zuen berbaldi hori, ikasleek egindako aurrerapena, argi eta garbi utziz Euskal Echeako partaide guztien aurrean. Honela zuzendu ziztzaien euskara irakaslea, urtean zehar, berarekin egondako argentinarrak ikasleei:

“Nere ikasle maitiak: gaurr bukatzen degu aurtengo Epailan asi gendun euzko ikastaba, ta egiazki nik orrduban uste nuben baño askoz obeto; bada jakinarren nik zuben euzkalta-

sun a ezitzaidan bururatzen ainbestekua izango zala; baña zubez euzko arjentinarrak gogoz arrtu zenduten nere burubidia-au; asi ta ekin, aurrera-ta-aurrera beti. Ori bai dala ori! euzkaldun bene-benetakuak izatia. Etzerate, ez nagitu; beztela zuben euzkaltasuna juango zan, ta geldituko zan adimendu azkar-ori, dana kedarrturik, bijotza leiturik, ta zuben izate bizkorra euzkel getu-ta! Ederrki-ederrki, mutillak, bijotz ta gogoz dagurrzutet<sup>15</sup>, ta euzkal erriko mendijak, euzko-erriko ibaijak, Bizkaitarr eta Kiputzak, Arabak, Lapurdik ta Xiberok; euzko-erridi guztijak era berian agurtzen zaituzte”<sup>16</sup>.

Badaragoio, beraz, Aita Soloetak Euskal Echean, euskal ume eta gazte argentinarrak euskaldundu nahirik. *Bigarren Euzkadi bat* nahiko zukeen lortu dimoztarrak Euskal Herritik milaka kilometrotara, eta bere luma, bere gogoia, bere denbora eta bere indar guzti-guztiak amets horrixe opetsi gura izan zizkion.

Argentinan, Aita Soloetak harreman handiak izan zituen bertako euskaldunekin, eta parte aktiboa hartu zuen orduko giro kulturalen. Aita Julian Yurrekoak honela laburbiltzen ditu bere anaia Fernando Mariaren kultur harremanak:

“Olan, euskoei buruz bi tomodun liburu mamitsu, ederra idatzi eban Juan Sebastian Jaka yaunagaz. Bardin Amorrortu yaun argitaraldiagaz; ta Uriarte, [La] *Baskonia* aldizkariaren yaube ta artezkari ta idazle-buruagaz; diru-kontutan, Argentina´n ezaguna izan zan Olariaga euskaldun yaunagaz. Yaun onek, oker ezpanadi, bere kontu, argitara eban *Ami vasco* gutuna, milla ta millak iyeki<sup>17</sup>, eunka”<sup>18</sup>.

<sup>15</sup> Dagurrzutet: *agurtzen zaituztet* adizkiaren ordezeko trinkoa. Holako asko darabiltza Soloetak.

<sup>16</sup> Soloeta-Dima, Fernando M<sup>a</sup>: “Soloeta tarr Abak Euzkal-Etxian egindako itzekisuna”, *La Baskonia*, 657, 1911-12-30, 136. or.

<sup>17</sup> Iyeki: ale (gure oharra).

<sup>18</sup> “Dima´ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 135. or.



Ikusten dugunez, orduko euskal eragile nagusi gehienekin izan zituen harremanak Aita Soloetak, beti ere euskararentzat eta euskal kulturarentzat onura eta laguntza lortzeko. Era berean, Soloeta oso integratuta ikusten dugu Argentinako euskal komunitateak antolatutako ekintzetan: Euskal Jaiak, Lujan-go Amaren santutegirako erromesaldiak, euskaldunen bisitaldiak (Sota & Aznar Itsas Eskola, Aita Donostia...)... Holakoetan, hantxe egongo da beti Aita Soloeta, eta haren hitzaldi-sermoietan beti utziko dio lekutxo bat umetako hizkuntzari.

Aita Soloetaren engaiamendu pertsonalari bagagozkio, apunte txiki bat, baina zinez esanguratsua. 1914ko urrian gaude, eta I. Mundu Gerra hasita dago. Horrek eragin zuzena du Argentinako euskaldunengan, batez ere, Euskal Herriko iparraldetik Ameriketara joandakoengan, euren senide asko gerrara deiturik izan ziren-eta. Baina, Euskal Echeako euskal izpirituan *–¡Ahora no hay más Pirineos!* ez zegoen iparraldekorik, ez hegoaldekorik, euskaldunak baino. Gerra-egoera horren aurrean, Aita Soloetak eta beste hiru fraidek euren Aita Jeneralari idazten diote Erromara, baimena eskatuz Europako fronteetara joan ahal izateko, euskal soldaduak laguntzera<sup>19</sup>.

### **Aita Soloeta-Dima, gramatikalaria eta idazle**

Idazletzan ere, ekarpen polita egin zuen dimoztarrak Txile-Argentinetan eginiko egotaldi luzean. Aldizkarietara dagokienez, garaiko argitalpen askotan ikus daiteke Soloetaren sinadura, batez ere, *La Baskonia* eta *La Euskaria* aldizkarietan; eta neurri txikiago baten, *Euzkotarra*, Montevideoko *Euskal Errian*... Euskal Herriko aldizkarietan ere, lantzean behin argitaratu zituen kolaborazioak: *RIEV*, *Euzkadi: ciencias, artes y letras*, *Euskal Esnalea*... Erabilitako gaiak era honetara laburbildu

<sup>19</sup> X. X.: “El patriotismo basko de los profesores de la Euskal-Echea”, *La Baskonia*, 764, 1914-12-20, 121. or.

daitezke: hizkuntzalaritza, onomastika, historia, literatura, Euskal Herria eta Argentina, Euskal Echea...

Argentinan argitaratutako liburuei bagagozkie, bost obra aipa ditzakegu, nahiz eta euretariko batek, antza, ez zuen argia ikusteko zoririk izan. Obrarik gehienak –orduko testugintza urriak eta urruntasunak eraginda– Euskal Echeako eskolei begira burutu zituen dimoztarrak, bertako ikasleek, euskara-eskoletan, testu modura erabili ahal izan zitzaizaten. Ikus ditza-gun banan-banan:

1. *Curso Primero del Idioma Basko*, Tip. de La Baskonia, Buenos Aires, 1912, 92 or.
2. *Curso Segundo del Idioma Basko*<sup>20</sup> [*Lecciones para una Gramática Bascongada, La Baskonia* aldizkaria, 1912-urria / 1914-ekaina, 12 atal]<sup>21</sup>.
3. “*Le Petit Basque*”. *Cours Elementaire de Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*, Imp. Vincenty, Bossio & Cia., Buenos Aires, 1913, 148 or.
4. *Conjugación Sintética del Verbo Basko comenzado por consonante*, Imp. La Euskaria, Buenos Aires, 1913, 58 or.
5. *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos*, Tip. La Baskonia, Buenos Aires, 1922, 173 or.

Lehenengo liburuari dagokienez<sup>22</sup> (*Curso Primero del Idioma Basko*), azpimarragarria da obraren izaera praktikoa. Izan ere, Soloetak hutsune handi bat ikusten du euskal gramatike-tan, ez baitzeuden liburuok irakaskuntzari begira pentsatuak. Alderdi didaktikoa hori buruan zuela ekin zion irakasle kapu-

<sup>20</sup> Aita Yurrek dio obra hori ez zuela inoiz esku artean izan: “Esta obrita no ha llegado a mis manos” (*Egan*, 1964, 1/6, 136. or.).

<sup>21</sup> Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarian ere argitaratu zen gramatika hau. Atalak berdintsuak dira batean eta bestean.

<sup>22</sup> Ricardo Gómez Lópezek, liburu honen azterketa egin zuen “Euskara-Erromantze Linguistikaren IV. Jardunaldietan” (2013/11/29), Deustuko Unibertsitatean ([www.slideshare.net/FiloBlogia/gmez-2013-jlvrsoloeta-dima](http://www.slideshare.net/FiloBlogia/gmez-2013-jlvrsoloeta-dima)).

txinoak gramatika bat idazteari: “Esta carencia, en nuestra literatura, de gramáticas adecuadas para jóvenes cursantes los diversos grados escolares, me ha movido á arreglar y publicar dos obritas intituladas: *Curso primero del idioma basko* y *Curso segundo del idioma basko*”<sup>23</sup>. Bizkaitarra izan arren, Soloetak erdialdeko euskalkia, gipuzkera, aukeratu zuen bere Cursoaren oinarri.

Esan dugunez, Aita Soloetak liburuki bi agindu zizkigun bere *Curso Primero del Idioma Basko* eskola-gramatikaren hitzaurrean. Badirudi, bigarren liburukia ez zela argitaratu liburu-formatuarekin, baina Soloetak Uruguai-Argentinetakoa aldizkarietan argitaratutako artikulu eta kolaborazioei erreparatzen badiegu, konturatuko gara, *Bigarren Curso* horrek oso-osorik ez dakigu, baina zati handi batek ba *La Baskonia* aldizkarian ikusi zuela argia.



Soloetaren lehenengo liburua (1912)<sup>24</sup>



Curso Segundo del Idioma Basko<sup>25</sup>

<sup>23</sup> *Curso primero del idioma basko*, 7-8.

<sup>24</sup> Azkue Biblioteka (Euskaltzaindia).

<sup>25</sup> *La Baskonia*, 639, 1912-12-30, 15. or. [V. atala]. Atalen luzera aldatu egiten da aldizkariaren zenbakien arabera.

Lehenengo atala 1912ko urriaren 10ean argitaratu zen, eta hauxe zuen izenburu nagusi: *LECCIONES PARA UNA GRAMÁTICA BASKONGADA. Una gramática crítica*. Ikus dezagun zelan aurkezten digun Soloetak egin asmo duen Gramatika berri hori:

“Saben ya los asiduos lectores de *La Baskonia*, que tenemos en preparación un 2º curso del idioma baskongado<sup>26</sup> más voluminoso y mucho más completo que el primero que conocen los subcriptores de nuestra revista. En esta publicación nos proponemos examinar seriamente los fundamentos de nuestro idioma con el intento de ofrecer á los hermanos de mi raza una gramática razonada y crítica”<sup>27</sup>.

*Lecciones para una Gramatika Baskongada (Curso Segundo del Idioma Basko)* gramatikaren azken atala 1914ko ekainaren 30ean<sup>28</sup> argitaratu zen. Guztira 12 atal (hitzaurrea + hamar maika ikasgai) argitaratu ziren, maiztasun jakinik barik<sup>29</sup>.

Kontuan hartuta, Hego Ameriketako Iparraldeko euskaldun asko zegoela, eta ez zeukatela euskara ikasteko baliabide askorik, Aita Soloetak haietzako gramatika berezi bat lantzeari ekin zion: *Le Petit Basque*. Liburua erronka ikaragarria izan zen kaputxino bizkaitararentzat; izan ere, *Ikasliak* zioskunez: “para escribir la obra ha tenido que posesionarse antes del dialecto labortano de la lengua francesa”<sup>30</sup>.

Edizioa txukuna da, argazkiz-eta ondo hornitua. Edizioaren gastuak J. B. Vincenty *La Euskariaren* zuzendariak, eta “Cen-

<sup>26</sup> Letrakera beltza gurea da.

<sup>27</sup> Soloeta-Dima, Fernando M<sup>a</sup>: “Lecciones para una gramática bascongada. Una gramática crítica”, *La Baskonia*, 685, 1912-10-10, 4-5.

<sup>28</sup> *La Baskonia* aldizkaria hil guztien 10., 20. eta 30. egunetan argitaratzen zen, hots, hamar egunerik behin.

<sup>29</sup> 1912an, hitzaurrea eta sei ikasgai; 1913an, ikasgai bat; eta 1914an, 4 ikasgai. Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarian ere, zazpi entrega argitaratu ziren (1912-12-08 / 1913-03-23), baina argitalpena etenda geratu zen.

<sup>30</sup> *Ikaslia*: “Gramática Baska”, *La Baskonia*, 726, 1913-11-30, 90. or.

tro Basko-Francés” etxeko presidentea zen J. P. Passicot-ek ordaindu zituzten. Gorago aipatu dugun *Ikasliak* biziki goraipatzen zituen euskaltzaleok: “Si estos baskos amantes de su Patria tuvieran muchos imitadores, muy pronto habíamos de ver á Euzkadi redimida”<sup>31</sup>.

Liburuak bi zati nagusi ditu. Lehenengoak hogeita zazpi ikasgai dauzka, eta eurotan euskal aditza aztertzen da. Bigarrenean, aztergaia atzizkibidea da, eta hamabi ikasgaiz osatua da. Argazkiez gain, osagarriak ez dira falta edizio txukunean: gutunak, aditz trinkoen taulak, kantak (“Gauden gu eskualdun” eta “Altabizkarko kantua”), hiztegitxo bi, eta baita Euskal Herriaren mapa bat ere, zazpi probintziekin (“Carte d’Ezkuadi”<sup>32</sup>). Esan, bestalde, liburuaren azalean, elkarren segidan, esaldi bi idazten dituela Soloetak, haren pentsamoldea ondo ere ondo islatzen dutenak:

*Non, jamais il n’ y eut, ni nous l’ espérons, il n’ y aura de Pyrénées pour les Basques* (Haristoy, IIe, 49).

“Rien n’ est pas plus agréable à chacun que sa patrie, et notre vraie et unique patrie est Ezkuadi”.

Urte berean, hau da, 1913an, Soloetak beste liburu bat argitaratu zuen: *Conjugación sintética del verbo basko comenzado por consonante*<sup>33</sup>, Julio Urkixo jaunari eskaini ziona: “Al desinteresado é ilustre publicista basko Sr. Don Julio Urquijo dedi-

<sup>31</sup> *Ibidem*, 90. or.


<sup>32</sup> *Ezkuadi*: Ez da errakuntza bat, liburuaren azalean bertan holaxe idazten du-eta. Ipartarren oguzkerara, ebakerara, hurreratzeko keinutzat hartu beharrekoa da, zalantza barik, aldaketatxoa.

<sup>33</sup> Aita Yurrek dioskunez, lehenago, liburu atalka argitaratu zen B. Airesko *La Euskaria* aldizkarian.

ca estas cuartillas. – El autor”. Bidali ere egiten dio liburua, baina deustuarraren iruzkina ez zen oso aldekoa izan<sup>34</sup>.



*Le Petit Basque* liburua (1913)<sup>35</sup>



*Conjugación Sintética* liburua (1913)<sup>36</sup>

Urteotan, kezka handia zerabilen buruan kaputxino bizkai-tarrak euskararen batasunari buruz; eta, 1922an, batasunerako bere proposamena eman zuen argitara: *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos*. Izan ere, Buenos Airesen, eta orokorrean, Argentina osoan, Euskal Herriko zazpi probintzietako euskaldunak zeuzkan inguruan; eta aniztasun hori, bai hizkuntzaren irakaskuntzan, bai hedabide idatzietan-eta, oztopo bihurtzen zen sarri. Euskaltzaindia urtetsu batzuk lehenago (1918-19) sortua zen Eusko Ikaskuntzaren magalean, eta bata-

<sup>34</sup> Urkijo, Julio: “*Conjugación Sintética del Verbo Vasco comenzado por consonante...*”; *RIEV*, 1914-1917, VIII, 176. or.

<sup>35</sup> <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/25159Le>

<sup>36</sup> Koldo Mitxelena Liburutegia (<http://oaiproduct1.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/1207>).

sunaren unea zela zeritzoten euskaldun asko eta askok. Soloeta ere iritzi horretakoa zen.

Hala ere, Soloetak urrunegi jo zuen bere proposamenean<sup>37</sup>. Batasunaren bila atzera jo, eta balizko hizkuntza *orbangabe* bezain irreal bat proposatu zien, berez denabeharrean zeuden euskaldunei. Horrek, jakina, kritika gordinak pairarazi zizkion, on ustean eta hizkuntza hobe beharrez jardun zuen kaputxi-noari. Julio Urkixok aurreko liburuari egindako kritika areagotu egiten da oraingoan. Izan ere, deustuarrak zehatu-zehatu egiten du arratiarra:

“En trabajos anteriores he expuesto las razones por las que considero una utopía la llamada *restauración del euskera*. No he de repetirlas: pero sí advertiré que se hace difícil la discusión de estas materias con el Padre Soloeta-Dima, porque sus principios lingüísticos difieren esencialmente de aquellos admitidos hoy generalmente por los lingüistas. Si no estamos de acuerdo acerca de lo que es el lenguaje, ni acerca de las causas de su evolución, ¿cómo hemos de coincidir en la apreciación de los fenómenos que el euskera presenta?”<sup>38</sup>.


Bide beretik, Aita Aingeru Madariaga bermeotarrak ere, us-te du urrun ere urrun joan zela Soloeta bere proposamenean: “Si yo me creyese autorizado a dar consejos a nadie, no vacilaría en dárle uno al ilustre profesor de Euskal-Echea, diciéndole que no fuese tan pesimista respecto al estado actual de nuestra conjugación, y que ahondase más en su estudio; ¡más

---

<sup>37</sup> Soloetak, lehenago ere, baieztapen eta iritzi gordin ere gordinak zeuzkan plazaratuta: “Sería muy de desear que los maestros en euzkerologia suprimieran sin compasión y miramientos todas las variedades dialectales para dar lugar al más hermoso de los idiomas que hayan podido imaginar los mortales” (“Lecciones para una gramática baskongada en dialecto biskaino”, *Euskal Erria* (Montevideo), 105, 1914-08-02, 10. or.).

<sup>38</sup> Urkijo, Julio de: “Bibliografía: Ensayo de la unificación de dialectos baskos...”, *RIEV*, XIII, 1922, 666. or.

todavía! ya que no le falta para ello ni erudición ni talento, pero basándose en otros principios”<sup>39</sup>.



*Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos* liburua (1922)<sup>40</sup>

R. M<sup>a</sup> Azkue handiak artikulu luze eta mamitsua eskaini zion Soloeta-Dimaren proposamen ausartari. Azkuek pentsatzen du, berak gaztetan –*Euskal Izkindea* argitaratu zueneko garaiari dagokio– pairatutako gaixotasun berak jo zuela Soloeta-Dima *Ensayo de unificación...* liburua egitean. *Txukuneria*<sup>41</sup> deritzo gaixotasun horri, eta izenburu horixe jarriko dio *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen artikuluari. Estu hartzen

<sup>39</sup> Fr. A. de Madariaga: “Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos...”, *Aranzazu*, II, 1922, 208-209.

<sup>40</sup> Koldo Mitxelena Liburutegia (<http://oaiproduct1.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/1162>).

<sup>41</sup> Azkue, R. M<sup>a</sup>: “Txukuneria”, *Euskera*, VI, 1925, [3]-21. “Enfermedad de purismo” modura itzultzen du Azkuek berak.



du hasieratik *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos* liburua:

“Euskalari berrizale txukuneridun-artearen urrutiren yoa zai-guna A. Soloeta dela uste dut. Orretarako dituen kemena ta zaletasuna aundiak izanarren, etzen noski bide legunetik hainbeste irtengo, aurretikoak izan ezpalitu: nerau bat, nerekin bateratsu besteren bat eta arren ondoren eli osoa, berrizale-mordo andi ugaria”<sup>42</sup>.

Ez zitzaion Soloetari erraz egingo holako kritika eta iruzkinak irentsi beharra. Kontua da, zergatik edo hargatik, *mututuz* joan zela dimoztarraren luma zolia. Badago, hala ere, ohiko bibliografietan aipatzen ez den ekimen bat: *Lecciones para una Gramática del Euzkera Bizkaino* artikulu sorta, hain zuzen ere. 1914ko abuztuaren 2an hasi zen gramatika-txo hori argitaratzen, eta 1916ko urtarrilaren hamarrean eten zen argitalpena, maiztasun aldakorra izan zuelarik. Guztira, 17 ikasgai argitaratu zituen, eta sarreran esaten duenez, Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarirako eta Buenos Airesko *Euzkotarra* astekarirako atondu zituen ikasgaiok, eskusiban prestatu ere:

“Antes, empero, de presentar mi reforma [batasunaz ari da] a la consideración de los entendidos y desterrar los diversos dialectos, considero de deber dedicar un cariñoso y filial recuerdo al primer idioma que balbuceé en las montañas de Bizkaya. He escrito gramáticas baskongadas en Gipuzkoano, Labortano, y justo y razonable me parece que se conceda al euzkera bizkaino su correspondiente lugar al lado de los demás euzkelgis que se hablan en otras comarcas de Euzkadi”<sup>43</sup>.

<sup>42</sup> *Ibidem*: 14-15.

<sup>43</sup> P. Soloeta: “Lecciones para una gramática baskongada en dialecto biskaino”, *Euskal Erria* (Montevideo), 105, 1914-08-02, 10. or.

## Agur Euskal Echeari: Txile-Argentinetakoa Nagusi

*Ensayo de la unificación de los dialectos baskos* liburua argitaratu, eta hurrengo urtean nagusiek Txile-Argentinetakoa –orduan kaputxinoentzat probintzia bakarra zen– Nagusi izendatu zuten. Ardura horretan hiru urte inguru eman zituen Aita Soloetak. Epe hori pasatuta, Txile-Argentinetakoa Aholkulari izendatu zuten, baita B. Aires-Nueva Pompeya barrutiko Nagusi eta parroko. Nueva Pompeya-ko komentua eta ikastetxea probintziako inportanteenak ziren orduan; eta, era berean, hango Andra Mari basilika Argentinako ezagunenetakoa bat zen.

Bost urteotan (1923-1927), ordenan, goren mailako ardurak izanda, asti gutxi geratuko zitzaiokeen Soloeta Aitari idazluma saiakera, ikerketa eta holakoetan dantzatzeko. Urteotan, hutsunea nabarmentzen da haren bibliografian. Hala ere, esan behar da, kaputxinoen *Nueva Pompeya*<sup>44</sup> aldizkariaren zuzendaria izan zela kaputxinoen komunitateko Nagusi izan zen tarte horretan.

“Baña biotzean etxakon laket, Nagusia izatea” diosku A. Yurre arratiar kaputxino lagunak<sup>45</sup>. Haor, Soloetaren izaeraren beste ñabardura garrantzitsu bat. Ez zuen luzaro iraun erantzukizun handiko ardurotan. Izan ere, 1927. urtearen azkenean, itzuli bat egin zuen bere jaioterrira, amari eta anaia kaputxinoei bisita bat egiten, eta ez zen berriro itzuli Argentinara.

Euskal Herrian zegoela, Euskaltzaindian ere egon zen euskal akademiak gonbidatuta, eta badirudi –Azkuek eta abarrek aurreko urteetan eginiko kritikak gorabehera– oso gogorapen ona geratu zitzaiola dimoztarrari. Era berean, Soloetak aprobe txatu egin zuen Euskal Herriko aldia bere eskuetara heldutako sermoi bilduma baten berri emateko. Izan ere, fraide karmeli-

<sup>44</sup> Aldizkaria 1924an sortu zen, eta oraindik argitaratzen da. 90 urte bete ditu, beraz.

<sup>45</sup> “Dima ‘ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 137. or.

ta batek eman zion bilduma hori Soloetari, eta honek, dokumentuaren balioaz jabetuta, kaputxinoen Donostiako bibliotekariari, Tolosako Bernardino Aitari, pasatu zion, inprentarako bidean jar zezan. “Sucedía esto –diosku Frantzisko Ondarra kaputxinoak– a fines del año 1927 o primeros de 1928”<sup>46</sup>.

Egotaldia Erromara joateko ere aprobetxatu zuen Soloetak; eta, dirudienez, itsasoaz honaindi emaniko hilabeteotan piztu zitzaion Soloetari Txinara misiolari joateko guraria. Ezustea ez ezik, tristura ere sortu ei zuen erabaki horrek Argentinako lagunen artean: “Ameriketan negarrez daude etxeko ta kapokoak ain Aita onak iges egin dielako. Aren biotz aundiaz, aren buru argiaz, eta aren xalotasunaz eztaude aztuta”<sup>47</sup>.

### **Kansu aldera, Txinako misiorik pobreenera<sup>48</sup>**

Azkenean, 1928ko maiatzaren 1ean, bera bakarrik, Genevako portuan ontzia hartu, eta Txina aldera abiatu zen Aita Soloeta, kaputxinoek Gansu probintziako Pingliang eskualdean zeukaten misio pobrera:

“Jorraillaren 15´ean atera zen bere erritik. Orrillaren 1´an Genova´tik. Egun auetantxe sartzen da Txinan. Beste igazko zazpi lagunak ainbat ikusi zuten lapurrekin eta... baño misiolari andi au eztu ezerk bildurtzen. Jaunak bere itzal gozoa eman-go diola gaude, Beragatik ain neke gogorretara bere burua daraman Aita Dima´ri”<sup>49</sup>.

<sup>46</sup> Ondarra, Frantzisko: “Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los Capuchinos de San Sebastián I”, *FLV*, 30, 1978, 524-546 // II, *FLV*, 31, 1979, 91-119.

<sup>47</sup> “Aita Dima Txinara bidean”, *Zeruko Argia*, 116, 1928-abuztua, 311. or.

<sup>48</sup> Izenburuan, Rafael de Gulina-ren *Kansu la Misión más pobre de China* (B. Aires, 1944) liburuari egin nahi izan diogu erreferentzia.

<sup>49</sup> “Aita Dima Txinara bidean”, 311. or.

Berrogeita zazpi urte zeuzkan orduan Soloetak. Kaputxino lagunek diotenez, artean gizon gogorra zen, sasoiko eta osasuntsua. Izan ere, harrituta utzi zituen hango denak arratiarren kemenak eta indarrak. Poz-pozik agertu ei zen misioan, bertako lagunek hara joango zenik ez zekitela. Bertara heldu, eta berehala lotu zitzaion lanari. Ekinean beti, uneoro lanean, beharrean nekagaitz... Pingliang eskualdean misio-leku berriak ere sortu zituen Soloeta misiolariak, nahiz eta horretarako lan neketsu ere neketsuak egin behar izan<sup>50</sup>.

Txinako egoera politikoak baina, zeharo baldintzatuko du bertan zeuden misiolari euskaldunen egoera. Armada komunista Gansu-raino heldu da, eta kaputxinoek mehatxatuta ikusten dute euren burua. Tamalez, susmoak eta beldurrak egia bihurtzen dira; eta, 1933ko azaroaren 25ean, Garex'ko Bartolome anaiak eskutitz bat bidaltzen du kaputxinoen Iruñeko komentura: "Txina'ko lapurrak [komunistak] illabete onen 12'an arrapatu ginduzten Dima'ko Pernando Aita, Artazkoz'ko Isidro Anaia eta nerau"<sup>51</sup>. Aita Yurreren arabera, atxiloketa gertatuaz batera, Aita Soloetak eskaera adoretzu bat luzatu zien komunistei, haren izaera eskuzabala ondo ere ondo erakusten duena: "Soloeta Abak arren esan eutsien *gorriei*, beste biak uzteko; eta norbait eroatekotan, bera bakarrik eroateko"<sup>52</sup>.

<sup>50</sup> "Dima'ko Soloeta Aba Kaputxinoa", 138. or. Aita Yurrek dioskunez, Erromako *L'Osservatore Romano*-raino heldu ziren Aita Soloetak egindako lanen oihartzunak, kaputxinoen nagusiek bidalita.

<sup>51</sup> Garexko Bartolome A.: "Gure misioetako estatusunak. Aita Pernando Dima'koa nola arrapatu zuten", *Zeruko Argia*, 182, 1934-ots., 229-231.

<sup>52</sup> "Dima'ko Soloeta Aba Kaputxinoa", 138. or



*Babitutako biru misiolariak soldadu komunistekin, hauen gordelekuan*<sup>53</sup>

Komunisten asmoa, antza, dirua ateratzea baino ez zen, eta beren-beregi adierazi zieten kaputxinoei zer egin behar zuten: “Gu zuen erlijioaren etsai gera, baña pixkat laguntzen ba´diguzue, lasa utziko zaitu[el]gu”<sup>54</sup>.

Azaroaren 12tik urtarrilaren 7ra arte eduki zuten komunis-tek atxilotuta Soloeta, hots, soldadu erregularrek Soloetaren taldea inguratu arte. Estualdi horretan, komunistek ihesari arin-aringa eman, eta Soloeta libre geratu zen: “BERRI POZ-GARRIA. Ilbeltzaren 13´an gure Txina´ko Misiotegi´tik, kablegrama au biali ziguten: *Iruña´ko Kaputxinoak: AITA PERNAN-DO ASKATURIK*”<sup>55</sup>. Berria bolo-bolo zabaldu zen orduko he-dabideetan. Madrilgo *ABC* egunkariak, kasurako, honela ematen zuen liberazioaren berri, 1934ko urtarrilaren 14an :

“Ciudad del Vaticano 13, 9 noche. Telegrafían de Pekin a la agencia Fides que el Padre Fernando Soloeta, que había sido

<sup>53</sup> Gulina, Rafael de: “Desde el Kansu”, *Verdad y Caridad*, 128, 1934-11-15, 341-344 (Soloetak jantzi argia dauka; Bartolome eta Isidro anaiek abitu iluna daukate).

<sup>54</sup> “Gure misioetako estutasunak...”, 230. or.

<sup>55</sup> *Ibidem*, 231. or.

capturado por los bandidos chinos, acaba de ser puesto en libertad por las tropas regulares.

El Padre Soloeta es capuchino y oriundo de la provincia de Navarra. Está de misionero en la Prefectura Apostólica de Pingliang, en el Kansú”<sup>56</sup>.

Atxilo-aldian pairatutakoak eta bertan ikusiak liburu baten kontatu zituen Soloetak, 1934. urtean bertan. Liburua ordenako nagusien enkarguz –aginduz– idatzi zuen eta Argentinan argitaratu zen: *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo: (Dramático relato de un Misionero Argentino) / Memorias del R. P. Fernando Soloeta de Dima, Misionero Capuchino en Kansu, China*<sup>57</sup>.

Polikarpo Iraizoz kaputxino nafarrak itzulpena egin, eta atalka argitaratzen hasi zen Iruñeko *Zeruko Argia* aldizkarian. Argitalpena 1935eko uztailan (199. zb.) hasi zen, eta Espainiako gerrak ankerki eten zuen. Argitaraturiko azken atala 1936ko uztailkoa (211. zb.) dugu. Guztira, 1-112 orrialdeak argitaratu ziren, baina Iraizozek Soloetaren obra osoa zeukan itzulita<sup>58</sup>. Orain, sarean daukagu Ainhoa Beolak egindako edizio berria: *Lapurren menpean*<sup>59</sup>.

Liburu horren inguruan, komentariotxo batzuk egiten ditu Aita Julian Yurrek. Alde batetik, goraiatu egiten du Aita Irai-zozen itzulpena; baina, badirudi, Iraizozek erabilitako testua, aldatuta zegoela: “Egiazko paperak ikusi be, ez bide zituan ikusi”, diosku Aita Yurrek. Beraz, baten batek aldatu egin zituen pasarteren batzuk Soloetari ez baimenik, ez iritzirik eska-

<sup>56</sup> Ferretti: “Misionero español en libertad”, *ABC*, 1934-01-14, 44. or.

<sup>57</sup> Soloeta, Saturnino (Fernando de Dima): *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo*, P.P. Capuchinos, Nueva Pompeya, Buenos Aires, [1934], 122 or.

<sup>58</sup> *Lapurren menpean: Erensuje-Gorriaren soldadu-taldean atxilo egondako Misiolari baten oroitzapenak* / Egilea: Dima-ko Soloeta Fernando, A., O.F.M. Cap., Txinako Misiolaria; Euskeratzaldea: Iraizoz-ko Polikarpo A., O.F.M. Cap., [Imprenta de Capuchinos, Pamplona, 1934], 245 or.

<sup>59</sup> Armiarma (Klasikoen Gordailua): <http://klasikoak.armiarma.com/pdf/IraizozLapurren.pdf> (*Zeruko Argian* argitaratutako zatia batzen da bertan).

tu barik, eta horrek sumin handia eragin zion misiolari bizkaitarrari: “Gizon ixilla zan; ondo sufritzen eban; baña badakit, etzegoela pozik, norbaitek aldatu egin eutsolako liburua, gauza batzuk kenduz eta beste batzuk ipiñiz”<sup>60</sup>.

Txinako misioetako penak eta lorrak baina, ez ziren amaitu Soloetaren liberazioarekin: “1933 ta 1934 t. a., *gorri* areik zapalduak egozen; baña etziran geldi egoten”<sup>61</sup>. Urte bereko (1934) azaroan, *Zeruko Argia* aldizkarian haren artikulutxo bat agertzen da izenburu kezagarri hauxe zeramana: “Txina´tik Berri Txarrak”<sup>62</sup>.

Dakigunez, Txinako gerra zibila 1927an hasi zen, Txinako Errepublika gobernatzen zuen Txinatar Alderdi Nazionalistaren (Kuomintang) eta Txinako Alderdi Komunistaren artean, baina tarteka iraun zuen. 1945ean, Japonen kontrako gerra (1937-1945) amaituta, berriro gogortu zen gerra zibila, harik eta 1950ean komunistak nagusitu ziren arte: “Ta laster asi ziran mixiolariak yazartzen, askatasuna kentzen, etxe barruetara sartzen, geroago edo lenago danak kanpora botatzeko Txina´tik”<sup>63</sup>.

Txinako aldia amaitu egin da. 1954. urtean gaude, eta 26 urteko egotaldi luze, isil eta emankorra iragana da Dimako euskal-argentinarrarentzat..., txinatar ere bihurturik. Izan ere, Argentinan emandako urteek bertako bihurtu bazuten, zer ez

<sup>60</sup> “Dima´ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 139. or.

<sup>61</sup> *Ibidem*, 139. or.

<sup>62</sup> Soloeta-Dima, Fernando: “Txina´tik Berri Txarrak”, *Zeruko Argia*, 191, 1934-azaroa, 376. or.

<sup>63</sup> “Dima´ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 139-140. “Los últimos misioneros en salir de la misión fueron los de Kingyang y Sanshelipu el 31 de diciembre de 1953: los PP. Fernando Soloeta y Julián Barreneche[a], que opusieron una brava resistencia a dejar la misión y como buenos arratianos fueron obligados a salir casi a empellones” (Askoren artean: *La Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón, 1950-1975*, Curia Provincial de Capuchinos, Burlada, 1975, 455. or.).

zen gertatuko kaputxinoaren baitan, Gansuko herritar xehe-xeheekin hogeita sei urtean bizi izan eta gero.

### Filipinetara: azken pausalekua

Txinatik egotzita, 1954ko otsailaren hiruan, A. Yurre eta A. Soloeta Manila aldera doaz. Soloetak, handik zortzi egunera, 73 urte bete zituen; baina adina gorabehera, Manilako kaputxinoekin –euskaldun batzuk tarteko– geratzea erabaki zuen<sup>64</sup>.

Filipinetako egotaldiaren inguruko albiste bakarrenetariko bat, bertara heldu eta denbora laburrera ematen digu Soloetak. Gotzainari idazten dio, Txinan utzitako misioei buruzko berriak emateko. Izan ere, hiru gutun hartu dituzte, eta bertan Pingliang-eko kristau natiboen berri ematen da, kasu batzuetan berri gordin samarrak, baina badirudi maisu onak izan ziztuztela: “También ellos, siguiendo los malos ejemplos del arratiano [Aita Yurre] y del argentino [bere buruaz ari da] se han constituido en resistencia pasiva”<sup>65</sup>. Baina, interesgarria da, bestalde, euren buruaz esaten duena: “Los tres exmisioneros refugiados que nos encontramos aquí somos tres ilustres desconocidos, pobres en lo temporal y sin ninguna representación dentro de la jerarquía eclesiástica; así de altas esferas han de venir las oportunas iniciativas”<sup>66</sup>.

Artikuluaren amaieran, Jainkoari berari zuzentzen dio Soloetak bere eskaria. Badaki zer pairatzen ari diren Gansu probintziako misioetako kristauak, eta ezin du ulertu Jainkoaren

<sup>64</sup> Badirudi, Filipinetara heldu baino lehenago, Hong-Kong kolonia britaniar ohian, pausaldi bat egin zuela Soloetak (*Euskal Echea. La génesis de un sueño...*, 283. or.).

<sup>65</sup> Fernando de Dima: “Como en la época de las persecuciones”, *Verdad y Caridad*, 343, 1954-07-15, 195. or.

<sup>66</sup> *Ibidem*, 195. or.



pasibotasuna –fede krisialdi bat?–. Azken lerroetako ironia –etsipena?, ilusio eza?, distantzia?...– ere, azpimarragarria da:

“Nos están imitando, es cierto, y con un heroísmo inefable, y quizás nos tengan que imitar en la violenta y bárbara manera con que fuimos deportados. Y ello sería, juzgando las cosas con criterio humano, una gravísima calamidad para aquella hermosa cristiandad. ¿Pero, qué haces, Dios Todopoderoso, que no vienes en nuestro socorro? ¿en quién confiaremos, si Tú no nos favoreces?

Saludos a todos los religiosos de la Provincia y exmisioneros nuestros, y quiera bendecir al más inútil de sus servidores”<sup>67</sup>.

Hamar urte luze eman zituen Soloetak Filipinetan –*desconocido, pobre y sin ninguna representación dentro de la jerarquía eclesiástica*–, eta bertan, Tagaitay hirian, hil zen, 1964ko ekainaren 21ean, 83 urteko zela. Udako solstizioa ospatzen den egun horretan, urtero gogoratzen dute hango anaia kaputxinoek handik milaka kilometrotara sortu zen euskaldun mi-siolaria<sup>68</sup>.

2014ko ekainaren 20an<sup>69</sup>

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*

---

<sup>67</sup> *Ibidem*, 195. or.

<sup>68</sup> “Mention the name of the brother whose death anniversary is remembered at the last petition of the Evening Prayer. June 5, Pedro Joaquín M<sup>a</sup> de Aldaz; 9, Damaso M<sup>a</sup> de Biurrun; 18, José M<sup>a</sup> de Tirapu; 21, Fernando de Dima...” (<https://sites.google.com/site/capuchinphilippineprovince/>).

<sup>69</sup> Aita Soloeta-Dimaren heriotzaren 50. urteurrenaren bezperan.

### JABIER KALZAKORTA EUSKALTZAIN BERRIAREN SARRERA-EKITALDIA

Joan den azaroaren 29an ospatu zen Markina-Xemeingo udaletxean Jabier Kalzakorta euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia.

**Karmelen** aurreko alean Luis Baraiazarrak eta Jabierrek berak agertu ziguten gure euskaltzain berriaren nortasuna eta



bio-bibliografia. Laburbildu ditzagun bere hitzetan bere *bizi-tzako izpi batzuk*.

Mundura etorri nintzen, Markinan, 1961eko martxoaren 22an...., Antxia torre-etxean. Markinar peto-petoa naiz, beraz, jaiotzez eta bizitzez... Gurasoak guztiz euskaldunak izan ditut, euskaldun hutsak. Eskolara hasi nintzen sei bat urte nituela edo lehentxoago... Markinako kontzejupean... Karmeldarren elizako saloi batean ere izan ginen eskolan. Handik urte batera edo Markinako karmeldarren komentuan ikastola berria izan genuen: Zerutxu.

Orduko eskola gehienak edo guztiak euskaraz ziren. Zerutxu ikastolatik Arretxinagara joan nintzen. Han bi kurtso egin nituen. Arretxinagatik kaleko eskoletara. Han EGBko 7. kurtsoa egin, eta EGBko azken kurtsoa, 8. kurtsoa, kaleko eskola berrietan ikasi nuen. Ondarroara 13-14 urterekin joan nintzen. Ia sekula Markinatik irten gabe nengoen. Eta Ondarroara ikastera joatea beste mundu batera joatea bezalakoa izan zen hasieran.

*Ondarroan dena erdaraz ikasi nuen. Gai guztiak erdaraz. Ni zientzietatik joan nintzen. [Inguruko herrietako] jendea batzen ginen institutuan. Denak edo gehienak euskaldunak. Guk geure artean euskaraz egiten genuen. Orduan, garai hartan, euskaltzaletu nintzen. Euskara kontuetan zaletasun bat*



*baino gehiago izan ditut. Euskaraz klasikoak maite ditut, euskalki guztietakoak. Ahozko euskaran beti euskaldun butsetara burbiltzeko grina izan dut. Neure burua entzule eta ikasle egin dut joan naizen leku guztietan.*

*Eguneroko bat ere osatu nuen etxean gurasoei entzuten nizkien berba eta esaerekin. Eguneroko horren izena De rebus euscarae memorabilibus zen.*

Gero Adolfo Arejitaren ahotik entzungo dugu bere nortasun eta “ezaguera entziklopedikoa”. Horregatik ez dugu hemen bere curriculumik zabalduko. Esan dezagun baina ahoz-kotasuna duela lan arlo maiteenetakoa. Eta hainbat perla eder bildu eta landu dizkigu ezin konta ahala artikulua ederretan, edota euskal herrietan nahiz erbestekoetan eginak dituen hitzaldietan. Maisu da ikerketan, irakasle lanetan, jakituria apal eta sentikor komunikatzen nahiz parte-katzen.



## Euskaltzain

Adolfo Arejita, Xabier Kintana, Patxi Uriarren eta Andres Urrutia euskaltzainek aurkeztu zuten Jabier Kalzakortaren hautagaitza, eta Euskaltzaindiak 2013ko uztailaren 19an izendatu zuen euskaltzain oso, Bilbon egin zuten osoko batzarreran, gehiengo osoa lortuz. Itziar Laka zen

beste hautagaia. Jose Luis Lizundia Euskaltzain emerituak utzi-tako lekua bete du Jabier Kalzakortak.

## PROTOKOLO DOTOREA

Eguna hasi zen Euskaltzaindiak Lea-Artibaiko Amankomunazgoan egin zuen ohiko bilerarekin. Handik kalejiran zuzendu zituzten euskaltzainak beren pausoak udaletxera.

Ez dakit zergatik eguzkiak ekitaldi dotore honi muzin egin zion. Egun osoan euria izan genuen lagun. Baina euskal kulturaren aterkiek nahiko ondo babestu zuten ekitaldia.

Zestolari txikiek egin zioten ongietorria udaletxeko sarrean. Andres Urrutia euskaltzain buruak eta alkateak lagunduta heldu zen udaletxera.

Barruan zituen besteak beste bere familia eta Euskaltzaindiko hainbat ordezkari –oso, ohorezko, urgazleak-, erakunde desberdinetako agintariak, Labayruko lagunak, markina-xe-meindarrak herrikoak eta erbestekoak. Xabier Kalzakorta mar-





kinarra izanik, udaletxeko areto nagusia txiki geratu zen eta aurreko aldean karpa bat ipini behar izan zuten. Horrela jende ugari ekitaldi osoa zuzenean jarraitu ahal izan zuen.

Juan Jose Txurruka alkateak ongietorria eman zien bertan zirenei. Eta jarraian Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza. Euskaltzaindira ongietorria eman zion Kalzakortari bere merituak aipatuz eta ekintza horietan eta beste batzuetan *“ekin eta jarrai”*tzeko eskatuz.

Ondoren, Patxi Uribarren eta Jean-Baptiste “Battittu” Coyos euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu zen Jabier Kalzakortea.

### **“Ahozko literatura hizpide”**

Jarraian “Ahozko literatura hizpide” izenburuko sarrera-hitzaldia irakurri zigun.



Wilhelm Humboldt-ek Euskal Herrira egindako bigarren bidaiako ibilbidea gida harturik, lekuan lekuko ahozko gene-roak aztertu zituen Kalzakortak bere hitzaldian.

Humboldt Euskal Herrira bigarrenez etorri zenean, 1801eko udaberrian, Baionatik Donibane Lohitzunetik zehar Donostiara jo zuen. Donostiatik Getarian zehar Ondarroara sartu zen. 1801eko maiatzaren 4tik 5era, Markinan, Juan Antonio Mogelek in egon zen.

Humboldt Markinan egon zenean, J. A. Mogelek *Leloren kantua* izenarekin ezagutzen den euskarazko kanta baten berri eman zion. Kanta hori, Mogelek Humboldt-i aditzera eman zionez, kantabroek edo kantabresek –hots, euskaldunek– Augustoren legioen kontra borrokatu zuten garaikoa zen.

1817an, liburuxka batean (*Berichtigungen und Zusätze des Mithridates* erdaraz *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung*) ohar eta iruzkinekin, argitaratu zuen Humboldt-ek. Kantu horrek eragin handia izan zuen Europan zein Euskal Herrian berean.

Markinan J. Antonio Mogelek in eta Durangon Pablo Astarloarekin egon zen Humboldt. Bidaiari prusiarraren bidaiaren egunerokoa gida harturik, mugaz bestaldeko ahozko gene-roak aipatu ditu Kalzakortak hitzaldian. Mugaz bestaldean, La-







purdin, Baionatik zehar Itsasura joan zen Humboldt. Itsasun, Harambillet apez zaharra ezagutu zuen eta Harambillet-ek euskarazko kanta zaharrak erakutsi zizkion Humboldt-i. Hala bada, Itsasun ikasitako kanta eta baladen gainean hitz egin da hitzaldian. Itsasutik Baigorriin zehar Zuberoa izan zen Humboldt-ek ezagutu zuen azken euskal lurraldea.

### **Adolfo Arejitaren erantzuna**

Erantzuna Adolfo Arejita euskaltzainak eman zion. Gure euskaltzain berriaren nortasun eta “ezaguera entziklopedikoa” aurkeztu zigun, bere profila zertzelada zehatzez marraztuz.





“Nahiago dut bere bibliografiari so bat trinkotasunari eta sakonerari neurria hartzea, kopuru neurriaz gainera”.

Jabier Kalzakortaren ibilidea eta lana gogoan izan zituen, beraz: “Beronen liburuetan, baina batez ere aldizkarietan berrina argitaratu dituen ikerlanak ohartsu irakurriz gero, eta berrari asti orduetan honezaz edo harzaz hitz egiten entzuteko betarik izan baduzue, gutariko edozein harrituko da, euskal hizkuntza-literaturez ez ezik, literatura unibertsalaz zein kultura zabalaz beronek duen jakinduria zabalak. Ezaguera entziklopediko moduko osotasun horretatik literaturaren eta bereziki herri literaturaren barrutia hautatu zuen orain dela aspaldi bere baratzeko preziaz, eta hori landu du gehienik, baina beste inguru alderdiak ere ahantzi gabe”.







## Euskaltzain oso


Hitzaldiak amaitu ostean, denak zutik zirelarik Euskaltzainburuak hautagaia euskaltzain aitortuko zuen eta Jabier Kalzakortak *“Euskaltzaindiaren xede eta belburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko ditudala neure hitza ematen dut”* aldarrikatu zuen txalo artean.

Ondoren euskaltzain osoen domina, diploma bat -testu honekin *“Euskaltzaindiak Xabier Kalzakorta jaunak euskararen alde orain arte egin dituen lanei esker erakutsiz eta gerokoan pizgarri lankidetzat hartu du.*



*Markina-Xemeinen 2014ko azaroaren 29an*” -eta ikurra jaso zituen Jabier Kaltzakortak Andres Urrutia euskaltzainburuarengandik.

Azkenez, opari eta oroigarrien unea. Hala, Udalaren ize-nean, Juan Jose Txurruka alkateak eta Ander Manterola, oho-rezko euskaltzainak, eta Igone Etxebarria, euskaltzain urgaz-



leak, Labayruren izenean, opari bana eman zioten. Eta gainerako Euskaltzainak hurbildu eta Jabier Kalzakorta agurtu zuten.

Andres Urrutiak eman zion amaiera ekitaldi dotore honi Jabier Kalzakortak zin egiterakoan esandako hitzen lekukotza eta oroigarria gogoratuz.

Udaletxe atarian aureskua dantzatu zioten euskaltzain berriari herriko bi neskek eta aho gozagarria batekin pozik joan ginen. Gure adixkide eta aldizkari honetako kolaboratzaile den Jabier Kalzakortari zorionak eman jasotako ohoreagatik eta orain arte bezala jarrai dezala ahozko euskararen hainbat perla eder bildu, landu eta gurekin partekatzen.

*Juan Mari Arrizabalaga*



## SANTA TERESAREN JAIOTZAREN 5. MENDEURRENEAN

### AITA SANTUAREN GUTUNA

Jesus García Burillo  
Avilako Apezpiku jaunari

Anaia maitea:

1515eko martxoaren 28an jaio zen Avilan geroago Santa Teresa Jesusena izenaz ezagutua izango zen haurra. Beraren jaiotzako bosgarren mendeurrena hurrean dugula, nire begiak hiri horretarantz doaz Jainkoari emakume handi horren dohaina eskertzera. Bide batez Avilako elizbarruti horretako eliztarrok eta espainiar guztiok fundatzaile ospetsu horren historia ezagutzera eta beraren liburuak irakurtzera animatu nahi zaituztet. Hain zuzen ere, idazki horiek, munduan zehar sakabanututako Karmelo ugariatan bizi diren beraren alabekin batera, esaten baitigute zein eta nolakoa izan zen Ama Teresa eta zer irakats diezagun gaurko gizon-emakumeei.

Santa ibiltariaren eskolan erromesak izaten ikasten dugu. Bidearen irudiak laburbil dezake oso argiro beraren eta bere obraren muina. Berak, bidea, Jainkoak egoitzarik egoitza giza-



kia Berarengana eraman eta, une berean, gizakienganako abiabidean jartzen duen Perfekzio Bide modura hartu zuen. Baina, zein bidetatik eraman nahi gaitu Jaunak Santa Teresaren urratsetan bere laguntzaz? On ugari egiten dizkidaten halako lau gogora ekarri nahi nituzke: poztasuna, otoitza, elkartasuna eta denbora bera.

Santa Teresak bere mojak “zerbitzatzen alai bizitzera” (*Perfekzio bidea* 18,5) animatzen ditu. Benetakoa santutasuna poztasuna da, “*santu goibela santu mengela*” delako. Santuak,



heroi saiatuak baino gehiago Jainkoak gizakiari emandako graziaren fruitu dira. Santu bakoitzak Jainkoaren aurpegi mugaezinaren ikuspegi bat islatzen digu. Santa Teresarengan, “Maiestate gorena, Jakinduria eternoa” (Olerkia, 2) den Jainkoa, hurbileko lagun eta adiskide ageri zaigu, hots, beraren gozamenak gizakiekin elkarrizketak izatean jarri dituena: Jainkoa gurekin pozten da. Eta, bere maitasuna sentitzeak, barnean ezin ezkutatu eta ingurukoei eskaintzen zien alaitasun kutsakorra sortzen zuen santarengan. Alaitasun hau bizitza osoan zehar ibili beharreko bidea da. Ez da bat-batekoa, azalekoa, zaratatsua. “Hasieretan” bilatu behar da (*Bizitza*, 13,1). Arimaren barneko poza adierazten du, eta apala eta “xumea” da (ik. *Fundatzioak* 12,1).

Alaitasun hori ez da ukapena, oinazea edota gurutzea alde batera uzten dituen bidexka errazetik lortzen, Gurutziltzatuari begiratuz (Cf. *Bizitza* 6,2; 30,8) eta Berpiztua bilatuz (ik. *Bidea*, 26,4) lanak eta minak eramatekin baino. Santa Teresaren poztasuna, ez da berekoa, ezta bere buruari begiratzen diona. Zerukoa modukoa, “guztiak poztean poztu egiten dena”, interesik gabe maitasunez besteen zerbitzuan jartzetik sortua da. Santak, behin batean estu eta larri zegoen bere monasterio bati bezala “ibil zaitzte pozik” diosku gaur pertsonoi, batez ere gazteei. (*Gutunak*, 284,4). Ebanjelioa ez da, ezinean, neke artean herrestaka eramaten den berunezko poltsa, bihotza Jainkoz bete eta hurkoak zerbitzatzera bultzatzen duen poziturria baizik.

Santa Teresak otoitz bidea ere egin zuen, honako era eder honetan “maite gaituela dakigunarekin bakarrean sarri egonez adiskide-harremanetan jardutea” dela definituz (*Bizitza* 8,5). Aldiak “gogorak” direnean “Jainkoaren adiskide min-minak” behar dira “ahuleziak jota daudenei eusteko” (*Bizitza* 15,5). Otoitz egitea ez da ihes-egite mota bat, ezta burbuila batean sartu eta isolatzea. Zenbat eta gehiago jardun “benetako adiskide” eta bidaiako “bidelagun” fidela dugun Jainkoarekin adiski-

detasunean, hainbat eta gehiago indartuz joan ohi da. Harekin “guztia sufri daiteke: laguntza da eta adorea ematen du; ez du sekula huts egiten” (*Bizitza* 22, 6). Otoitz egiteko “kontua ez da asko pentsatzea, asko maitatzea baino” (*Egoitzak* IV, 1, 7), hau da, gure begiak, maitasunez begiratu eta pazientziaz jasaten gaituenari begira jartzea (ik. *Perfekzio bidea* 26, 3-4). Jainkoak bide asko izan ohi ditu arimak berarengana eramateko, baina otoitza dugu “bide segurua” (*Bizitza*, 21, 3). Alde batera uztea, galtzea da (ik. *Bizitza* 19,6). Santa Teresaren aholku hauek amaigabeko gaurkotasuna dute. Jo ezazue, bada, aurrera otoitzaren bidetik, gogotsu, geratu gabe, azkeneraino! Hau batez ere bizitza sagarutuko kide guztientzat da. Bizi ezazue fideltasuna behin-behinekotasunezko kultura barruan “betiko, betiko, betiko” (*Bizitza* 1, 5); erakuts ezazue “bihotz maiteminduren” emankortasuna itxaropenik gabeko munduan (Olerkiak 5); eta izan zaitezte “Jainkoa bakarrik nahikoa” denaren testigu hainbeste idolo dituen gizartean (Olerkia 9).

Bide hau ez da norberak bakarrik egitekoa, elkarrekin ibiltzekoa baino. Santa erreformatzailearentzat otoitz-ibilbidea, Eliza amaren barruan, senidetasunaren bidetik doa. Hauxe izan zen, hain zuzen ere, Jainkoak aditzera emanik, bere emakume-intuizioak bultzatuta beraren garaiko Elizaren eta gizartearen arazoei emandako zorioneko erantzuna: hots, “apostoluen taldeak” eginiko bidetik, Ebanjelioa xume-xume biziz eta otoitz bihurtutako bizitzaren bidez, Eliza osoa sostengatuz Jesusi jarraituko zioten emakumeen elkarte txikiak erakitzea. “Horretarako bildu zintuzten Berak, ahizpak” (*Perfekzio bidea*, 2, 5), eta halakoa izan zen promesa: “Jesus zuekin ibiliko zela” (*Bizitza* 32, 11). Hau bai Eliza barruko senidetasunaren definizio bikaina: senide bezala elkarren artean Jesusekin ibiltzea! Horretarako Teresa Jesusenak ez ditu gauza handiak gomendatzen; hiru bakarrik: elkar asko maitatzea, gauzen loturak uztea, eta benetako apaltasuna, “azken aipatu badut ere, berau da garrantzitsuena eta beste biak biltzen di-

tuena” (*Perfekzio bidea* 4,4). Zenbateraino nahi izango nituzkeen garai hauetan kristau elkarte anaiorragoak, bide hau egingo dutenak, hots, gainerakoak, batez ere pobreenak, gehiago eta hobeto maitatzeko geure izatetik askatuko gaituen apaltasunaren egian ibiliko direnak! Ez dago Eliza ama honen seme-alaba modura bizi eta hiltzea baino gauza ederragorik!

Hain zuzen ere, atek zabal dituen ama delako da beti prest Eliza, gizakienganako bidean euren bihotz egarritsuko baratza ureztatzen duen ‘ur bizia’ (ik. Jn 4, 10) eskaintzeko. Santa idazlea eta otoitz-irakaslea, era berean fundatzaile eta misiolari ere izan zen Espainiako bideetan. Bere esperientzia mistikoek ez zuten mundutik ezta jendearen arduetatik aldentu. Alderantziz, indar berria eta ausardia eman zizkioten egintzarako eta eguneroko zereginetarako, “Jauna eltze artean” ere badabilelako (*Fundazioak* 5,8). Berak bere garaiko –hain nahasia- eragozpenak bizi izan zituen, harakoak kexa garratzen tentaldiei lekua egin gabe bizitzako bidean urrats bat emateko aukera modura fedez onartuz. Egin-eginean ere, “edozein une ona delako Jainkoak mesede handiak benetan zerbitzatzen duenari egiteko” (*Fundazioak* 4, 6).

Gaur Teresak honako hau diosku: egin ezazu otoitz gehiago zure inguruan gertatzen dena ongi ulertzeko eta egokiago jarduteko. Otoitzak etsipena garaitzen du, eta ekimen onak sortzen ditu (cf. *Egoitzak* VII, 4.6). Hauxe da Teresaren errerealismoa, emozioen lekuan egintzak eskatzen dituena, ametsen lekuan maitasuna, hots, aszetismo lehiatsuaren ordez maitasun apalaren errerealismoa! Kasu batzuetan laburtu egiten ditu bere gutun mamitsuak, hasitako jarduna amaieraraino eraman behararen urgentzia adierazteko “bidean gara” esanez (*Gutuna* 469,7,9). Mundua sutan denean ezin da denbora garrantzi txikiko gorabeheratan alferrik galdu. Hobe litzateke presa santu hau kutsatuko baligu, geure denboraren bideak, Ebanjelioa eskuetan eta espiritua bihotzetan ditugula ibiltzera irteteko!

“Dagoeneko heldu da ibiltzeko garaia!” (Ana de San Bartolomé, *Últimos años de la madre Teresa de Jesús*). Heriotza aurreko Avilako Santa Teresaren hitzok bere bizitza osoa laburbiltzen dute; gorde eta aberasteko herentzia ederra ditugu gu guztiontzat, batez ere karmeldar familiarentzat, Avilako bere herritarrentzat eta espainiar guztientzat.

Anaia maitea, bihotzez agurtuz zuoi guztioi diotsuet: Dagoeneko heldu da alaitasunean, otoitzean eta senidetasunean ibiltzeko garaia, denbora grazia modura bizitzekoa! Egin ditza-gun bizitzako ibilbideak Santa Teresa bidelagun dugula. Beraren urratsek beti Jesusengana eramaten gaituzte.

Mesedez eskatzen dizkizuet, egiteko otoitz nire alde, beharrezana baitut. Bedeinka zaitzatela Jesusek eta Ama Birjinak zaindu.

Bihotz-bihotzez.

Franciscus

## SANTA TERESA FUNDATZAILE

Santa Teresak, 39 urtekin, izango dau bere konbertsio sakona. Jaungoikoagana oso-osorik bihurtu ondoren, bere galdera nagusiena hauxe izango da: “Jauna, zer nahi dozu, nik egitea”. Karmeldarren Ordenako jatorrizko Erregela, “albait ondoen gordetzea” (*Bizitza* 32,9) izango da bere lehenengo erabaki nagusia. Baina erabaki honek ez ditu beteten Teresaren desioak. Zerbait gehiagoren bila dabilkigu.

Behin eta barriro galdezka dihardu: “Jauna, zer nahi dozu nik egitea”? Hamabi estrofa dituen olerki bat ere, estrofa bakotxa galdera berbera errepikatuz amaitzen dau. Merezi dau, behintzat, olerki honen hasierako bi estrofa aipatzea:

“Maiestate Gorengoa,  
jakitate betikoa,  
nitzat ontasuna bera,  
Zu Jainko goren onbera;  
hona ezereztasuna,  
maite-kantaz diotsuna:  
zer nahi duzu egitea?

Zurea naiz, Zuk hazia,  
zurea, zuk eresia,  
Zuk bainauzu onez jasan;  
Zuk dei egin baitzenidan;  
zurea, zuk itxaronik,

## loru baitut ez galtzea: zer nahi duzu egitea?" (Olerkia 2)

Bila eta bila, badoa Teresaren barnea apurka-apurka argitzen. Eleizaren bihotzean aurkituko dau urtenbidea bere etenbako galderari: "zer nahi duzu, nik egitea?"

### *Bigarren erabaki handia*

Jaunagana bihurtu ondoren hartutako erabakia, Karmengo Ordenako jatorrizko "Erregela albait ondoen gordetzea" izan bazan, bigarrena izango da, karmeldar lekaimen bizimodua eta helburuak errotik aldatzea.

Teresa, 45 urte dituala, bere Gizakundeko komentuko gelan aurkitzen da taldetxo bategaz alkartuta solasaldi espiritual ezitsuan. Gehienak bere senitartekoak ziran, karmeldarrak batzuk eta laiko adiskideak besteak. Honetan, Maria de Ocampok biztuko dau Teresak barnean aspaldian eroian txinparta.

Honela kontatzen dau Teresak jazoera hau: "Behin, persona batekin nengoela, esan zidan niri eta beste batzuei ere bai, ea oinutsen erara moja izateko ez ote ginen gauza izango; monasterio bat ere egin zitekeela. Ni, desira hauetan berobero nenbilenez gero, (...) asmo hori Jainkoaren ardurapean benetan jartzea erabaki genuen" (*Bizitza* 32, 10)

Eta Jaungoikoak ikuskari baten bidez ziurtatzen deutso Teresari bere proiektu barria:

"Behin, Jauna hartu ondoren, Haren Maiestateak neure indar guztiakin horretan saia nendila agindu zidan, monasterioa egin egingo zelako promesa handiak eginez, eta han ategin handia izango zuerla Berak, eta San Jose izena emateko, beronek zainduko gintuela ate batean eta Andra Mariak bestean, eta Kristo gurekin ibiliko zela, eta distira biziz argi egingo zuen

izarra izango zela eta Ordena erlijiosoak zabarkerian eroriak izan arren, ez pentsatzeko haietan Jainkoa gutxi zerbitzatzen zenik; ea zer izango litzatekeen mundua erlijiosoengatik ez baltz” (*Bizitza* 32, 11).

### *San Jose komentua*

Avilako San Jose izango da Teresak jasoko dauan lehenengo komentua. Hasieratik mila arazo eta oztopo izango ditu kanpotik eta barrutik. Baina Teresak aurrera diahardu kemen-tsu Jaunaren graziaz:

“Oraindik toki hartan albistea zabaltzen hasi besterik egin ez zenean, ez dago labur idazterik gure aurka etorri zen jazarpen latza, zeresanak, barreak, zorakeria zela esatea. Niri, ongi nengoela neure monasterioan. Nik ez nekien zer egin. Alde batetik arrazoia zutela uste nuen. Honela, oso nekaturik, Jainkoari gomendatzen ari nintzela, Haren Maiestatea kontsolatzen eta





adorea ematen hasi zitzaidan. Esan zidan hemen ikusiko nuela Ordena erlijiosoak fundatu zituzten santuek igaro zutena; nik pentsa nezakeena baino jazarpen handiagoa nuela oraindik pasatzeko; guk ez emateko haiei garrantzirik” (*Bizitza* 32, 14)

Hainbeste zalaparta artean, batzuetan lurra jota aurkitzen da Teresa. Jaungoiko berberari deiardaka dinotso kexu:

“Ene Jauna, nola agintzen dizkidazu ezinezkoak diruditen gauzak? Emakumea izanda ere, askatasuna banu behinik behin...!; baina hainbeste aldetatik loturik, dirurik gabe eta nondik eskuraturik ez nuela, ez Brebea ordaintzeko, ez ezertarako, zer egin nezake nik, Jauna?” (*Bizitza* 33, 11).

Nahiz eta erasoaldien artean izan, Teresak lortzen dau Erromatik Brebea eta Alvaro Mendoza, Avilako gotzainagan-

dik baimena komentua zabaltzeko. Badau karmeldarren Probintzialaren onespena ere, baina berbaz bakarrik eta ez deutso, bel-durrez, idatzita emoten lizentziarik:

“Guztia eraturik, Jaunak hala nahita, San Bartolome egunean, batzuk abitua hartu zuten eta Sakramentu Santua jarri zen, eta aginpide eta indar osoz egina geratu zen gure aita aintzatsu San Joserren gure monasterioa, mila bostehun eta hirurogeita bigarren urtean. Ni neu izan nintzen abitua ematen, eta kanpoan geratu ziren gurte etxe bereko beste bi moja” (*Bizitza* 36, 5).



Hala ere, kontrakotasunak eta jazarpenak ez dira amaituko. Teresa nazkatuta daukagu hainbeste iskanbila halako monja taldetxo errukarri baten aurka hain gogor jarteko jendea. Deabruaren erasoak ere ez dau baztertzen. Hemen bere salaketa:

“Izututa nengoen deabruak emakume gaixo batzuen aurka zer ahalegin egiten zuen ikusita eta nola guztiei –diot kontra zaudenei– kalte handia iruditzen zitzaaien toki hartarako hamabi emakume soilik eta Ama Nagusia, ez baitziren gehiago izango, eta hain bizimodu estukoak, izan ere; kaltea edo okerra, izatekotan ere, beren buruen aurka izango zen” (*Bizitza* 36, 19).

Giroa larritzen doanez, Jaungoiko berberari ere, kontuak eskatzen hasiko da Teresa: “Jauna, etxe hau ez da nirea; Zugatik egin da; orain honen gorabeheraz arduratzeko ez dago inor, arduratu bedi Berorren Maiestatea” (*Bizitza* 36,17). Eta Jaungoikoak ez dau itziko bertan behera eta esango deutso: “Ez al dakizu ahaltsua naizela? Zeren beldur zara? Eta ez zela desegingo ziurtatu zidan” (*Bizitza* 36, 16).

Pozgarrizko ikuskari bi biziko ditu. Bata Kristo Jesusena eta bestea Andra Mariarena. Otoitzean ari zala, “Kristo ikusi nuen; maitasun beroz hartzen ninduela iruditu zitzaidan eta koroa bat ezartzen zidala, bere Amagatik egin nuena eskertuz. Beste behin, Arratseko otoitzaren ondoren koruan guztiok otoitzean ari ginela, Andra Maria ikusi nuen aintza handi-handiz mantu zuriz jantzita, eta guztiak haren babespean hartzen gintuela zirudiela; etxe honetakoei Jaunak zein aintza handia emango zien ulertu nuen” (*Bizitza* 36, 24).

Gauzak bideratzen doaz. Teresak lortuko dau pobre eta errenta barik San Jose komentua fundatzea:

“Ofizio liturgikoak ospatzen hasita, herria etxe honi lege handia izaten hasi zitzaion. Moja gehiago hartu ziren, eta Jauna gure aurka gehien nabarmendu zirenak mugitzen hasi zen, benetan guri lagundu eta limosna egin ziezaguten; eta horrela, onetsi egi-



ten zuten hain gogor gaitzesten zutena, eta apurka-apurka auzia alde batera utziz zihoazen eta konturatzzen zirela, zioten, Jainkoaren lana zela, hainbeste kontrakoren artean Haren Maies-tateak aurrera joatea nahi izan baitzuen” (*Bizitza* 36, 25).

*“Txaron eta gauza handiak ikusiko dituzu”*

1566. urtean gagoz. Lau urte igaro dira San Jose fundatu zanetik. Teresak berrogeita hamaika urte ditu. Eta Aita Alonso Maldonado frantziskotarraren bisita izango dau Teresak San Jose komentuan bertan. Mexiko lurraldetatik etorren misiolariaren hitzaldiagaz, sutan jarten da Teresaren bihotza. Kontuan hartzekoa Teresarengan sortuko dauan eragina. Hortxe baitago Teresaren beste erabaki eder baten sorburua. Hau da, karmeldar lekaideen artean egingo dauan oinarrizko barrikuntza.

Hau dino Teresak:

“Lau urte igaro ziranean fraide frantziskotar bat, Aita Alonso Maldonado zeritzana, etorri zen ni ikustera; Jainkoaren zerbitzari handia zen, arimen onerako nik nituen desira berak zituen; hark egitez bete zitzakeen desira haiek, horregatik inbidia handia nion. Indiatik etorria zen orain dela gutxi. Han doktrinarik ezaz galtzen ziren milioika eta milioika arimaz hitz egiten hasi zitzaidan, eta sermoi eta hitzaldi bat egin zigun, penitentziarako gogoia berotuz, eta joan zen. Ni hainbeste arima galteaz hain samindurik, azalak ere hartzen ez ninduela lehen behar behar geratu nintzen. Ermita batera joan nintzen malkotan urtua. Dei egiten nion gure Jaunari, bere zerbitzurako arimaren bat irabazteko modua eman ziezadan, deabruak hainbeste ermaten zituenez gero, eta nire otoitzak lor zezan zerbeit, gehiagotarako ez bainintzen ni. Inbidia handia nien Jaunaren maitasunagatik honetan jardun ahal zutenei, milaka heriotza igaro behar bazituzten ere. Eta horrela gertatzen zait, santuen bizitzetan arimak konbertitu zituztela irakurtzen dugunean, horrek askoz ere debozio handiagoa ematen dit eta baita samurtasun eta inbidia handiagoa ere, sufritzen dituzten martititza guztiak baino. Hauxe delako gure Jaunak niri eman didan joera; geure ahalegin eta otoitzez, beraren errukiagatik, Jaunarentzat irabazten dugun arima bat, egin diezazkiokegun zerbitzu guztiak baino gehiago estimatzen duela iruditzen zitzaidan. Bada, ni nahigabe handi honek harturik nengoela, gau batean, otoitzean ari

nintzela, gure Jauna agertu zitzaidan ohi duen bezala, esan zidan: *Itxaron pixka bat, ene alaba, eta gauza handiak ikusiko dituzu*. Hitz hauek nigan hain josiak geraturik, ezin nituen burutik kendu. Eta hartaz asko pentsatu arren, zer izan zitekeen ezin igarri banuen ere, ezta irudikatze biderik ikusten ere, oso kontsolaturik geratu nintzen eta hitz hauek egia bihurtuko zirelako ziurtasun handiaz; baina nola egia bihurtuko ziren, ez zen egundo etorri nire irudimenera. Horrela igaro zen, uste dudanez, beste urte erdi, eta horren ondoren, orain esango dudana gertzatu zen” (*Fundazioak 1, 7*)

Laster izango dau Aita Juan Bautista Rubeoren bisita. Pozarren hartuko dau Ordenako Aita Jeneralak San Jose komentuan daroen bizimodu barria. Eta baimen guztiak emoten deutsoz Teresari lekaimeen komentu barriak fundatzen jarraitzeko. Eta gainera, Teresak eskatzen deutso Jeneralari karmeldar erlijiosoen artean ere monasterio batzuk egitea. Hasieran, bi komentu barri fudatzeko baimena emongo deutso.

Erronka handi honen aurrean, Teresaren erreakzioa bikaina benetan. Esker onezko eta umiltasunez beteriko otoitz hau urteten deutso barru-barrutik: “Oi Jainko handia! Eta nola erakusten duzun zeure ahalmena inurri bati ausardia emanez! Eta, nola ez diren geratuko egin gabe zure aldetik, ene Jauna, maite zaituztenen obra handiak, gure adorerik ezagatik eta herabetasunagatik baizik! Gauzei kemen handiz ekiten ez diegunez gero, beldurrez beterik eta giza zuhurtziaz baizik, horrela, ene Jainkoa, ez dituzu zeure harrigarri eta handitasunik egiten gudan. Nor zu baino ematen zaleago nori emanik balu, edota nor zu baino hartzten zaleago zeure konturako zerbitzuak? Nahi dezazula nik Zuri zerbitzuren bat egin izatea eta ez dezadala konturik eman beharrik izan hainbeste hartu izagatik, amen” (*Fundazioak 2, 7*).

1568. azaroaren 28an, Duruelo herritxoan, hasiko da betetzen karmeldar fraileen artean, Santa Teresaren bihozkada.

Juan Kurutzekoa eta Antonio Heredia izango dira lehenengo karmeldar teresiarrak.

### *Karmeldar teresiarrak*

Santa Teresa bizi zala, mojen artean hamazazpi komentu jasoko dira. Eta fraileen artean hamabost. Guztira, hogeita hamabi. Baina zeintzuk dira Santa Teresaren helburuak komentu barri honeek fundatzean? Bi helburu eder ditu barru-barruan. Bata dimentsio kontenplatiboa eta bestea dimentsio apostolikoa.

Argi dauko Teresak karmeldarren dimentsio kontenplatiboa. Karmeldar Ordenako jatorrizko Erregelaren muina eta arnasa honetan dago: “Gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen eta otoitzean erne, baldin beste egitekoren batean egon behar ez badu”. Teresaren gogoeta: “Etengabe otoitz egin dezagula dio gure hasierako Erregelak. Hau ahal dugun ardurarik handienaz egingo balitz, gauzarik behinena baita, ez dira bete gabe utziko Ordenak agintzen dituen barau eta diziplinak eta isiltasuna ere” (*Perfekzio bidea* 4, 2).

Oso begiko dau Teresak Bibliako esaera sakon hau: “Gizakiekin nuen neure gozamena” (Es 8,31). Ze ederra bere hausnarketa, mistika handi bateri dagokiona otoitz gisan: “Oi ene itxaropen eta ene Aita eta ene Kreatzaile eta ene egiazko Jaun eta Neba! Gizakien seme-alabekin dituzula zeure atseginak diozu; hori gogoratzean biziki pozten da nire arima. Oi zeru-lurretako Jauna!, eta hauek bai direla edozein bekatarik itxaropena ez galtzeko hitzak! Beharbada, norekin atsegin hartu falta zaizu, Jauna, ni bezelako usain txarreko hartxo batengana jotzeko? Bataioan entzun zen ahots hark dio, zeure Semeagan hartzen duzula atsegin. Guztiok izan behar ote dugu berdinak, Jauna? Oi, zein erruki handia, eta zein merezi gabeko mesedea egiten zaiguna! Eta mundu honetakook ahaztu egi ten dugula hau. Oroit zaitez, ene Jainko, haienbesteko ezere-

zaz, eta ikus ezazu gure ahultasuna, guztia ezaguna baitzaizu” (*Gogoetak* 7, 1).

Jaungoiko Aitaren gozamenik osoena, berariazkoena eta atseginena, Kristo Jesusengan dauala, dinosku Teresak otoitz zoragarri honetan. Baita Kristo Jaunaren partaide danez, kristau bakotxa ere, Jaungoikoaren atsegin bihurtzen dala. “Izan ere, ongi begiratu gero, zintzoaren arima ez da besterik paradisu bat baizik, Jaunak bere atsegin guztiak dituena” (BG 1, 1). Eta ez bakarrik kristau bakotxa banan-banan hartuta, kristau taldeak ere Jaunaren gozamen berezi bihurtzen dira. Eta zer esanik ez, karmedar lekeime eta lekaideen zeregin gorena horixe da. Bere emakume hizkera ederrean ze txukun dinoan Teresak berak fundatutako komunitateetan nabaritzen dauana:

“Nik, ene Jauna, hemen dauden zure mirabe hauengan dut uste ona, ikusten dudalako eta jakin dakidalako zu poztea baino besterik ez dutela nahi. Zugatik utzi zuten zeukaten apurra, eta gehiago edukitzea nahi lukete harekin Zu zerbitzatzeko” (*Perfekzio bidea* 3, 7).

Horregaitik, Teresak komentu barri bat fundatzen dauanean, “Jaunaren baztertxo bat” edo “Jauna atseginez dagoen bizilekua” edo “gatzelutxo bat” izan daiteke gura dau. Hobeto esanda, Jaunaren “paradisua”. “Behin otoitzean nintzela esan zidan bezala: etxe hau bere atseginezko paradisua zela” (*Bizitza* 35, 12). Komentu bakotxak “zeru bat” dirudi Jaungoikoaren atsedenerako: “Etxe hau zeru bat da, lur honetan zerurik bada, Jainkoa poztea baino besterik nahi ez duenarentzat” (*Perfekzio bidea* 13, 7). Benetan enkargu goxoak emoten deutseez Teresak bere lekaide eta lekaime: “Guztiek izan behar dute adiskide, guztiek izan behar dute elkar maite, guztiek izan behar diote elkarri estimua, guztiek lagundu behar diote elkarri”, komentu bakoitza Jaunaren atsegin izan dadin (*Perfekzio bidea* 4, 7).

Teresaren otoitz esperientzia ere hortik doa: “Otoiza ez baita, nire iritziz, maite gaituela dakigunarekin bakarrean sarri egonez adiskide-harremanetan jardutea baizik” (*Bizitza* 8, 5). Teresak ez dau nahi moja eta fraide karmeldarrak eremutar izaterik. Kontenplatiboak eta mistikoak bai, baina ez ermitauak, ebanjelizatze misio-garraz txertatutakoak baino. Sonatua bihurtuko da karmeldarren artean, Teresaren esana: “Sinetz iezadazue, Martak eta Mariak elkarrekin ibili behar dutela Jaunari ostatu emateko eta beti beraiekin izateko, eta ez Harrera txarra egin, jaten eman gabe utziz. Nola tratatuko zuen Mariak, beti haren oinetan egonez, bere ahizpak lagundu ez balio? Haren janaria, ahal dugun era guztietara, arimak Berarengana eramatea da, salba daitezen eta beti gorets dezaten” (BG VII. 4, 12).

Teresaren karmeldarrak misio-garra daroe hazurretaraino eztituta. Ebanjelizatze zaletasuna txertatzen saiatuko da Teresa hil arteraino. Hori barik ezin leike ulertu sakon Teresak karmeldar lekaime eta lekaideen artean bultzatutako barrizatzea. Ikusi dogu gorago Aita Alonso Maldonado misiolariari entzun ondoren izandako barneko eragina. Eta ondorengo berbak ez bakarrik dira baliagarriak mojentzat, baita karmeldar prailientzat ere. Hona hemen Teresaren beste testu programatiko zoragarri bat fundatzaile bezala ulertzeko:

“Garai honetan Frantziako gaitzen eta luterotar hauek egin zituzten hondamenen berri izan nuen eta nola zihuan haziz zorrigaiztoko sekta hau. Neke handia eman zidan, eta zerbait egin nezakeelakoan edo zerbait banintzelakoan, negar eta negar egiten nuen Jaunarekin eta arren bai arren eskatzen nion senda zezala hainbesteko gaitza. Neure baitan esan nuen, mila bizi emateko prest nengokeela han galtzen ziren hainbeste arimetako bakar bat oneratzearren. Eta neure burua emakume eta kaskar eta Jaunaren zerbitzuan nik nahi nukeen onura lortzeko ezindua ikusirik, hala ere, nire irrika guztia izan zen, eta orain ere hala da, Jaunak hainbeste etsai eta hain adiskide gutxi di-



tuenez gero, hauek onak izan daitezela. Beraz, nik neure esku zen apur hori, hau da, Ebanjelioko aholkuak ahal nuenik eta hobekien jarraitzea erabaki nuen eta hemen dauden gutxi hauek ere gauza bera egin zezaten lehiatzea, Jainkoaren onberatasun handian uste osoa jarririk, beragatik guztia uztea erabakitzen dutenei ez baitie sekula ere, huts ematen. Eta haiek nik neure ametsetan irudikatzen nituen bezalakoak izanik, beraien bertuteen artean nire hutsek ez zuketzen indarrrik izango, eta zerbaitetan kontenta nezakeen nik Jauna, eta guztiok Elizari eusten dihardutenen laguntzaile, predikari eta irakasleen alde otoitzari emanda, ahal dugun heinean neure Jaun honi laguntzeko gai izango ginen. Izan ere, hainbeste on egin diena hain estu hartua dute, non saltzaile doilor horiek berriro ere gurutzean hil nahi luketela, eta ez diotela burua non etzan ere utzi nai baitirudi (...). Hainbeste arima galtzen ikusteak lehertu beharrez jartzen dit bihotza; gaitzetik izan bedi al bait gutxiena! Baina aurrerantzean beste inor galtzen ez nuke ikusi nahi. Kristogan bat garen ene ahizpak! Lagun iezadazue Jaunari hau eskatzen, horretarako bildu baitzaituzte hemen! Hau da zuen bokazioa, hauek izan behar dute zuen ardurak, hauek zuen desira, hemen zuen negarrak, hauek izan behar dute zuen eskariak (...). Sugarretan dago mundua; esan ohi denez, Kristo berriro auziperatu nahi dute, hainbeste gezur ezartzen baitizkiote; haren Eliza lurrera bota nahi dute; eta oraindik horrelako gauzetan eman behar dugu denbora, beharbada, Jainkoak eskaturikoa emango balie, zeruan arima bat gutxiago izateko? Ez, ene ahizpak, ez da hau Jainkoarekin garrantzi gutxiko arazoak tratatzeko garaia (...). Zuen otoitzak eta desirak eta diziplinak eta barauak esan dudan horretara bideratuak ez badira, pentsa ezazue ez duzuela egiten ez betetzen Jaunak zuok hemen elkartzean izan zuen asmoa” (*Perfekzio bidea* 1, 2. 4. 5; 3. 10).

Santa Teresaren adiskide gogokoena eta Teresaren proiektuak ondoen ulertu ebazanetariko bat, baliteke Aita Jeronimo Gracian izatea. Honela laburbiltzen dau Ama Teresaren misio-garra:

“Espiritu hau ikusi nahi duenak... Ama Teresa Jesusenarekiko harremanetan aurkituko du haren liburuetan sumatzen den bezain otoitz gorena, eta arimen aldeko gar bizia, mila aldiz desira baitzuen gizonezkoek dituzten askatasun, dohain eta ofizioak izatea, arimak Jainkoagana ekartzeko, predikua eginenez, aitortzak entzunez eta jentilak konbertituz, Kristogatik odola isurtzeraino; eta egundo ez zidan besterik azpimarratzen, predikatzeari ez uzteko baizik; eta horretarako, abisu eta aholku ugari ematen zizkidan, eta Jainkoaren aurkako irainak eragozteko eta arimak zerurantz bideratzeko ekintzetan parte harnezala esanez, nekez maitatuko zuela Jesu Kristo gurutziltzatua eta arimengatik hila, infernura nola doazen ikusten duenak, eta espirituzko baretasun pixka bat lortzearen itxirik geldi dagoenak” (*Fundazioak* 1, 13. oin-oharra).

Guzti hau kontuan hartuta, Santa Teresak Karmengo Ordena misio-garraz eta ebanjelizatzeko gar biziak txertatu eban. Haren espiritua eta bide barriak onartzen dabezan lekaide eta lekaime karmeldarrei, hobeto dagokie “Karmeldar teresiarrak” deitzea eta ez “Karmeldar oinutsak”, orain arte lez.

*A. Olea*

## **BIZITZA LIBURUAREN SARRERA**

Teresak idatzi zuen guztia bezala, *Bizitza Liburua*, 1582an gertatu zen haren heriotzaren ondoren argitaratuko zen. Haren obra guztietan ospetsuena da. Aitor-entzule eta arima zuzendarien aginduz idatzia. Bere “konbertsioaz” geroxeago, 1554 inguruan, Teresak, Gizakundeko monasterioan moja zela, grazia espiritualez jantzia ikusi zuen bere burua: liluramenduak, ikuskariak, barne-hizketak. Kezka sortu zioten horiek, ezohikoak eta ugariak zirelako. Beldur zen guztia bere irudipena ez ote zen izango edota deabruaren engainua. Duda-muda horiek uxatu eta barneko ilunean argi egin nahirik, konfiantzazko bi gizonengana jo zuen: Gaspar Daza apaizagana eta Frantzisko Salcedo laikoagana. Haiei bere ariman gertatzen zena aditzera emateko, une hartan, liburu espiritual batez baliatu zen, Bernardino Laredoren *Subida del Monte Sión* liburuaz. Berari gertatzen zitzaionarekin, ustez, bat zetozen edo antz handia zuten pasarteak seinatu zizkien hauei eta, era berean, idatzizko zenbait ohar albait zehatzen azalduak gai horri buruz eskuratu. Honela dio:

“Bada, liburua eman nien, eta liburuarekin batera neure bizitza eta bekatuen kontakizuna ahal nuenik hobekien (aitortzarik ez, ordea, laikoa baitzen, baina aditzera ematen nuen zein kas-karra nintzen); Jainkoaren bi zerbitzariak karitate eta maitasun handiz begiratu zuten zer komeni zitzaidan”. (*Bizitza*, 23, 14).

Haiei kontuzko arazoa iruditu zitzaien; biek buruan sarturik zuten Teresa engainatua zela eta ikuskari eta ustezko mesede haien atzean deabrua zebilela. Gehiago ziurtatzearren,

teologo batengana, Diego Cetina josulagun gazteagana, jo zezala gomendatu zioten. Teresak hala egin zuen eta aita Cetinaren eskariz, idatziz jarri zituen bere otoitz egiteko era eta Jainkoagandik, ustez, hartzen zituen mesedeak:

“Neure aitortza orokorrerako prestatzen hasi nintzen eta gauza txar eta on guztiak idatziz jartzen, neure bizitzaren kontakizuna ahal nuenik eta argien, esan gabe ezertxo ere utzi gabe” (*ibidem*, 23, 15).

Bi haientzat eta aita Cetina josulagunarentzat idatziriko kontu emate hauetatik ez da aztarnarik geratu. Teresak erre egingo zituela uste da. Urte batzuk geroago, 1561.aren amaieran, eskatu zion beste aitor-entzule batek, aita Pedro Ibáñez domingotarrak, bere bizitza espiritualaren kontakizuna egin zezala. Idazketa hau, kapituluetan bereizi gabekoa, 1562ko ekainean burutu zuen, Luisa de la Cerdaren Toledoko jauregian, emakume honen etxean baitzegoen nagusien aginduz. Testua García Toledo domingotarrari eman zitzaion. “Liburu hau 1562. urteko ekainean burutu zen” dio Teresak berak epiloguan. Data hau dela-eta A. Bañezek ohartarazten du, Teresak jartzen duen data hau lehen idazketari dagokiola; gero, bigarren idazketa egin zuenean –eta hau da guganaino iritsi dena–, data horren ondoren gertaturiko hainbat gauza gehitu zituen, esaterako San Jose monasterioaren fundazioa.

Teresak elkarrizketa luze bat izan zuen Frantzisko Soto Salazar geroago Salamancako gotzain izango zenarekin, une hartan Toledon inkisidore zenarekin. A. Graciánek dioenez, Ávilatik igaro zenean (1562an gutxi gorabehera), Teresari bere bizitza zabal idazteko aholkua eman zion, Joan Ávilakori bidaltzeko (*Kont.* 4, 6). Teresak, orduan, gehitu egin zuen idatzia zuena, idazketa zabalagoa eginez eta testua berrogei kapitulutan bereiziz. Hau izango da *Bizitza Liburuaren* behin betiko bertsioa, Joan Ávilakori bidali zitzaiona; 1565ean burutu zuen, ziur asko Ávilako San Joseren komentuan.

cer bu pe q̄mo mal trataba le muy or diuino  
 de dios esto de via apu be char le au q̄mo greo  
 ley u al caso el q̄ter me mu cho por q̄ por aca  
 me pla cer me vino adae el y do li flu el qual  
 y se e char luego en un fiv qui todo este unie  
 co co mo qui en des pier ta de un grã suenõ ay  
 se acordã de de todo lo q̄ã via esto a que flu  
 a m̄ y espau tan do se de si do li endo se de su  
 per di cion vino a comen çar a a bo ffe ceta  
 me tra senõa le de via ay v dai un cho q̄ra  
 muy de vo to de su conceiõ y ex a q̄l dia a cia  
 q̄ a ffe ta en fin de jo del to do de per ta y m̄  
 se ar ta ba de un gra cios adis por a be ta do  
 do luz a ca po de un a m̄ en pun to des de el pri  
 me dia q̄yo le bi un rio ya via estado muy  
 en fer bi ciõ de dios por q̄ a q̄ lla a ffe cion grã  
 de q̄ me te nja un ca en ten di se ma lo a  
 q̄ pu di a ser con muy pa ridad mas tan bien  
 un o ca sion es ya q̄ si no se tu bi era muy de lan  
 te adis v nje a o fen se fuyas noy gra ves como  
 e di do co sa q̄ ven tendie ro era pe ca do un  
 tal no lo y ci era en un ces y pare ce me q̄ le a  
 y v da ba a tener me a m̄ ve e ffe en un q̄e  
 cre o to do lo un bres de ven se mas a m̄ jo de  
 un kes q̄ ben en chi na des a bir tud ya ya lo  
 que a ca pe ten den de ve de ga nar con ello muy  
 por a q̄ si si gni des pues dire tendo por ciend  
 e sta en ca ffe ro de sal va cion un rio muy bie  
 y muy qui todo de a q̄ lla o ca sion pare ce q̄

Berez ez da autobiografia, hitz hau ulertzen dugun eran behintzat, Teresak bere aitor-entzuleentzat idatziriko kontu-emate zabal eta zehatza baizik. Barrukoa da batez ere; gainerako kontakizuna, barruko kontu-ematearen harira datorrena eta haren osagarri dela esan dezakegu. Liburuaren izenburua ez da Teresarena; honek *ene arima, liburu bandia...* erabil-tzen ditu hartaz ari denean; 415. gutunean, 1581eko azaroaren 19an Pedro Castro Nerori idatziriko gutunean, berriz, “*Jainkoaren errukiena izenburua jarri nion*” dio; *liburu bandia, liburu txiki* edo *liburutxo* deitzen zionetik bereizteko dela dirudi; *Perfekzio Bideari* deitzen dio liburu txikia edo liburutxoa. Beraz, liburuaren izenburua frai Luis Leongok jarria da, 1588an, Teresaren obren lehen edizioa egin zuenean. Honela jarri zion hitzez hitz: *La Vida de la Santa Madre Teresa de Jesús y algunas de las mercedes que Dios le hizo, escrita por ella misma por mandato de su confesor, a quien le envía y dirige y dice así...* Inprimatzea burutu ondoren, autografo originala, Felipe II.aren aginduz, Escorialeko Bibliotekan gorde zen. Une hartan orain duen izenburua gehitu zioten: *Vida de la Madre Teresa de Jesús, escrita de su misma mano, con una aprobación del padre M. fr. Domingo Báñez, su confesor y catedrático de prima en Salamanca.*

Edukiari dagokionez nolabait autobiografiatzat har daiteke, bere bizitza kontatzen baitu, baina barnealdeko ispilura begira idatzia eta fantasia eta asmaketari inolako zirrikiturik uzten ez diena. Ohiko autobiografien airerik handiena lehenbiziko be-deratzi kapituluetan du; hauetan ere, argibide autobiogra-fikoek ez dute tarte handirik betetzen. Argibide hauek Jainkoaganako bidean berarengan gertatu ziren aldaketa sako-nak garbi adieraztea dute jomuga.

Kontaeran barrena, plano ezberdinak ageri zaizkigu. Bizi-tzan bidea irekitzeko borroka kontatzen digu lehen kapitulue-tan (1-9). Etxeko ingurumaritik hasita barne-bizitzako krisialdi-ra eta hura gainditzeko borrokara arte. Eten egiten du bere bi-

zitzaren kontaera 10. kapituluaz gero, doktrinazko tratatu txiki bat tartekatzeko. Autobiografiari ekiten dio berriro 23. kapitulu-  
luan. Baina une horretan, barruan, sakon-sakonean kokatzen du bere kontaera: ezohiko gertakariz josia agertzen den bizitza mistikoan (23-31). Teresak berak azpimarratu egiten du kapitulu hauetan datorrena:

“Orain berriro etorri nahi dut neure bizitzara, utzi nuen lekura –egin behar nuen baino etenaldi luzeagoa egin baitut–, etortzekoa dena hobeki uler dadin. Liburu berria da hemendik aurrera, hau da, beste bizitza bat”.

Hemen amaitzen zen lehen idazketa. Geroago, hiru bat urte igaro ondoren, beste bederatzi kapitulu erantsi zizkion. 32. kapitulutik 36.era bitartean Ávilako San Jose monasterioaren fundazioaz ari da. Honetaz hain luze aritzean, agindu zitzaion bere bizitzaren kontakizunetik aldendu egin delakoa du, baina monasterio maite honen historia, ondoren etorriko direnentzat ongi gorde dadila nahi luke. Hala, bere azken-nahi edo testamentu antzekoa agertzen du:

“Uste dut berori haserretu egingo dela monasterio honen kontaera luzea egin dudalako; eta honela eskatzen diot nik berorri Jainkoaren maitasunagatik, hemen idatzirik dagoen gainerakoa apurtzea pentsatzen badu, monasterio honi dagokiona gorde dezala berorrek eta, ni hil ondoren, eman diezaiela hemen egon daitezenei, ondoren etorriko direnei biziki gogoia bizkortuko baitie Jainkoa zerbitzatzeko” (36, 29).

Azken lau kapituluetan –37.etik 40.era artekoetan– bere barruko bizitza kontatzeari berrekiten dio, kontzientziako kezka hau agertuz:

“Ez zait atsegin Jaunak egin dizkidan mesedeetatik esanak daudenak baino gehiago esatea, eta hauek ere gehiegi dira hain pertsona kaskarrari eginak direla sinesteko; baina Jaunaren esana egitearren, Berak agindu baitit, eta zuena, esan egingo ditut gauza batzuk haren aintzarako. Haren Maiestateak na-



hi beza arimaren bati on egitea, hain gauza ezerezari Jaunak honela lagundu nahi izan diola ikusita; zer ez ote dio egingo bene-benetan zerbitzatu duenari? Eta horrela adoretu daitezela guztiak Haren Maiestatea poztan, bizi honetan ere halako seinaleak ematen baititu”.

Teresaren idazteko eraz, eta idaztean duen jarreraz iritzi bat nagusitu dela esan dezakegu. Berak dioenagatik, esana egitearren idazten zuela soilik, estilo egokiz eta fintasunez idaztean gogoia jarri gabe; berez-berez, erraz, hitz egiten zuen bezala idazten zuela... Halako iritzia indartzen Ramon Menéndez Pidalek asko lagundu zuela dirudi. Honek, idazteko inolako bokaziorik gabe, letrarik gabeko emakumetzat agertzen digu, hitz egiten bezala idazten duena eta herri-herriko hiztegia, ia arrunta erabiltzen duena. Naturaltasun, erraztasun hori ez da lilura gabea; horren alde on eta erakargarriari erreparatzen die berak. Teresak berak ere bide ematen dio iritzi horri hainbat pasarte edo esalditan:

“Beste gauza batzuk ere agertzeko asmoa dut, Jaunak aditzera eman ahala eta gogora etorri ahala, bada, zer esango duan ez dakidanez gero, ezin esan dezaket ongi eraturik” (*Perfekzio Bidea*, Hitzaurrea).

Eta liburu berean, baina 19. kapituluan hau dio:

“Hainbeste egun dira aurrekoa idatzi nuela hartara itzultzeko abagunerik izan gabe, non, berriro irakurri ezik, ez bainuke jakingo zer nioen. Astirik ez galtzarren, aurrera joan beharko da irteten dena irteten dela, zehaztasun handirik gabe”.

Iritzi hori ia nagusitu bada ere, eztabaidagarria da eta hainbat dira bestelako iritzia agertu dutenak. Argi dago Teresak ez zuela idazten Gaztelako nekazariak hitz egiten zuten bezala. Aita Graciánen lekukotasuna aintzat hartzekoa da, gutxiak bezala ezagutzen baitzuen gure Santa. Hau dio aita honek Teresak nola idazten zuen adieraziz: “Paperean urraturik ez zuzenketarik egin gabe, notarioek bezain presaz eta arin ida-

tzi ohi zuen”. Argi dago, beraz, ofizioa ongi zekiela, ziurtasun eta erraztasuna zuela idazteko. Umetatik irakurle handia izan zen. Zaldun-liburuak zituen gogokoak. Honela dio zaletasun honetaz:

“Ni haiek irakurtzeko ohitura hartzen hasi nintzen. (...) eta ez zela txarra iruditzen zitzaidan, eguneko eta gaueko orduak eta orduak zentzugabeko zeregin hartan ematea, neure aitaren ezkutuan bazen ere. Hain nengoen murgildua horretan, ez bainuen onik izaten liburu berria eskuetan izan arte”.

Estilo bere-berea zuen. Berezkoaz gainera, irakurketa horietatik sortuko zitzaion idazteko erraztasuna, harrigarria baitzuen, haren biografoek diotenez. Umetan zaldun-liburu atsegin eta bizi bat idatzi omen zuen, baina ez da horren aztarnarik geratu... Haren estiloa esan nahi zuena albait argien eta zehatzen adierazteko egiten zuen ahaleginaren, saiatze etengabearen emaitza da. Guztiek ulertzeko moduko hiztegia erabiltzea erabakitzen du. Aholku bera ematen die moja karmel-darrei ere:

“Erreparatu baita hitz egiteko erari; tolesgabe, lau eta erlijiozkoa izan dadila, eremutar eta bakardadeko jendearen kutsua izan dezatela batez ere, eta ez munduan erabiltzen diren berrikeria eta milikerietako hitzak ahotan hartu; hala esaten zaiela uste dut, beti baitaude gauza berriak. Jo dezatela hobetzat, kasu hauetan, zakar samar hitz egitea milikerietan erortzea baino” (*Komentuak bisitatzeke era*, 42).

Haien libururik irakurri gabe ere, bat dator Luis Vives, Joan Valdés, frai Luis Leongo... Urrezko Mendeko humanista handiekin, bat dator bere garaiko batzuen berrikeria eta milikeriak baztertzean.

Gaur eguneko aditu batzuek uste dute, berak noizbehinka bestelako adierazpenak egin arren, Teresak ederresten zuela bere idazteko era eta ez zuela gogoko inork han eskua sartzerik ez aldatzerik. Hau idazkerari dagokionez zen, noski, ez

doktrinari dagokionez. Ana Jesusenak dio, hark bere obren kopia batzuk hainbat hitz aldatu ikustean, protesta egin zuela: “Jainkoak barka biezaie nire aitor-entzuleei, niri idazteko agindu zidatenaren kopiak eginez, hitz batzuk aldatzen baitituzte; izan ere, honako hau eta hau ez dira nireak. Eta gero haiek ezabatu eta lerro artean aldatu zuten hitza idazten zuen bere eskuz”. Teresak, bada, erraz eta dotore idazten zuen. Liburu espiritual haiek irakurtzea, Bernardino Laredoren *Subida del Monte Sión* edo Frantzisko Osunaren *Tercer abecedario espiritual* irakurtzea, lagungarri izan zitzaion arimaren barrunbeak miatzeko eta egoera mistikoak deskribatzeko, pentsamenduaren eta hiztegiaren ñabardurak menderatzea lortzeraino.

Gaitasun edo trebetasun hau, hala ere, ez zen bat-batekoa izan. Hasieran asko kostatzen zitzaion arimako esperientzia haiek ulertzea, are gehiago ongi eta erraz ulertzeko eran adieraztea. Gaspar Daza eta Frantzisko Salcedo jaunei haiek adierazteko ez zuen bere burua gai ikusten eta, idatzizko zenbait oharrekin batera, liburu espiritual batez baliatu behar izan zuen, han seinalatuz berari gertatzen zitzaizkionak edota beraren barne-esperientziekin antzik handiena zutenak. Esperientzia haiek, ustez, arimaren barne-muinetan gordetzekoak ziren, eta ez idatziz adieraztekoak. Letretara eta hitz arruntetara ezin ekarrikoak. Berberak aitortuko zuen geroago horren zergatia. Jainkoaren esperientzia mistikoaren grazia jaso zuen; baina oraindik ez esperientzia hura ulertzeko, are gutxiago adierazteko eta komunikatzeko grazia, gauza hauek adierazten jakitea ere Jainkoaren graziazat baitu. Honela dio:

“Eta nik ez nekien ezertxo ere esaten neure otoiari buruz; izan ere, nolakoa den ulertzen eta adierazten jakiteko mesedea, orain dela gutxi egin dit Jainkoak” (*Bizitza Liburua*, 23, 11).

Erraztasun hau, pixka bat geroago lortuko zuen Teresak. Jainkoak, grazia espiritualak eman ez batera, haiek nolakoak

ziren ulertzeko eta egoki adierazteko gaitasuna eman ziola esango digu:

“Bada, gauza bat da Jaunak mesedea egitea, beste bat zer mesede eta zer grazia den ulertzea, eta beste bat nolakoa den esaten eta azaltzen jakitea” (*Bizitza Liburua*, 17, 5).

Teresak bere esperientziak aztertzeke eta egoki azaltzeke egiten dituen ahaleginak, bere ariman zer gertatzen zen zehatz-mehatz aditzera eman beharregatik dira, zentsoreen eta Inkisizioaren arreta piztea saihestearren. Gainera, beldurra zuen bere bizipen mistikoen aurrean; horregatik, nahi zuen bere otoitz-era ongi ulertzea; argi egin nahi zuen barne-esperientzia haietan. Gaizki ulertua ez izateko ardura horretatik dator haren hizkuntzaren gardentasuna, eta ahalegin horri zor zaio, hein batez, kritikoeek azpimarratzen duten haren idazkien bikaintasuna.

Goian esan dugunez, haren obra bat ere ez zen argitaratu bera bizi zela. Izan ere, aita Graciánek dio, Teresa hil eta laster, ez zela izan egundo ere haren asmoa ezta berea ere, liburu hauek inprimatu eta jende arruntagana eta edonoren eskuetara hel zitezen, idazkiak gure komentuetan eskuz esku ibil zitezela baizik. Gehienez ere, pertsona serio eta otoitz-gaietan adituak zirenek irakur zitzatela. *Bizitza Liburu* honi dagokionez, Joan Ávilako maisuak irakurri zuen eta ontzat eman 1568an. Urte bereko irailaren 12an gutun luze bat idatzi zion Teresari liburua aztertu zuela esanez; honela hasten du: “Bidali zitzaidan liburua aztertzea onartu nuenean, ez zen izan hainbeste neure burua hura epaitzeko gai ikusten nuelako, Gure Jaunaren laguntzaz, haren doktrinak on egingo zidala uste nuelako baizik”. Ondorengo lerroetan hau esaten dio: “Liburua ez dago askoren eskuetan agertzeko eran, alde batzuetan hitzak leundu beharra eta beste batzuetan azaldu beharra izango bailuke”. 1568ko azaroaren 2an, Luisa de la Cerda andeari eginiko gutunean hau diotso Teresak: “Liburua-

rena ezin hobeki bideraturik dakar berorren gorentasunak, eta horrela, ahazten ditut eragin dizkidan haserrealdiak. Ávila maisuak luze idazten dit, eta bere gogo betekoa da; gauza batzuk gehiago azaltzea eta hitz batzuk beste batzuekin trukitzea komeni dela dio soilik, eta hau erraza dela”.

Urte batzuk geroago, 1575eko uztailean, aita Domingo Bañez teologo ospetsuak iritzi bera agertzen zuen. Valladolideko inkisidoreei zuzenduriko ebazpen batean hau deklaritzen du: bere iritziak, liburuak ez zuela fedearen eta ohitura onen aurkakorik ezer, ezta heresia usainekorik ere; alderantziz, oso goraiagarria zela. Hala ere, amaitzeko hau zioen: hobe zela guztien eskura ez jartzea, gai delikatuak eta bizitza espiritualetan nahiko sarturik ez daudenentzat zailak darabiltzalako.

Aholku horiek gorabehera, *Bizitza Liburuaren* kopia ugari egin ziren; batzuk, jakina, aitor-entzuleentzat, beste batzuk moja oinutsen onerako, eta beste batzuk Gaztelako andere handikien jakin-mina asetzeko. Andere handiki haietako bat Ana Mendoza zen, Eboliko Printzesa tituluz ezagunagoa zena, emakume geldiezin, alditsu eta agindu-gurakoa. Hari egin behar izan zion aurre gure Ama Fundatzaile onak. Hark bere gutiziei Teresak ez ziela amore ematen ikusirik, mendeku hartu zuen eta Madrileko Inkisizioan sartu liburua. Hau 1575ean izan zen. Ordurako Auzitegi hark ezagutzen zuen aita Domingo Bañezen aldeko ebazpena eta ez zion jaramonik egin Tere-saren aurkako salaketari.

Hala ere inor ez zen ausartu liburua handik berreskuratzen eta han egon zen luzaroan. 1586an, *Bizitza Liburuaren* kopia bat Maria Austriakoren eskuetara heldu zen; Felipe II.aren arreba eta Maximiliano II.a enperadorearen alarguna zen hau. Enperatrizari egundoko zirrara eragin zion liburuaren irakurketak eta harriturik zen hura inprimatu gabe egoteaz. Madrileko moja karmeldar oinutsen komentuan priore zen Ana Jesusenari eskatu zion saia zedila hain balio handiko liburua argi-

taratzen. 1586ko irailaren 1ean, fraide karmeldar oinutsen Kontseiluak onarpena eman zion argitaratzeko proiektuari. Ana Jesusenak Gaspar Quiroga Inkisidore Nagusiagana jo zuen orduan eta honek ez zuen inolako eragozpenik jarri Ofizio Santuan gordetzen zen eskuizkribua hari emateko. Ana Jesusenak frai Luis Leongoren esku utzi zuen eta honek hartu zuen bere gain, Errege Kontseiluaren aginduz, inprimatzeko ardura. Horrela argitaratu zen lehen aldiz, 1588an, Salamancan Santa Teresaren *Bizitza Liburua*, *Barne Gaztelua* eta *Perfekzio Bidea* liburuekin batera.

*Luis Baraiazarra Txertudi*

**SANTA TERESAREN *BIZITZA LIBURUAREN*  
TESTU AUKERATU BATZUK**

1) **Nire Familia** (1. kap.)

1. Guraso bertutetsuak eta Jainkoari lotsa ziotenak izatea nahiko izango nuen, ni neu hain kaskarra izan ez banintz, Jaunak egiten zizkidan mesedeekin, ona izateko. Liburu onak irakurtzen zalea zen nire aita eta halakoak zituen erromantzez bere seme-alabek irakur zitzen. Honek, nire amak guri errezarazteko eta Andre Mariaren eta santu batzuen debozioa guggan ezartzeko zuen arretaz, sei edo zazpi urteko nintzela, nik uste, itzartzera eraman ninduen. Neure gurasoengan bertutearen aldekoa baino besterik ez ikusteak laguntzen zidan horretan. Bertute ugari zituzten.

Nire aita karitate handikoa zen behartsuekin eta errukitsua gaixoeekin, are zerbitzariekin ere; hainbestearino, non ez baitzen inola ere jarriko esklaboak izatera, erruki handia zielako, eta behin beraren anaia baten esklabo etxean zenean, seme-alabak bezala tratatzen zuen. Libre ez zenez gero, errukiaren errukiz ezin zuela jasan zioen. Oso zen egiazalea. Inork ez zuen ikusi sekula ez birao egiten ez inorengatik gaizki esaten. Oso-osoz zintzoa zen.

2. Nire amak ere bertute ugari zituen eta gaixotasun handien artean igaro zuen bizitza. Onestasan oso handia. Edertasun handikoa izan arren, sekula ere ez zuen erakutsi horri garrantzirik ematen zionik, hogeita hamahiru urterekin hil bazen



ere, haren janzkera adin handiko pertsona batena baitzen. Oso bare-atsegina eta adimen argikoa. Bera bizi zen garaian neke handiak igaro zituzten. Benetan kristauki hil zen.

3. Hiru ahizpa eta bederatzi neba ginen. Jainkoari eskerrak, guztiak ziren gurasoen antzekoak bertutetsu izatean, ni neu izan ezik, neure aitaren kutuna banintzen ere. Eta Jainkoa iraintzen hasi aurretik, nolabaiteko arrazoirik bazela dirudi; izan ere, pena dut Jaunak eman zizkidan joera onez eta haie-taz zein gaizki baliatu naizen gogoratzen dudanean.

4. Bada, nire nebek ez zidaten inolako eragozpenik jar-tzen Jainkoa zerbitzatzeko. Bat nuen ia neure adinekoa, elkarrekin Santuen bizitzak irakurtzeko biltzen ginen; hau zen nik maiteen nuena, nahiz eta nik guztiei maitasun han-dia izan eta haiek ere bai niri. Santuek Jainkoagatik igaro-tzen zituzten martiritzak ikusiz, Jainkoaz gozatzeraz joatea oso merke erosten zutela iruditzen zitzaidan eta nik neuk ere desira bizia nuen hala hiltzeko, baina ez Jainkoa maite nuela neritzolako, zeruan ondasunak handiak zirela irakur-tzen nuenenez gero, haie-taz laster batean gozatzearen bai-zik, eta neba honekin elkartzen nintzen horretarako zer bide zegoen tratatzeko. Mairuen lurraldera joatea erabaki genuen, Jainkoaren maitasunagatik eskatuz, han burua moztu dieza-gutela. Eta uste dut nik, Jaunak gogoa berotzen zigula hain gazterik, handik edo hemendik bideren bat aurkitzen bage-nuen, baina gurasoak izatea zela iruditzen zitzaigun eragoz-penik handiena.

Harri eta zur geratzen ginen irakurtzen genuen hartan oi-nazea eta aintza beti-betiko zela esaten baitzen. Honetaz luza-ro hitz egitea gertatzen zitzaigun eta gogoko genuen behin eta berriro esatea: betiko, betiko, betiko! Hau luzaro esatean Jaunak nahi izan zuen egiaren bidea niri haurtzaro honetatik josirik geratzea.

5. Jainkoagatik hilko ninduten lekura joatea ezinezkoa zela ikusi nuenez gero, eremutar izatea erabaki genuen; eta etxean zen baratze batean saiatzen ginen, ahal genuen eran, ermitak egiten harritxoak ezarriz, gero berriro erortzen zirenak, eta horrela ez genuen aurkitzen ezertan geure asmoa burutzeko biderik; orain debozioa ematen dit, Jainkoak hain bizkor ematen zidala nik neure erruz galdu nuena, ikusteak.

6. Limosna egiten nuen ahal nuen eran, eta gutxi ahal nuen. Bakarrik egotea bilatzen nuen neure debozizko otoi-tzak egiteko, eta ugari ziren, batez ere arrosarioa, nire amak hain maite zuena, eta guri maitarazten ziguna. Oso gogoko nuen, beste neska txiki batzuekin jolasten nuenean, monasterioak egitea, mojak bagina bezala, eta nik moja izateko gogoa nuela uste dut, baina ez esan ditudan gauzak adina.

7. Gogoan dut nire ama hil zenean hamabi urteko geratu nintzela ni, gutxi gorabehera. Galdu nuenez ohartzeko hasi nintzenean, nahigabez Andre Mariaren irudi baten aurrera joan nintzen eta nire ama izan zedila erregutu nion, malkotan urturik. Uste dut, era xumean egin bazen ere, baliagarri izan zaidala; izan ere, igarri-igarrian aurkitu dut Birjina goren hau beraren laguntza eske jo dudan guztian eta azkenean beragana itzuli nau.

Nekagarri zait orain ikusi eta pentsatzea, zerk eragin zuen ni hasitako asmo onetan sendo ez egotea.

## 2) **Nire bokazioa** (3. 4. kap.)

3. Garai honetan, ni neure erremedioaren axolarik gabe ez nengoen baina, Jauna zebilen gogotsuago niretzat egokiena zen bizierarako prestatzen. Gaixotasun larri bat eman zidan, eta neure aitaren itzuli behar izan nuen. Sendatu nintzeneko, neure ahizparen –auzo batean bizi zenaren–etxera eramanez ninduten hura ikustera, maite-maite baininduen eta, haren borondatez, ez nintzatekeen ni irtengo haren ondotik; eta haren senarrak ere

oso maite ninduen, guztiz atsegin agertzen zen behintzat nirekin, hauxe ere Jaunari zor diot, alde guztietan izan baitut maitasuna beti, eta guztia ordaintzen nion neu naizen bezala.

4. Harako bidean nire aitaren anaia bat bizi zen, oso zentzuduna eta bertute handiak zituena, alarguna, hau ere Jaunak beretzat prestatzen ziharduena; izan ere, bere adin handian zeukan guztia utzi eta fraide sartu zen eta halako amaiera izan zuen, non Jaunarekin gozaten egongo dela uste baitut. Egun batzuetan ni berekin izatea nahi izan zuen. Haren jarduera erromantzezko liburu onak irakurtzea zen, eta haren hizketako gaia –gehienean– Jainkoaz eta munduko banitateaz zen. Irakurtzeko eskatzen zidan eta, ni haien zalea izan ez arren, banintzelakoa erakusten nuen. Izan ere, besteei poz emate horretan ezin gehiagokoa nintzen, neure buruari atsekabe eman arren; hainbestera, non besteengan bertutea zena nigan egundoko falta izan baita, askotan zuhurtasunik gabe jokatzen nuelako.

Oi ene Jainko! Zein bidetatik ari zen Jauna ni prestatzen berak nahi ninduen bizierarako, nik nahi izan gabe ere, neure buruari gogor egitera jarri baininduen! Izan bedi bedeinkatua betiko, amen.

5. Han igarotako egunak gutxi izan baziren ere, Jainkoaren hitzak, irakurriak nahiz entzunak, nire bihotzean egiten zuen indarrarekin, eta lagunarte onarekin, haurra nintzeneko egia ulertuz joan nintzen: ezereza zela guztia, eta munduaren banitate, eta nola guztia amaitzen zen laster batean, eta beldur izaten hasi nintzen, hil banintz, nola joango nintzen infernura. Eta nire gogoja moja izatera makurtu ezinik bazebilen ere, bizierarik hoberen eta ziurrena zela ikusi nuen. Eta honela apurka-apurka biziera hura hartzeko neure buruari indar egitea erabaki nuen.

6. Borroka honetan eman nituen hiru hilabete, neure buruari indar eginez arrazoi honekin: moja izateko nekeak eta nahigabeak ezin zitezkeela garbitokikoak baino handiagoak

izan, eta nik ongi merezia nuela infernua; ez zela asko bizi nintzen bitartean garbitokian bezala egotea, eta gero zuzen-zuzen zerura joango nintzela, hauxe baitzen nire desira.

Eta biziera hartzeko mugimendu honetan, maitasunak baino zerbitzari-beldurrak gehiago eragiten zidalakoan nago. Deabruak jartzen zidan buruan, bizitza guri-guria neramanez gero, erlijioke nekeak ezingo nituela jasan. Honen aurka Kristok igaro zituen nekeekin babesten nuen neure burua, ez baitzen horrenbestekoa nik Beragatik halako batzuk eramatea; Berak lagunduko zidala eramaten –pentsatuko nuen–, baina xehetasun honekin ez naiz gogoratzen. Tentaldirik aski izan nuen egun hauetan.

7. Sukarrekin batera, zorabio larriek jo ninduten, betiere osasun urrikoa bainintzen. Jadanik liburu onetara zaleturik geratzeak eman zidan bizia. San Jeronimoren Gutunak irakurtzen nituen; haiek hainbesteraino berotu zidaten gogoia, non neure aitari esatea erabaki bainuen; hori ia abitua hartzea bezala zen, izan ere, neure ohorearen hain estimu handia nuenez, ez nukeen inola ere atzera egingo behin esanez gero. Hain maite ninduen, non ezin bainuen lortu hura horretara jartzea, eta ez ziren aski izan nik hari hitz egiteko eskatuta joan zitzaizkion pertsonen erreguak ere. Gehienez ere lortu zena, haren egunen ondoren nahi nuena egingo nuela. Ni neure buruaren eta neure ahuleziaren beldur nintzen ez ote nuen atzera egingo, eta horrela ez zitzaidala komeni hori uste nuen, eta beste bide batetik ahalegindu nintzen, orain esango dudanez.

(4. kap.)

1. Egunotan erabaki hauetan ari nintzela, burua berotu nion neure neba bati fraide sar zedin, munduko banitatea aipatuz. Eta biok egun batean oso goiz nire adiskide hura, nik maitasun bizia niona, zegoen monasteriora joatea hitzartu genuen, izan ere, azken erabaki honetan ni Jainkoa hobekien zerbitzatzen

dela uste nuen edota nire aitak nahi zezan edozeinetara joatekotan nintzen; honezkero arimaren erremedioa zen gehien kontuan nuena, atsedena ez bainuen ezertarako aintzat hartzen.

Oroitzen naiz, nire iritzian eta egi-egiaz, neure aitaren etxetik irten nintzenean baino sentimendu biziagorik ez dela izango hiltzen naizenean. Izan ere, hezur bakoitza bere aldetik bereizten zitzaidala zirudien, eta aitaren eta ahaideen maitasuna ken dezakeen Jainkoaren maitasunik ez zenez gero, guztia zen neure buruari hain indar handia eginez, non Jaunak lagundu ez balit, nire gogoetak ez baitziren nahiko izango aurrera egiteko. Hemen adorea eman zidan neure buruaren aurka, eta horrela gauzatu nuen asmoa.

2. Abitua hartu ondoren, Jaunak adierazi zidan nola laguntzen dien bera zerbitzatzeko beren buruei indar egiten dietenei; nitaz ez zuen inork halakorik uste, hartarako gogo handi handia nuela baizik. Handik ordubetera hain poz handia hartu nuen biziera hura nuelako, non ez baitzait sekula falta izan gaur arte, eta Jainkoak nire arimak zuen lehortasuna samurtasun handi-handiaz trukatu zuen. Erlijioko gauza guztiek gozamen ematen zidaten, eta egia da, batzuetan erratza pasatzen jarduten nuela lehenago neure atsegin eta apainketari ematen nion orduetan, eta hartatik aske nengoela gogoratuz, pozak hartzen ninduen berriro, harri eta zur geratzeraino, ezin bainuen ulertu nondik zetorren.

Honetaz gogoratzen naizenean, ez da aurrean jar dakidan gauzarik, astunena bada ere, zalantzarik gabe ekingo ez diezaiodanik. Izan ere, neuk ikusita dakit, gauza askotan, hasieran neure buruari laguntzen badiot hura egiteko erabakia hartzen, Jainkoagatik soilik bada, egiten hasi aurretik nahi du –gehiago merezi dezagun– arimak izualdi hura izatea, eta zenbat eta handiagoa izan, helburua lortuz gero, sari handiago eta gozoagoa izango da gero. Bizitza honetan bertan ere ordaintzen du Jau-

nak, hartaz gozaten duenak soilik ulertzen duen bidetik. Hau neuk ikusita dakit, esan dudanez, hainbat gauza aski larritan.

### 3) **Krisialdia** (6 eta 7. kap.)

9. Nork usteko zuen hain laster eroriko nintzenik, Jainkoagandik hainbeste dohain jaso ondoren, Jauna bertuteak niri ematen hasi ondoren, beraren zerbitzurako iratzaritzen ninduten bertuteak, neure burua ia hilik eta kondenatua izateko arrisku handian ikusi ondoren, Hark ni gorputz eta arima berpiztu ondoren, ikusi nindutenak bizirik ikusita harri eta zur gelditzeraino! Zer da hau, ene Jauna! Hain bizi-modu arriskutsuan bizi behar ote dugu? Hau idazten ari naitzela, uste dut zure laguntzaz eta zure errukiagatik esan nezakeela San Paulok zioena, egokitasun harekin ez bada ere, *honezkerok ez naiz ni bizi, Zu, ene Kreatzailea, bizi zara nigan*; izan ere, orain dela hainbat urte, nik dakidanez, zeure eskutik nauzu eta zure borondatearen aurka, gauzarik txikienean ere, ezer ez egiteko desira eta erabakiekin ikusten dut neure burua eta nolabait esperientziaz probatua urte hauetan gauza askotan, oharkabean Berorren Maiestateari irain ugari egingo nizkion arren. Eta iruditzen zait gainera, zure maitasunagatik egiteko aurrean izan dudak gauzarik ez dela izan erabaki sendoz egitera jarri ez naizenik, eta haie-tako batzuetan Zuk lagundu didazu helburua lortzen, eta ez dut nahi mundurik ezta harenik ezer, eta iruditzen zait ez didala pozik ematen Zugandik at den ezerk, eta gainerakoari gurutze astuna deritzot.

#### (7. kap.)

1. Honela hasi nintzen, bada, denbora-pasaz denbora-pasa, huskeriaz huskeria, arriskurik arrisku, erorbide handietan murgiltzen eta arima hain galbide handitan sartzen, non lotsa bainintzen otoitzak berea duen hain adiskidetasun berezian Jainkoagana berriro iristen. Eta horretarako lagun izan nuen,

bekatuak handituz joatean, bertutezko gauzetarako poz eta atseginik ez izatea. Argi ikusten nuen nik, ene Jauna, hori falta zitzaidala Zu falta zintzaizkidalako.

Hau izan zen, apaltasunaren itxurapean, deabruak egin ziezadakeen engainurik izugarriena; horrela, neure burua hain galdua ikusirik, beldur nintzen otoitzari ekiten; eta iruditzen zitzaidan hobe nuela beste askoren antzera ibiltzea, bada, kaskarra izatean kaskarrenetakoa nintzen, eta hobe nuela beharturik nengoena errezatzea eta ahoz errezatzea, eta ez gogoetazko otoitzari ekitea eta Jainkoarekin halako harremanetan jardutea deabruekin egotea merezi zuenak, eta engainatu egiten nuela jendea, kanpotik itxura onak agertzen baintuen.

Eta honela ez zaio errurik bota behar bizi nintzen etxeari, neure trebetasunez iritzi onean izan nazaten saiatzen bainintzen, baina ez horretaz konturaturik kristau-itxurak eginez; bada, itxurakeria eta harrokeria delako honetan, Jainkoari eskerak, ez naiz gogoratzen, nik dakidala, sekula irain egin diodanik; lehen eragina etortzean, hain pena handia sentitzen nuen, non deabrua galtzaile irteten baitzen eta ni irabazle, eta, beraz, honetan gutxi tentatu izan nau.

19. Oi ene arimaren Jauna! Nola goretsi nik urte hauetan egin dizkidazun mesedeak! Eta, nik gehien iraintzen zintudan garaian, nola prestatzen ninduzun berehalako batean damu handiarekin zure dohain eta mesedeak jasotzeko! Egia esan, ene Errege, niretzat izan daitekeen zigorrik finen eta mingarriena hautatzen zenuen, niretzat zein zen mingarriena ongi zekienak bezala. Opari handiekin zigortzen zenituen nire delituak.

Eta ez dut uste zentzugabekeriarik diodanik, on litzatekeen arren zentzugabe egotea orain berriro oroimenera ekarriz neure esker gaizto eta txarkeria.



Nire izaerarentzat mingarriago gertatzen zen mesedeak jasotzea, erru larrietan erori izan nintzenez, zigorrak jasotzea baino; halako erru batek uste dut, egiaz, gehiago desegiten, nahasten eta nekatzen ninduela gaixotasun askok beste probekin batera baino. Izan ere, azkeneko hau merezi nuela ikusten nuen eta hala neure bekatuengatik zertxobait ordaintzen nuela iruditzen zitzaidan, hori guztiori ere gutxi izan arren, bekatuak ugariak zirelako; baina neure burua berriro mesedeak jasotzen ikustean, lehenago jasotakoak hain gaizki ordaindu ondoren, hori sufrimendu mota ikaragarria zen niretzat, eta uste dut Jainkoaren nolabaiteko ezagutza eta maitasuna duten guztientzat ere hala izango dela, eta hau bertutezko izaeragatik atera dezakegu. Hemen ziren nire negarrak eta nire haserrea zer sentitzen nuen jabeturik, berriro erortzeko bezperan neure burua ikusirik, nire erabakiak eta nahiak orduan –une hartan, diot– sendoak baziren ere.

20. Gaitz handia da arima bat hainbeste arriskuren artean bakarrik egotea. Hau guztiau norekin erabili izanez gero, uste dut, berriro ez erortzen lagunduko lidakeela, besterik ezean lotsagatik, Jainkoarenik ez bainuen.

Horregatik, aholku hau emango nieke nik otoitza dutenei, batez ere hasi berri direnean: saia daitezela horretan diharduten beste pertsona batzuekin adiskidetasuna eta harremana izaten. Oso garrantzitsua da, otoitzen bidez elkarri laguntzea baino besterik ez bada ere, areago askoz ere irabazi gehiago direnean! Eta (solosal dietatik eta giza afektuetatik, hain onak izan ez arren, haiekin atsedean hartzeko eta elkarri atsegin hutsalak kontatuz gehiago gozatzeko adiskideak bilatzen direnez) ez dakit nik zergatik ez zaion utzi behar Jainkoa benetan maitatzen eta haren zerbitzuan hasten denari, pertsona batzuekin bere atsegin eta nekeak tratatzen, otoitzean dihardutenek denetik izaten baitute. Izan ere, benetakoa baldin bada Haren Maiestarekin izan nahi duen adiskidetasuna, ez dago zertan izan harropuzkeriaren beldurrik;

#### 4) **Nire konbertsioa** (9. kap.)

1. Nire arima nekatua zen ordu ezkeru eta, nahi zuen arren, ez zioten uzten atsedean hartzen berak zituen ohitura kaskarrek. Behin gertatu zitzaidan, otoiztegian sartzerakoan, etxean egin ohi zen jai baterako bilatu eta han gordetzeko ekarri zuten irudi bat ikustea. Kristorena zen, zauriz betea eta hain deboziozkoa, non, hari begiratu, guztiz nahasi bainintzen hala ikusirik, ongi agertzen zuelako gugatik igaro zuena. Hainbestearino sentitu nuen zauri haiei eman nien esker gaiztoa, non bihotza erdi bi egiten zitzaidala baitzirudien, eta haren aurrean ahuspeztu nintzen malkotan urtua, behin-behingo senda nintzala eskatuz, gehiago iraindu ez nezan.

2. Nik debozio gartsua nion Magdalena aintzatuari eta sarri-sarri izaten nuen gogoan haren konbertsioa, batez ere Jauna hartzen nuenean; izan ere, Jauna han nire barruan zegoela ziur nekienez gero, haren oinetan jartzen nintzen, eta nire malkoak ez zirela gutxiestekoak iruditzen zitzaidan. Ez nekien zer esaten nuen; aski egiten zuen bere aldetik niri malkoak isurtzen uzten zidanak, sentimendu hura hain laster ahazten bainuen. Eta Santa aintzatsu hari gomendatzen nintzaion barkamena lor ziezadan.

3. Baina azkenaldi honetan, aipatzen ari naizen irudi honen kasuan, uste dut probetxu handiagoa egin zidala, ordu ezkeru neure buruaz mesfidantzaz beterik, Jainkoagan jartzen bainuen uste osoa. Iruditzen zait esan niola ez nintzela jaikiko handik, eskatzen niona egin arte. Uste ziurra dut on egin zidala, harrezkeru asko hobetuz nindoalako.

7. San Agustinen aitorkizunak eman zizkidaten garai honetan; badirudi Jaunak agindu zuela, nik ez bainituen bilatu ezta egundo ikusi ere. Ni San Agustinen oso zalea naiz, moja sartu baino lehen bizi izan nintzen monasterioa haren Ordenakoa zelako eta baita bekataria izan zelako ere; izan ere, bekatari izan ondoren Jaunak berriro Beragana ekarri zituen

santuengan nik poz handia aurkitzen nuen eta iruditzen zitzaidan haiengan laguntza aurkituko nuela eta Jaunak haiei barkatu zenez, niri ere barka ziezadakeela; gauza batek atsekabetzen ninduen soilik, esan dudanez: haiei behin bakarrik dei egin ziela Jaunak eta ez zirela berriro erortzen; niri, ordea, hainbeste bider dei egiten zidan, horrek nekatzten ninduen. Hala eta guztiz ere, Hark zidan maitasuna go-goan izanik, berriro berotzen zitzaidan bihotza eta sekula ere ez nuen galdu konfiantza haren errukian. Neure buruagan, berriz, askotan.

Oi, zer sufritzen duen arimak, ene Jainko, bere buruaren jabe izatea galtzeagatik, eta zenbat oinaze jasaten dituen! Harri eta zur nago orain nola bizi nintekeen hainbeste oinazeren artean. Goretsia izan bedi Jainkoa, hain heriotza hilgarritik irte-teko bizia eman zidalako.

9. Uste dut nire arimak indar handiak irabazi zituela jainkozko Maiestateagandik, eta nire intziriak entzun zituela eta pena eman ziotela hainbeste malkok. Haziz joan zitzaidan Berarekin luzarago egoteko gogoia eta okasioetatik begiak kentzen hasi nintzen, izan ere, haietatik aldendurik, Haren Maiestatea maitatzera itzultzen nintzen; ongi nekien nik, neure iritziz, maite nuela, baina ez nekien jakin behar nuen bezala Jainkoa benetan maite izatea zertan den.

### 5) **Zer da gogoetazko otoitza?** (8. kap.)

5. Santu asko eta onak izan dira otoitz-jardueran ari denak daukan ondasunaz idatzi dutenak, gogoetazko otoitzaz diot: aintza Jainkoari horregatik! Eta hau honela ez bada, apala ez naizen arren, ez honetaz hitz egitera ausartzeko bezain harroa ere.

Nik neuk ikusita dakidana esan dezaket, eta hauxe da: otoitzari ekin diezaionak, egintza okerregatik ez dezala alde

batera utz, berriro erremedioa aurkitzeko bidea baita, eta hura gabe askoz zailago gertatzen baita. Eta ez diezaiola deabruak eragin, niri bezala, apaltasunagatik alde batera uztera; sinets dezala ezin dutela huts egin haren hitzek, egiaz damutzen baldin bagara eta Hura ez iraintzeko erabakia hartzen baldin bada, lehengo adiskidetasunera itzultzen dela eta lehenago egin ohi zituen mesedeak egitera eta batzuetan handiagoak egitera ere bai, damuak hala merezi izanez gero.

Eta oraindik otoitzari ekin ez dionari, eskatzen diot nik Jau-naren maitasunagatik, ez dakiola falta izan ondasun handi hori. Hemen ez da zertan beldurturik, hemen nahi izan behar da; izan ere, aurrera ez doanean eta Jainkoak haiei eman ohi dizkien atsegin eta dohainak merezi dituen perfekziorantz jo-tzen ez duenean, gutxi irabazi arren, zerurako bidea ulertuz joango da; eta horretan irauten badu, Jainkoaren errukian dut nik itxaropena, adiskidetzat hartu duenik *ez baitu ordaindu gabe utzi*; gogoetazko otoitza ez baita, nire iritziz, maite gaituela dakigunarekin bakarrean sarri egonez adiskide-harremantetan jardutea baizik. Eta zuk oraindik maite ez baduzu (izan ere, egiazko maitasuna izan eta adiskidetasunak iraungo badu, horretarako baldintzak aurkitu behar dira: Jaunarenak jakina da ez duela huts egingo; gurea akastuna, sentsuala, esker gaiztokoa da), ezin duzu zeurez lortu hala maitatzea, ez baita zure izaerakoa; baina haren adiskide izatea hainbeste doaki-zula eta zein maite zaituen ikusirik, onik eramaten duzu zue-gandik hain desberdina denarekin luzaro egotea.

6. Oi ene Jainkoaren ontasun azkengabea, honela ikusten zaitudala eta neure burua honela ikusten dudala iruditzen baitzait! Oi aingeruen gozamina, nik bai nahi nukeela zu maitatzen guztiz urtzea, hau ikusten dudanean! Bai ziurra dela ongi eramaten duzula Zu berarekin egotea onartzen duena! Oi zein adiskide ona zaren, ene Jauna! Nola atsegin ematen diozun eta jasaten, eta itxaroten diozun zeure izaerara bihurtu arte eta bitartean nola eramaten duzun haren izaera! Kontuan

hartzan dituzu, ene Jauna, maite zaituen uneak, eta damuzko unetxo batekin ahaztu egiten duzu iraindu zaituenekoa!

Hau argi ikusi dut neugan, eta ez dut ikusten, ene Egilea, zergatik mundu guztia ez den heltzen Zugana adiskidetasun berezi honen bidez: gaiztoak, zure izaerakoak ez direnak, on bihur ditzazun, besterik ezean Zu egunero bi orduz beraiekin izan zaitezela ontzat ematearekin, beraiek Zurekin egon ez arren, nik egiten nuenez, arduren mila itzulbirekin eta munduko pentsamenduekin baizik. Hain adiskide onarekin egoteko egiten duten ahalegin honengatik, hasi berritan, eta batzuetan geroago ere bai, gehiago ezin dutela izaten duzu kontuan; deabruak behartu egiten dituzu, Jauna, haiei eraso ez diezaieten eta haien aurka egunean baino egunean indar gutxiago izan dezaten, eta haien eskuetan jartzen dituzu mendera ditzaten. Bai, Zuk ez duzu hiltzen –bizi guztien bizia!– Zugan konfiantza dutenetako eta adiskidetzat nahi zaituztenetako inor; baizik eta gorputzeko biziari eusten diozu osasun hobearekin eta arimari ematen diozu bizia.

11. Nire arimak garai hauetan zuen gatibutasuna irudikatzen jakin nahi nuke, ongi bainekien gatibu nengoela, eta ezin nuen ulertu zertan eta ezin nuen sinetsi guztiz aitor-entzuleek hain larrizat jotzen ez zutena nik neure ariman sumatzen nuen bezain txarra izan zitekeenik.

(12)

Lagun ziezadala eskatzen nion Jaunari; baina –orain uste dudanez– Haren Maiestatean konfiantza osoa jartzea eta neure buruagan konfiantza guztia galtzea falta zitzaidan. Erremedio bila nenbilen; eginahalak egiten nituen; baina, antza, ez nuen ulertzen gutxi aprobeztatzen duela, geure buruagan dugun konfiantza guztiz kendurik, Jainkoagan jartzen ez baldin badugu.

Bizi nahi nuen, ongi bainekien ez nintzela bizi, baizik eta heriotza-itzalarekin borrokan ari nintzela, eta ez zen inor niri bizia eman ziezadanik, eta nik ezin nuen hartu; eta bizia eman

ziezadakeenak arrazoi zuen niri ez laguntzeko, behin eta berriro Beragana ekarri baininduen eta nik behin eta berriro utzi.

#### 6) **Nire otoitz era** (9. kap.)

4. Otoitz era hau nerabilen: adimenaz gogoeta egitea ezinezkoa zitzaidanez gero, ahaleginak egiten nituen Kristo neure barruan irudikatzen, eta ondoen egon ohi nintzen –nire iritiz– bakarren ikusten nuen tokietan. Bakar eta nahigabetua egonik, premian den pertsona batek bezala, ni bere ondoan hartuko ninduela neritzon. Honelako gauzatxoak asko nituen.

Oso ongi nengoen batez ere Baratzeko otoitzean. Han zen nik lagun egitea. Han emandako izerdian eta izandako nahigabearen pentsatzen nuen ahal izanez gero. Izerdi nekagarri hura garbitzea zen nire nahia. Alabaina gogoan dut ez nintzela sekula ausartu hori egiten, neure bekatu hain astunak burura etortzen zitzaizkidalako. Han egoten nintzen Berarekin neure pentsamenduek bakean uzten ninduten artean, asko baitziren oinazetzen nindutenak. Urte askoan, gaurik gehienetan loak hartu baino lehen, lo egiteko Jainkoaren eskuetan jartzen nintzenean, Baratzeko otoitzaren gertakari honetan pentsatu ohi nuen pixka bat, baita moja izan baino lehenago ere, barkamen ugari irabazten zirela esan baitzidaten. Eta uste dut bide honetatik asko ere asko irabazi zuela nire arimak, bada, otoitz egiten hasi nintzen zer zen ere jakin gabe, eta behin hartara ezkeroko eguneroko ohiturak eragiten zidan hau ez uztera, lotara orduko aitaren egitea ez uztera bezala.

5. Pentsamenduek ematen zidaten oinazeaz nioenera itzuliz, hau du adimenaren gogoetarik gabe jokatzeko modu honetik: arimak oso irabazia egon behar duela edota galdua, hau da, gogoeta galdua. Aprobetxatze kontuan asko aprobetxatzen du, maitasunean delako. Baina honaino heltzea berari asko kostata da, Jaunak laster batean gelditasunezko otoitzera

eraman nahi dituen pertsonen kasuan izan ezik, eta nik eza-gutzen ditut halako batzuk. Hemendik doazenentzat ona da liburu bat beren baitan berehala biltzeko. Niri on egiten zidan zelaia edo ura, loreak ikusteak ere. Gauza hauetan Kreatzai-learn oroipena aurkitzen nuen nik, hau da, iratzarri eta neure baitan biltzen ninduen eta liburutzat balio zidan; eta neure esker gaizto eta bekatuak zekarzkidan gogora. Zeruko gauzetan eta goi-goiko gauzetan, nire adimena hain traketsa zen, non ez bainintzen sekula gai izan haiek irudikatzeko, harik eta Jaunak beste era batez burura ekarri zizkidan arte.

6. Adimenarekin gauzak irudikatzeko hain moldakaitza nintzen, non, aurrean ikusi ezik, irudimenaz ezin bainintzen baliatu, beren baitan biltzeko beste pertsona batzuek egin ohi dutenez. Nik Kristo gizon bezala pentsa nezakeen soilik. Baina sekula ere ezin irudikatu izan nuen neure baitan, haren edertasuna irakurri eta haren irudiak ikusten nituen arren, baidarik eta itsu eta ilunpean dagoenaren antzera, pertsona batekin hitz egin eta harekin dagoela ikusi arren, han dagoela ziur dakielako (hau da, badaki eta sinesten du han dagoela, baina ez du ikusten), horrela gertatzen zitzaidan niri gure Jaunarengan pentsatzen nuenean. Horregatik nintzen ni hain irudi zalea. Zorigaitzokoak beren erruz ondasun hau gal dezatenak! Jauna ez dutela maite dirudi, maite baldin balute, poztuko bailirateke haren irudia ikusteaz, hemen maite denarena ikusteaz poza hartzen den bezala.

## 7) **Kristoren gizatasuna** (22. kap.)

Oi nire arimaren Jauna eta nire Ona, Jesu Kristo gurutzil-tzatua! Ez da iritzi hau izan nuela gogoratzen dudan unerik pena ematen ez didanik, eta uste dut saldukeria handia egin nuela, baina ezjakintasunez.



4. Kristorenganako debozio handia izan nuen nik neure bizitza gutzian. Izan ere, hau azkenerantz izan zen (hau da, azkenerantz, Jaunak liluramendu eta ikuskarien mesede hauek egin aurretik), eta iritzi horretan hain sendo egoteak oso gutxi iraun zuen. Eta horrela beti itzultzen nintzen Jaun honekin gozatzeko neure ohiturara, batez ere Jauna hartzen nuenean. Begien aurrean izan nahi nuke beti haren erretratu eta irudia, nire ariman nik nahi nukeen bezain zizelatu ez bainuen. Izan ote daiteke, ene Jauna, nire pentsamenduan ordutxo bat ere on handiagorako Zu eragozpen izatea? Nondik etorri zitzaizkidan niri on guztiak Zugandik izan ezik?

Ez dut pentsatu nahi honetan errurik izan nuenik, nahigabe handia hartzen baitut, izan ere, egiaz ezjakintasuna izan zen; eta horrela nahi izan zenuen Zuk zeure ontasunagatik erremedia-tzea, oker honetatik aterako ninduen eman, eta hainbeste bider ikus zaitzadala eginez, aurrerago esango dudanez, argiago uler dadin zein oker handia zen, eta pertsona askori esan diezaiedan benetan egin dudanez, eta orain hemen jar dezadan.

5. Nik uste dut, arimak probetxu handiagoa ez ateratzea eta espirituaren askatasun handi-handira ez iristea, bat-egitezko otoitzera iristen denean, honegatik dela.

Bi arrazoi direla uste dut hori oinarritzeko, eta beharbada ez dut ezer esaten, baina esango dudana esperientziaz ikusi dut, nire arima oso gaizki baitzegoen Jaunak argi egin zion arte; izan ere, haren gozamen guztiak zurrutadaka ziren, eta handik irtendakoan, ez zuen aurkitzen gero aurkituko zuen laguntzarik lan eta tentaldietarako.

Bata da apaltasun falta hain estali eta ezkutukoa, sentitu ere egiten ez dena. Eta nor izan daiteke ni bezalako harro eta miserablea, bizitza osoan pentsa daitezkeen penitentzia eta otoitz eta jazarpenetan sartua egon ondoren, bere burua oso aberats eta oso ongi ordaindua ikus ez dezanik, Jaunak San Joani bezala gurutzearen oinetan egoten utz diezaionean? Ez dakit zein

burutan sartzen den horrekin ez poztea, nirean izan ezik, era guztitara galdu baitzuen irabazi behar zuen gauza hartan.

6. Bada, izaera edo gaixotasuna beti ezin badira ongi eraman, Pasioan pentsatzea nekagarria delako, zerk eragozten digu piztuera ondoren Berarekin egotea, hain hurbil baitugu Sakramentuan, jadanik goretsia, eta ez dugu ikusiko hain nekatua eta zati-zati egina, odola dariola, bideetan nekatua, Berak hainbeste on egindakoen aldetik pertsegitua, Apostoluek Beragan sinesten ez dutela? Izan ere, egia da, beti ez da izango Hark igaro zituen adina neke onez eramango dituenik. Horra hor oinazerik gabe, aintzaz beterik, batzuk bizkortuz, besteak adoretuz zerura igo aurretik, Sakramentu Santuan gure lagun, unetxo batean ere gugandik aldendu nahi ez duena bezala. Eta ni neu izan naizela Zugandik, ene Jauna, aldendu naizena Zu hobeki zerbitzatzearren! Iraintzen zintudanean ez zintudan ezagutzen; baina Zu ezagutu ondoren, bide honetatik irabazi handiagoak lortuko nituela pentsatzea ere! Oi, zein okerra zen nire bidea, Jauna! Bidez erraturik nindoala iruditzen zait, Zuk bertara itzularazi ezean, eta neure ondoan ikusi zaitudaneko, on guztiak ikusi ditut. Ez zait etorri lanik, Zu epaileen aurrean nola egon zinen begiratur, eramaten erraz egingo ez zaidanik. Hain adiskide ona bertan dela, lehenen sufritzen jarri zen kapitain hain onarekin, guztia sufri daiteke: laguntza da eta adorea ematen du; ez du sekula huts egiten; benetako adiskidea da. Eta argi ikusten dut, eta gero ere ikusi dut, Jainkoari poz emateko eta mesede handiak egin diezazkigun, Gizatasun guztiz santuaren bidez izatea nahi duela, Haren Maiestateak esan baitzuen Harengan duela atsegin. Hori behin eta berriro ikusi dut esperientziaz. Jaunak esan dit. Argi ikusi dut ate honetatik sartu behar dugula, Maiestate gorenak sekretu handiak erakustea nahi badugu.

7. Hortaz, jauna, ez dezala berorrek nahi izan beste biderik, kontenplazioaren goren-gorenean badago ere; hemendik ziur doa. Gure Jaun honen bidez datozkigu on guztiak. Berak

irakatsiko dio. Haren bizitzari begira, eredurik ona da. Zer besterik nahi dugu ondoan dugun adiskide hain onagandik, geure neke eta probetan, mundukoek egiten dutenez, bertan behera utziko ez gaituen harengandik? Zorionekoa benebenetan maite izan eta beti ondoan dakarrena. Gogora dezagun San Paulo aintzatsua; badirudi ez zuela unerik Jesus ahotan erabili gabekorik, beti bihotzean zeramanak bezala. Hau ulertu nuenetik arretaz begiratu dut santu batzuegan, otoitzgiro handikoak ziren haiengan, eta ez zebiltzan beste inolako bidetatik. San Frantziskok hori erakusten digu zaurietan; San Antonio Padukoak, Haurraren; San Bernardok atsegin hartzen zuen Gizatasunean; Santa Katalina Sienakoak... eta beste askok, berorrek nik baino hobeki ezagutuko dituenak.

(17)

Oi, nire arimaren Jauna, eta nork izan ditzakeen hitz egokiak Zuk zeugan uste ona dutenei ematen diezuna adierazteko, eta egoera honetara iritsi eta beren buruarekin gelditzen direnek zer galtzen duten adierazteko! Zuk ez duzu hau nahi, Jauna, izan ere, hau baino gehiago egiten duzu, nirea bezalako ostatu kas-karrera zatoz-eta. Bedeinkatua izan zaitezela beti eta beti!

## 8) **San Jose komentuaeren fundazioa** (32. kap.)

9. Gogoan nerabilen zer egin nezakeen Jainkoagatik. Eta lehenengo eta behin, Haren Maiestateak erlijio-bizitzara egin zidan deia jarraitzea zela pentsatu nuen, neure Erregela al bait ondoen gordez. Eta, ni nengoen etxean Jainkoaren mirabe ugari egon arren eta Jainkoa han ongi zerbitzatua izan arren, premia handia zutelako, mojak askotan irteten ziren lotsa onez eta erlijiotasunez egon gintezkeen lekuetara; eta Erregela ere ez zegoen bere hasierako zorrotasunean ezarria, Ordena osoan gordezten zen bezala baizik, hau da, lasaituriko buldan xedatua zen bezala. Eta bazen beste eragozpenik ere; erosoegi egiten zitzaidan hango biziera, etxea handi eta atsegina zelako. Baina

etxetik irtetearen oker hau, ni neu izan arren gehientsuen irte-ten zena, jadanik handia zen niretzat; izan ere, nagusiek pertsona batzuei ezin zieten ezezkorik eman eta hauek gogoko zuten ni beraiekin egotea, eta, ekin eta ekin egiten zietenez gero, azkenik joateko agintzen zidaten. Eta horrela, agindu ahala, nik monasterioan gutxi egon ahal izaten nuen, alde batetik deabruak berea egingo zuelako ni etxean egon ez nendin, bada, nirekin harremana zuten haiek irakasten zidatena nik etxeko batzuekin partekatzen nuen eta on handia egiten zen.

10. Behin, pertsona batekin nengoela, esan zidan niri eta beste batzuei ere bai, ea oinutsen erara moja izateko ez ote ginen gauza izango; monasterio bat ere egin zitekeela. Ni, desira hauetan bero-bero nenbilenez gero, horretaz hitz egiten hasi nintzen andre harekin, jadanik aipatua dudan neure lagun alargunarekin, hark nire desira bera baitzuen. Bera errenta emateko egitasmoa moldatzen hasi zen; orain ikusten dut ez zela bide ona hori eta asmoa gauzatzeko genuen gogoak eraman gintuela errentarena ona zela sinestera.

Baina ni, bestalde, bizi nintzen etxean poz-pezik nengoenez gero, neure gogokoa zelako eta nire gela ere bete-betean nire asmoen arabera atondua zelako, horrek geldiarazten ninduen oraindik. Hala ere, asmo hori Jainkoaren ardura-pean bene-benetan jartzea erabaki genuen.

11. Behin, Jauna hartu ondoren, Haren Maiestateak neure indar guztiakin horretan saia nendila agindu zidan, monasterioa egin egingo zelako promesa handiak eginez, eta han atsegin handia izango zuela Berak, eta San Jose izena emateko, beronek zainduko gintuela ate batean eta Andre Mariak bestean, eta Kristo gurekin ibiliko zela, eta distira biziz argi egingo zuen izarra izango zela, eta Ordena erlijiosoak zabarkerian eroriak izan arren, ez pentsatzeko haietan Jainkoa gutxi zerbitzaten zenik; ea zer izango litzatekeen mundua erlijiosoengatik ez balitz; hau neure aitor-entzuleari esateko

agintzen zidan, eta Berak eskatzen ziola ez joateko haren aurka, ezta ez ziezaiola oztoporik jarri ere.

12. Ikuskari hau hain zen eragin handikoa, eta halakoa Jaunak egiten zidan hizketa hau, non ezin bainuen Bera zelako zalantzarik izan. Nik pena handi-handia sentitu nuen, alde batetik horrek ekarriko zizkidan egonezin eta nekeak irudikatu zitzaizkidalako, eta, bestetik, etxe hartan poz-pozik nengoelako; horregatik, lehenago tratatzen banuen ere, ez zen behar bezalako erabakiz eta ziurtasunez. Hemen estutu eta presa ematen zitzaidala neritzon eta, egonezineko gauza hasten zela ikusiz, zalantzan nenbilen zer egingo. Baina Jaunak horretaz askotan hitz egin zidan, hainbeste froga eta arrazoi aurrean jarririk; arrazoi argiak zirela ikusten nuen eta haren borondatea zela. Beraz, jadanik ez nintzen ausartu neure aitor-entzuleari esatera baino beste ezertara, eta idatziz eman nion gertatzen zen guztiaren berri.

13. Bera ez zen ausartu alde batera uzteko argi eta garbi niri esatera, baina ikusten zuen ez zeramala biderik berezko arrazoiak kontuan izanik, aukera oso gutxi edota ia batere ez zegoela nire lagunarengan, hura baitzen gauzatu behar zuena. Arazoa neure nagusiarekin tratatzeko esan zidan, eta hark zioena egin nezala.

Nik ez nuen hitz egiten ikuskari hauetaz nagusiarekin. Monasterioa egin nahi zuen andre hark hitz egin zuen berarekin. Eta probintzialak oso ongi hartu zuen asmoa; erlijioko gauza ororen zalea izanik, behar zuen laguntza guztia eman zion, eta berak onartuko zuela etxea esan zion. Izan beharko zuen errentaz hitz egin zuten. Eta inola ere ez genuen nahi hamahiru baino gehiago izan zitezen arrazoi askorengatik.

Horretaz hitz egiten hasi baino lehen, Frai Pedro Alcántarako santuari idatzi genion gertatzen zen guztia esanez, eta asmo hori ez uzteko alde batera aholkatu zigun, eta bere iritzia eman zigun guztian.

## 9) Jaunaren edertasun bikaina (37. kap.)

4. Kontuan izatekoa da, gainera, Jaunak egiten zidan ikuskari edo errebelazio bidezko mesede bakoitzean nire arima irabazi handiren batekin geratzen zela; eta ikuskari batzuetan, irabazi ugariekin.

Kristo ikustean haren edertasun bikaina geratu zitzaidan josirik, eta gaur egunean ere halaxe dut, horretarako behin ikusteaz nahiko baitzen; zenbat gehiago Jaunak mesede hau hainbeste aldiz egiten badit! Probetxu handi-handiarekin geratu nintzen eta hauxe izan zen: akats larria nuen oso eta hortik kalte handiak etorri zitzaizkidan eta hauxe zen akatsa: norbait niganako joera izaten hasten zela ohartzen nintzenean eta atsegin bazitzaidan, harengana hain biziki zaleturik, oroimena harengan pentsatzera lotzen zitzaidala, Jainkoa iraintzeko asmoz izan ez arren; hala ere, poza hartzen nuen hura ikustean eta harengan pentsatzean eta haren gauza onak ikustean. Hain gauza kaltegarria zen, non arima nahiko galdua baitzekarkidan. Jaunaren edertasun handia ikusi nuenez gero, ez nuen ikusten inor, haren ondoan, eder zitzaidanik ezta nigan leku hartuko zuenik ere; pentsamenduaren begiak ariman dudan irudian pixka bat jarritz, honetan hain libre geratu naiz, non gero hemen ikusten dudan guztiak higuin ematen duela iruditzen baitzait Jaun honengan ikusten nituen bikaintasun eta grazien ondoan. Ez dago jakinduriarik ezta atseginik ere nik ezertan estimatzekorik, haren jainkozko ahoak esandako hitz bakar bat entzutearekin konparatuz gero, gutxiago oraindik hainbeste hitz entzutearekin konparatuz gero. Eta nik ezinezkotzat dut, Jaunak nire bekatuengatik oroitzapen hau ezabatzen uzten ez badu behintzat, inork nigan leku hartzea, berriro Jaun honetaz pixka bat gogoratzean, libre ez geratzeko eran.

5. Aitor-entzuleren batekin gertatu zitzaidan (nire arima gihatzen dutenak oso maite baititut), egiaz Jainkoaren ordezeko

gisa hartzen ditudanez gero, uste dut betiere nire gogoia gehien haiengan ezartzen dela eta, nik ziurtasuna nuenez gero, atsegin agertzen nintzaien. Haiek, Jainkoaren beldurreko eta zerbitzari ziren aldetik, beldur ziren ez ote nintzen nolabait beraiekin zale-letuko eta maitatzera lotuko, santuki bada ere, eta desatsegin agertzen zitzaizkidan. Hau ni haien esana egitera jarrita egon ondoren zen, aurretik ez bainien halako maitasunik. Nik barre egiten nuen neure artean, zein oker zeuden ikusirik; hala ere, beti ez nuen erakusten neure barruan nuen bezain argi zein gutxi loturik nengoen inorekin. Baina ziurtasuna ematen nien eta, nirekin harreman gehiago izatean, konturatzen ziren Jaunari zor nionaz; nitaz zituzten susmoak, beti ziren hasieretan.

Bera ikustean, Jaun honen maitasun eta konfiantza askoz ere handiagoa hasi zitzaidan, solas hain etengabea nuen nolabait balitz bezala. Konturatzen nintzen, Jainkoa izan arren, gizozona ere bazela, eta ez zela izutzen gizakien ahuleziez, gure izaera errukarriaz, Bera erreparatzera etorri zen lehen bekatuaz geroztik erorketa askori lotua zenaz. Adiskide batekin bezala ari naiteke Berarekin, Jauna bada ere. Hemen jauntzat ditugunak bezalakoa ez dela konturatzen naizelako, hauek jauntasun osoa azaleko aparatuetan ezartzen baitute: hitz egiteko orduak egon behar dute eta pertsona izendatuak hartarako; negozioren bat duen gizagaixoren bat bada, itzulinguru eta mesede eta neke handiagoz lortuko du hitz egin ahal izatea! Oi Erregearekin balitz! Hemen ez da jende pobrerik, ezta zaldun ez denik ere, zeintzuk diren baliokoenak galdetzea baik; eta ziur asko ez dira izango mundua beren mende dutenak, hauek egiak esaten dituztelako, beldurrik gabe eta aurrekoa nor den begiratu gabe; ez dira jauregiatarako, han ez baitira erabili behar, gaizki emango dutenak isildu baik, ezta burura ekartzen ausartu ere gaizki tratatuak izan ez daitezten.

6. Oi Errege aintzatsu eta errege guztien Jauna! Bai ez da goela zotzez armatua zure erreinua, amaierarik gabea baita! Bai ez duela bitartekorik behar Zuretzat! Zuri begiraturik, be-

rehala ikusten da zuk merezi duzula soilik Jaun izenez deitzea, erakusten duzun handitasuna kontuan izanik. Ez da behar ez segiziorik ezta begiralerik Errege zarela ezagutzeko. Izan ere, hemen errege bat bera bakarrik nekez ezagutuko da berez. Bere burua erregetzat ezagutua izatea nahi izan arren, ez diote sinetsiko, ez baitu gainerakoek dutena baino gehiagorik; beharrezkoa da sinesteko zergatia ikustea, eta horregatik azaleko aparatuak izan beharra, bestela ez bailukete aintzat hartuko. Izan ere, ahaltzu antzera agertzea ez da beretik sortzen dena. Besterengandik etorri behar zaio aginpidea.

Oi ene Jaun, oi ene Errege! Nork lekikeen orain Zuk duzun handitasuna agertzen! Ezinezkoa da ez ikustea Enperadore handia zarela Zu zeure izatean, eta izutu egiten du handitasun honek; hala ere gehiago izutzen du, ene Jauna, horrekin batera zure apaltasuna eta ni bezalako bati diozun maitasuna ikustek. Zurekin nahi dugun eran jardun eta hitz egin daiteke, zure handitasuna ikustearen lehen izu eta beldurra galtzean, Zu iraintzeko beldur handiagoaz geratzearekin; baina ez zigorraren beldurrez, ene Jauna, hau ezerez balitz bezala hartzen baita Zu galtzeaz konparaturik.

## 10) **Jesus piztuaren gizatasuna** (27. kap.)

2. Baziren bi urte neure otoitz honekin eta beste pertsona batzuenarekin ari nintzela esandako asmorako, hau da, Jau-nak eramán nintzela beste bide batetik, edota ager zezala egia eskatuz, etengabeak baitziren Jaunak egiten zizkidán aipaturiko hizketak; eta hau gertatu zitzaidan: San Pedro aintzatsua-ren egun batean otoitzean ari nintzela, neure ondoan ikusi nuen edo sentitu nuen, hobeki esateko, ez gorputzeko begiez eta ez arimakoez ez bainuen ezer ikusi, baina iruditu zitzaidan Kristo zegoela nire ondoan eta ikusten nuen Bera zela hitz egiten zidana, nire ustez. Ni guztiz ezjakinean nengoen halako ikuskaririk izan zitekeenik-eta, beldur-ikarak hartu nin-



duen hasieran, eta negar eta negar besterik ez nuen egiten, ziurtatzeko niri hitz bakar bat esaterakoan, beti bezala geratzen banintzen ere: lasai eta atseginez, eta inolako beldurrik gabe. Iruditzen zitzaidan Jesu Kristo nire ondoan zebilela beti, eta, irudizko ikuskaria ez zenez gero, ez nuen ikusten zer forma zuen; baina argi sentitzen nuen eskuinaldean zegoela beti, eta nik egiten nuen guztiaren lekuko zela, eta neure baitan pixka bat biltzen nintzenetan edota arreta oso galdurik ez nuenetan, ezin nuen nire ondoan zela sentitu gabe geratu.

3. Berehala neure aitor-entzuleagana joan nintzen esatera, nahiko kezkatu. Zer itxuratan ikusten nuen galdetu zidan. Ez nuela ikusten erantzun nion nik. Berak esan zidan ea nola nekien Kristo zela. Nik esan nion ez nekiela nola, baina ezin nuela nire ondoan zegoelako zalantzarik izan eta argi ikusten eta sentitzen nuela, eta arimaren bildutasuna askoz ere sako-nagoa zela, gelditasunezko eta jarraituko otoitzean, eta gehienetan izan ohi nituenen aldean ondorioak bestelakoak zirela, eta gauza oso argia zela.

Aditzera emateko konparazioak jarri besterik ez nuen egiten; eta, egia esan, ikuste era honetarako, ez dago bete-betean dagokionik. Gorenetakoa denez gero (geroago aipatuko dudan gizon santu eta goi-espiritudun batek, Frai Pedro Alcántara ize-nekoak, esan zidanez, eta beste jakintsu handi askok esan didatenez, eta guztietarik deabrua gutxien sar daitekeena), ez dago hitzik gutxi dakigunok hemen esatekorik; jakintsuek, ordea, hobeki adieraziko dute. Bada, esaten badut ez dudala ikusten ez gorputzeko begiez, ez arimakoez, irudizko ikuskaria ez delako, nola ulertzen eta baieztatzen dut nire ondoan dagoela ikusiko banu baino argitasun handiagoaz? Izan ere, ilunetan dagoen pertsona bat bezala dela, edotaitsu dagoena bezala dela eta bere ondoan dagoen beste bat ez duela ikusten irudikatzea, ez dator egoki. Badu antzekotasunik, baina ez handirik; zentzumenez sentitzen duelako, hitz egiten edo mugitzen entzun, edota ukitu egiten diolako. Hemen ez dago horrelakorik, ezta

ez da ikusten iluntasunik ere, arimari eguzkia baino argiagoa den albiste baten bidez agertzen zaiola baizik. Ez diot eguzkia ezta argitasuna ikusten direnik, argia ikusi gabe, adimena argitzen duen argi bat baizik, arimak hain ondasun handiaz goza dezan. On handiak dakartza berarekin.

4. Ez da askotan sumatzen den Jainkoaren presentzia bezalakoa, batez ere bat-egitezko eta gelditasunezko otoitza daukatenek sumatzen dutena bezalakoa, otoitza edukitzen hasi nahi denean norekin hitz egin aurkitzen dugula baitirudi, eta entzun egiten digula iruditzen zaigu, samurtasunarekin batera sumatzen ditugun maitasun bizizko eta fedezko, eta beste erabakitasunezko ondorio eta sentimendu espiritualengatik. Mesede handi hau Jainkoarena da, eta eman izan zaionak estimu handitan izan beza, goi-goiko otoitza delako, baina ez da ikuskaria; diodanez, ariman eragiten dituen ondorioengatik konturatzen da bat Jainkoa han dagoela, Haren Maiestateak era horretara sentiarazten baitu bere burua. Beste honetan, berriz, argi ikusten da hemen Jesu Kristo dagoela, Andre Mariaren semea. Beste otoitz horretan Jainkotasunaren eragin batzuk agertzen dira; hemen, ordea, horiekin batera, Kristoren Gizatasun guztiz Santuak ere lagun egiten digula eta mese-deak egin nahi dizkigula nabari da.

**JOSE ANTONIO RETOLAZAREN ONDAREA**

Aberatsa da bai haren ondarea. Karmel 2014-2 zenbakian hau idazten neban:

“Hemen gauza asko eta ederrak itzi deuskuz. Kili-kili pertsonaiagan hustu eban berak eukanik onena: Euskal Herri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Hor geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Hor geratzen da batez be, agerian ikusten ez dana: orduko umeengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak diranengan, oparo erein eban herrigintzako eta euskalgintzako hazia. Multzo harrigarria da, asko da, itzi deuskuna, baina ziur asko gehiago izango da asmoen, ametsen, desiren bizkar-zorroan eginkizun geratu jakona. Hori izango da, beharbada, ekintzaile handi eta idealista fin guztien zoria”.

**Liburu bikaina**

*Kili-kili eta biok* dau izenburua. Jose Antonio Retolaza ez litzateke berbera bere bihotzeko mutiko jator hori barik. Iru-diz eta moldez guztiz ezaguna. Betiko Kili-kili dala esan geinke: janzkera ezaguna dau, euskaldun ume eta gaztetxoan laguna da; hangoei hango erara eta hemengoei hemengo erara berba egiten ondo jakin arren, hemen bere-berean dagi, herriko doinu eta guzti, baina ez berbak moztuz eta ahopean esanaz, osorik eta garbi ahoskatuz baino. Lerro laburretan idatziko dau, bertsoak idazten balebil legez. Egia esan, Kili-kilik

beti idatzi izan dau era horretara. Beraren laguntxoak errazago ulertu deioen izango da?

Atal bi ditu liburuak: 1.an, *Kili-kili* agertzen da; 2.ean *Kili-kiliren* osaba: Jose Antonio Retolaza.

## Gure pertsonaia

Jose Antoniok, Madrilen psikopedagogia ikasten zihardueanean, une askotan, era berean han eta hemen sumatzen eban bere burua; gorputzez han zan, baina haren bihotza Arrazolaz eta Euskal Herriaz ametsetan ebilen. Amets horreen artean, hauxe zan bere buruari behin eta barrero egin ohi eutsan itauna: zelan esan nik txikitxo honeei barruan dodan hau? Eta hona erantzuna: umeentzat egindako aldizkaritxo baten bitartez. Baina horretarako umeekin ume egingo zan pertsonaia bat asmatu behar eta horra *Kili-kili!*

*Kili-kili* alai-alai agertzen da, ameslari, ume euskaldunen maisu izateko. Baina ez betiko maisu erdaltzale eta bekozko-dunen antzeko, umeen adiskide eta jolas lagun izateko baino. Bere burua era honetara agertzen dau:

*Kili-kili naz, Bilbon, San Anton-go zubi ondoan, jaiotzen nintzan 1966. urtean –Franco-ren garaian– eta bertako eleizan “Kili-kili” izenez bateatu ninduan nire Osaba abadeak.*

*Kili-kili egiteko ekarri ninduen mundura, ume eta gaztetxo euskaldunei buru-bibotzetan kili-kili egiteko, hau da, euskaldunak dirala esanez EUSKAL KONTZIENZIA biztuteko.*

Bere izeneko aldizkaria sortu eban horretarako. Agintariak baina ito egin eben, debekatuz. Aldizkaria ezin atera eta, LAN TA LAN koadernoak sortu zituan teila bako ikastolan. SARIKETA izena jarri eutsan, SARIKETA NAGUSIA. Ahoz ekienetik idatzizkora bidea egiten irakastea zan jomuga, hau da, euskeran eskolatztea, alfabetatzea:

Alfabetatze bidean gaintitu beharreko hiru mailak azaldu ondoren, hau dakar Kili-kilik:

*Horrez gainera, Ikastola edo Sariketa borretan euskal kultura –Geografia, Historia, Folklorea...– zabaltzen neban. Horrez gainera, tokian tokiko euskera erreza erabilten neban, maisurik bage, zigorrik bage, azterketarik bage... Horrez gainera, joko eran eta sari bidez, euskerea POZGARRI bihurtu.*

*Ikastola hori edo Sariketa Nagusia Euskal Herri OSOan zabaldu zan.*

Isilpeko aldi ilunetan, euskal usaineko guztia debekupean jarri nahi zanean, beldurra nagusi zanean, hesi horretan zirri-



kituak bilatu eta hainbat gauza egiten ahalegintzen zala esango deusku:

*“Ezin da ezer egin” esaten zan garaian, ba, guk –isilik, zaratarik bage, ilunpean– egin egiten genduan zeozer.*

*Egoera politikoa aldatu zanean, ilunpetik argitara urten genduan.*

*Euskal Herriko lau bazterretako ume eta gaztetxo euskaldunok, milaka, kalera urten genduan –Bilbon, Donostian, Iruñean– KILI-KILI EGUNAN “Kili-kili bat, Kili-kili bi, milaka ume dantzaz, alfabetatzen, Teila bako ikastolan...” abestuz.*

*Kalean jendea –hainbeste ume, gaztetxo eta gazte, ikusirik– abo zabalik geratu zan. Politikariak, barriz, “guk ez dogu holarikorik” esanez hurreratu egin jakuzan, euren Alderdiko ateak zabalik doguzala aditzen emonez.*

*Politika baina, ez zan Kili-kilirena. Kili-kilirena, EUSKERA eta HERRIA zan. Herriak bizirik iraun egiala.*

*Herriak bizirik irauteko EUSKERA –arnasea– eta BURUJABETZA –Askatasun Osoa– behar ditu. Bata eta bestea eskubideak dira, berezko eskubideak. Politikea beste arazo bat da, “Herria gobernatzeko era”.*

Egoera barri haretan euskera eskoletan sartu zala dino Kili-kilik. Bera ez dator bat han erabili ohi zan euskera eta metodoekin eta protesta egiten dau. Baina goazen aurrera, euskaltzaleok batzen gaituana sendotzea komeni da-eta. 1986an Aramaion egin zan Kili-kili Egunean, Olinpiadetako zuzia pizturik dauala agertzen da Kili-kili eta pankartak hau dino: *euskerea etxean ikasi, eskolan landu, kalean erabili*. Eta goialdean hau dakar: *KALEAN, euskeraz kalean egiteko obiturari eutsi behar jako. Horra hor, euskeraren salbamena*.

*Kili-kili* zorrotza da bidebakokerien aurrean ahotsa jasotzeko. Kritikak ez eze, salaketak egiten be ez da beldur. Hizkuntzaren eta herriaren aurkako erasoak batez be ez ditu onartzen,

ez parkatzen. Orduan kritika zorrotzak izaten ditu luma-puntan. Hizkuntza kontuan iritzia emoteko gai da; esaterako, euskara batuaren kontuan *Kili-kilik* berea esaten dau, ez da isiltzen:

*Sekulako eztabaida sortu zan. Eztabaida borretan asko ekienak gitxi ziran; gitxi ekienak, asko; ezer ez ekienak, bainbat. Guztiak hartu eben parte.*

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei eginiko kritikarik be ez da falta orrialde honeetan:

*Geroago –egoera politikoa aldatu zanean–, Asministrazio barrira jo neban –itxaropentsu– ondo hartu eta bere magalpean hartuko nindualakoan. Baina guzurrak urten eustan... Ondo hartu bai, baina ondo ulertu ez, bere magalpean hartzeko.*

### **Kili-kiliren osaba**

Berez aita izan behar ebanari osaba izena emon eutsan; holan agertzen deusku bere burua; izan be, bera abadea izanik, Erromako Elizaren tradizioan abadeak ez dira ezkontzen eta, beraz, ez dabe seme-alabarik.

Liburuaren bigarren parte honetan, Jose Antonioren biografiak hartzen ditu orrialderik gehienak. Ohar batekin hasten da: *Nire biografia ez jako inori ardura, baina “Kili-kili” sortzera eroan ninduen gorabeherak baliteke bati baino gehiagori ardura izatea. Horreexek dakartsudaz.*

Bere burua aurkezten deusku, lehen *Kili-kilik* egin dauanez: *Kili-kiliren osabea naz. Jose Antonio RETOLAZA nire izena. Urte asko ditut. Bilbon jaioa. Euskalduna naz: etxean ikasia, herrian hobetua, neuk neure burua alfabetatua. (...) Erderea estimatzen badot, euskerea maite dot. Nirea, euskerea da.*

*“EUSKERA eta HERRIA” da Kili-kili eta bion goiburua. “Jaun-goikoa”, nire-nirea.*

## Umetako urteak eta gerratearen lekuko

Bost urte zituala Errotatxueta ikastolara eroan eben. Gero, Santiago Apóstol ikastetxera, anaia nagusien ondora. Gerra sortu zanean, 1936. urtean, Muxikara, amaren herrira. Gerrari iheska Bilbotik hara aldatu eta bertan bizi izan zituan gerrako unerik latzenetariakoak; Gernikako bonbardaketa kontatzen deusku, bizi-bizi. Jazoera triste eta dramatikoak. Gerrako une honeek, seminarioan sartu aurreko hainbat ekintza eta seminarioko hainbat kontaera dira gogotsuen irakurri ditudanak. Batzuk antologikoak direla esango neuke. Hona Gernikako bonbardaketaren eta gerraren pasarte batzuk:

*Gerratik ibesi Muxikara eroan ninduela esan dot. Alperriko ihesa. Muxikan ikusi neban eta bizi nik gerrea.*

*Gerrea, nire inguruan, holan basi zan: Astelehena zan. Arratsaldeko birurak-laurak aldera Oiz aldetik zeru goian –broum, broum, broum– aeroplanoak. Hiruko hiru talde lehenengo, gebiago, gero. Kanpai hotsa hurrengo, dunbotsa, gero... Gernikan bonbaketa zan. Gu –mutiko koskorrak– olgetari itzi eta zerura begira jarri gintzazan. Geure buruen gainean hara eta hona, gora eta behera –elaiak bailitzazan– “caza” eritxoan aeroplanoak.*

*Handik urrun ez –autobidean– oinez Gernikatik etxera, buruan otzarea ekarrela, etorran andrea luze-luze itzi eben bareek, balaz josita, lurrean odola eriola... bilda.*

*Honetan, danbada handi bat, 300 metrora edo, Eleizalden. Gero beste bat... Gero, gebiago. Eleizan, Pelizianonean eta, jausitako bonbak ziran. Gero eta hurrago... Noiz gure gain jausiko ete ziran... –dardaran– izuak hartuta gegozan.*

*Iluntzean, autobidean bildako andraren gorpua –izara zurian batuta– kanposantura eroiela ikustean, ikara egin eustan bibotzak, ikara handia.*

*Gauetz gorri egoan zeru goia. Sutan Gernika. Ke multzo baltzak lurretik zerura.*



*Gizonezko batzuk –gure aita eta beste batzuk– harako bidean jarri ziran. Gu, gure ama eta hiru anaiok, ohera... lo egi-tera. Nik, ezin. Tristeia, oso tristeia.*

*“Gerrea zer da?” itaundu neutsan behin amari. Laster ja-kingo neban... zoritxarrez!*

*Ez dot hareen gomuta onik. Don Severiano, egun batzuk aurretik niri Gure Jauna lehenengoz emon eustana, gaixo bati eleizakoak eroaten joiala –bidean– bil egin eben. Hareetariko bat gero, buruan abade kapelea ekarrela agertu jakun abade-plantak eginaz... Batera eta bestera –ziztuan– balak ebiltzan. Batean, dum-dum... bestean, pak-um...*

*Bala batek Ibarretxebarriko Juanito –nire adineko eta lagu-na– etxeko leihora urten eban baten jo eta bertan garbitu eban.*

*Egunez: tzuuum hotsa obusak. Egunez eta gauez: tarra-ta-ta-ta... metrailadoreak.*

*Gu, babeslekuan –enborrez eta mokilez estalitako leize zu-loan– egun osoan, seguru gengozalakoan. Seguru, barriz, inon ez. Buluku baserria, obusen eraginez, sutan agertu jakun goiz baten.*

*Gogorra, oso gogorra, izan zan Bizkargiko gudaketea. Na-zionalak eguraldi onaz eskuratzen ebena, eguraldi txarraz galtzen eben; egun argiz eskuratzen ebena, gau ilunez galdu.*

*Bizkargiko gudaketak Muxikako Eleizaldea –etxe, eleizpe, zelai– eritegi biburtu eban. Han, hor... “ene ama!” entzuten zan. Ama... urrun baina!*

*Bizkargiko gudaketak Muxikako kanposantua bete egin eban. Gainerako gorpuak –ate ondoan pilatuta– ez erosta, ez protesta... mutu. Kanposantuan esangura handiko isiltasuna entzuten zan.*

*Kanposantura bidean gorpu bi buruak triskatuta mando gainean eroiezala ikusi nebazan behin. Anaiak ziran, bikiak. Naparrak.*

*Hilak kanposantura iragoten ikustea tristea bada, biziak kanposantura biltera erooten –oinez joaten– ikustea tristeagoa da; tristea, gogorra, latza... Hori ere ikusi egin neban! Ikusi eta..., tiro botsa entzun.*

*Joan ziran Euskal Herria erdibituta, txikituta, lotuta itzirik Espainia “Una, Grande y Libre” egitera etorri ziranak.*

*Joan ziran etorri ziran moduan: tiroka, bonbaka, indarka... Baina Unamonok esan ebana: “Venceréis pero no convenceréis”.*

## **Gerra ostea eta ikasketak**

Gure Jose Antonio eta etxeakoak Muxikan geldituko ziran harik eta Bilbo “liberatu” arte. Familiako besteak joan arren, ama eta biak han gelditu ziran.

Muxikatik gerrako frontea kendu zanean, eskolak zabaldu zirala dinosku, eta bera hara joaten hasi zala. Han, horman agertzen zan lehenengo irudia Francorena, Espainiako bandera, “Cara al sol”, “Viva España”, “Por Dios, por la Patria y el Rey” kantak ikasi behar eta abar eta abar. Hau dino ondorengo lerroetan:

*Bilbon, Muxikan, Gernikan... asko ikasi neban. Baina eskolan baino etxean, kalean, herrian gebiago*

Muxika euskaldun-euskalduna. Asko aberastu eban han bere euskera. Bigarren ikastola bihurtu zan Muxika; lehenengo bere etxea izan eban amaren bidez. Gerra amaitzean, Bilbora barriro. Holan kontatzen deusku berak:

*Gerrea amaitu eta gero Bilbora joateko eguna heldu jatan. Pozik... eta triste. Lagunak, txakurra... etxe, solo eta zelaiak; Bizkargi mendia eta inguruak bertan izten nebazan... Betiko?*

*Bilbokoa nintzan, baina Muxikar biburtu nintzan. Negrerez... ninoian.*

*Fa, fa, fa... tren a –ikatzaz eragindako tren a– aurrera joian. Tunelean, iluntasuna eta kea... eztula eta arnasestua. Zornotzan Donostiatik etorran trenari itxaron beharra... Bilbora orduko, gaua. Gaua zan baina kalean... ikusi egiten zan.*

Gerra osteko Bilbo agertzen deusku ondorengo lerroetan. Irabazleen oilarkeria eta galtzaileen negar eta bildurra:

*Bibaramunean begiak zabaldu eta... Bilbon! Bilbon... gerra ostean. Ene Jaungoikoa!*

*Kalean “Franco, Franco, Franco” horma guztietan. Haren irudia bazter guztietan. Desfileak eta, txitean-pitean. Espainiako banderea, non ez? Haren aurretik igarotean... besoa gorra. “Cara al sol”, edonon: zine amaieran, eskola hasiera eta amaieretan. “Marcha Nacional”...*

*Etxe asko... butsik, etxeakoak ibes eginda egozalako. Etxe-ganbara batzuk, ostera, beterik, ezkutaleku biburtu ziralako. Kartzelak beterik. Ene Herria!*

*Euskerea, inon ere ez. Kalean, eskolan, eleizan... erderaz. Bilbon debekatuta egoan baita “Agur” esatea be. Agur esan eban bati atari baten sartu eta emon-emonak egin eutsoezan.*

*Hori zan Bilbo gerra ostean, ni hara joan nintzanean.*

*Aita, ama eta hirurok paseoan joan ginan baten tiro-bots sail luzea entzun genduan Begoña aldean, Larrinagan. Nire gurasoak alkarri adi-adi begiraturik, barbarik bage, zeozer esan eutsoen alkarri. Zer? Niri tiro-bots harek Muxikako fusilamendu hotsa ekarri eustan gogora. Larrinaga, aldi haretan, Bilboko kartzelea zan. Hori zan Bilbo, gerra ostean, ni hara joan nintzanean.*

Santiago Apostol ikastetxera bidali eben eskolan hemen eta han eginiko ikasketak jarraitzera. Han be, jakina, goian aitatu dan giroa egoan. *Aita hil eta gero “Bachiller”etik “Peritaje Mercantil”era aldatu ninduen, dino. Ikasketetan aurrera egin ahala, idealismo handi bi sortzen jakoz: JAINKOA eta HERRIA.*

*Horra hor nire edealismo biak, sasoi baretan sortuak eta gaurdaino mantenduak. (...) Euskaltasunak eraginda ikasi, egin eta irakatsi nebazan euskal dantzak.*

## Seminariora begira

Don Klaudio Gallastegigaz topo egingo dau: *Horra hor Don Klaudio handia –danean handia– nire lagun HANDIA*. San Antongo Ekintza Katolikoan, katekesian, jarduten ebanekoak kontatzen ditu. Domeka arratsaldetan La Peñako ume behartsuekin, hareek pozteko, eratzen zituan futbol partidak. *Nazaretoko Jesusegaz topo egin neban* dino gerotxoago.

*Banaz, jauna, abade izateko gauza? –itaundu neutsan D. Klaudiori– Eta harek besarkada handi bat emon eustan erantzunez*. Seminarioan sartzen da. Barruko borrokak, isileko negarrak, bakardadea. Holan kontatzen dau berak:

*Handik hilabetera Gasteizko Seminarioan nengoan sotana baten barruan. Baina bara joan orduko, negar egin neban behin baino gehiagotan neure bakardadean.*

*Amari agur samur bat eginik, lokarri bage, libre joan nintzan. Baina negar egin neban.*

Gabonetan lehenengo oporrak heldu jakozan. Etxera joateko trajez jantzirik jantokira, gosaltzera joan zanean, hau esan eutsan Prefektuak: *“Cuando regreses te quiero ver con el traje teñido y el pelo cortado como es debido”*.

Opor hareetan, behin San Antonen, Bittor sakristaua etorri ei jakon esanez: *“Hay un cura forastero. ¿Quieres ayudarle a Misa?”*

*Ai, ene! –dino Jose Antoniok– Ez nekian oraindino Mezea erasoten...*

*“¡Qué vergüenza! ¡Vaya seminarista!” esanez alde egin eban.*

*Ez neban abadegai itxurarik... “Hori ez da abade egingo” egin eben postura Gran Víako nire lagun neska batzuk.*

*Gabonak egindakoan traje baltzaz eta ulea moztuta, Mezea erasoten ikasita –abadegai biburtuta– nentorran barriro Seminariora. Heltzean, arkitekto eta abade izandako D. Pedro Asuagaz gogoratu nintzan. Seminarioko eleizea egin ebanean, abadegaia zala, sakristia egiteaz abaztu zan... “¡Vaya seminarista!”. Baina abade egin zan. Eta nik dinot: ez bakarrik abade egin; orain dala gutxi, Elizak beatifikatu be egin dau.*

Seminarioko bizitza kontaktzen dau, giroa, ikasketak; ezkutu euskal gramatika eta hiztegia erabiltzen zituan, legezko ikasliburuen azpian gorderik izaten zituanak. Arriskurik ez zanean atera eta arriskua sumatzen ebanean gorde... Seminarioan eta beste toki batzuetan euskal dantzak irakasten. Hainbat pasadizo eta kontu agertzen ditu euskal dantzekin zerikusia dabenak.

Oporretako lehenengo egunean, Gorbeiara: *Gora, lainoen artera, arranoen erara, eta behera, zatorren erara.*

## **Abade**

*Handik laster abade egin nintzan. Nire amesa bete egin zan, behin betiko bete ere. Betiko abade. Nazareteko Jesusen oinordeko betiko. Arrazolara bidali eben ustekabean; munduko bazterra begitandu jakon handik zehar eginiko ibilaldi baten.*

*Munduko bazterrera joan aurretik mundu zabalera joan nintzan –dino berak. D. Klaudiogaz eginiko ibilaldi alaiak, pasadizoz betekoak kontaktzen ditu. Arrazolan eta Euskal Herrian Gaztetasunaren indarrez jo eta ke ekin eutsan bere zereginari: guztien lagun egin zan, zaharren, gazteen eta batez be gaztetxo eta umeen lagun. Arrazola bihotzean sartu jakon.*

Anbotopean euskera zan nagusi, euskeraz egiten eben guztiak, euskeraz abereak, txoriak, haizeak, Arrazolari euskera zerion. Muxika etxeko euskera sendotzeko bigarren ikastola izan bazan, Arrazola unibertsitatea izan zala esango deusku.

*Arazolan izan zan, Euskal Herrian –Munduan– Euskeraz Mezea lebenengoz.* Ekialdeko errituan izan zan hau; Erromako errituan ezin zitekean oraindino. (...) *Kristau Dotrinaz batera euskeraz alfabetatzen eta euskal kontzientzia sortzen ahalegindu nintzan.*

## Egoera irregularrean

Eliz Hierarkia Erregimen ankerra babesteko eta euskaltasuna zapaltzeko prest ikusi eban. Eta dana itzirik, bere etxera joan zan lehenengo eta gero Madrilera, psikopedagogia ikastera.

San Antongo euskal mezaren hasiera: *Mezea –Erromako errituan– herriko bizkuntzan lebenengoz.* Kili-kiliren jaiotza kontatzen deusku ondoren: *Aldizkaria sortu neban. Aldizkaria eta Pertsonaia.* San Anton eta “Euskerazaleak” erakundea Kili-kiliren babesa izan ziran. Bizkaiko abadeen itxialdia, “Gogor” mugimendua, isilpeko diskoa etab. agertzen dira.

*Kili-kili eta biok S. Antonetik kaleratu ginduzan* dino gero-txoago. *Kili-Irratiaren* jarduna, *Kili-kili eguna.* Ilunpetatik argitara urten ebanekoa. Agintearen aldetiko babesik eza salatzen dau: *Kili-kili bakar-bakarrik. Kili-kili egoera larrian.* Dana dala, ia bertan behera itzia eta batzuen aldetik gogor jazarria zan unean, Euskaltzaindiak ohore egiten deutsa eta haren osaba OHOREZKO EUSKALTZAIN izendatzen dau.

*Kili-kili* erakundeak Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin hitzar-mena egiten dau eta aldizkaria argitaratzea BIEren ezku geratzen da. Arerioak baina gogor egin eben jabe barriei bildurra sartu nahian. *Heldu jaken bildurra Eusko Erakundekoei. Bildur-rak agortu ebazan diru-laguntzak.* Aldizkaria mututu zan.

*KILI-BERRI* orria zabaltzen zan lau haizetara. Honek ez eukan mihipekorik eta gogor salatzen zituan bidegabekeriak. Batzuk eta besteak jaso behar izan zituen haren lumaren eztenkadak. Bigarren atal honen amaieran hau dakar: *Idazki honetan ez dodaz egia guztiak esan, baina esan dodazan guztiak egiak dira. Agur.*

Gehigarri labur bat be badau liburuak. Han, hor, hemen apurka erein diran ideia nagusiak batera datoz ataltxo honetan. Hona amaierakoak: *EZ DAGO EUSKAL HERRIRIK EUSKERA BARIK. EZ DAGO EUSKERARIK EUSKAL HERRI BARIK. EZ DAGO EZ BATA, EZ BESTERIK INDEPENDENTZIA BARIK.*

Azkenik, liburuaren eskaintza dator:

*Herriaren alde askatasuna, osasuna, bizia... galdu dabenen (dutenen) oborez.*

*Egileak.*

*Luis Baraiazarra Txertudi*

## LOGOAREN BIKAINTRASUNA

Gure arimaren alderik nobleena intelectoa da, zeren intelectoaren bitartez egia bera ikutu egiten baitugu hainbatetan, eta orduan gure logika Logo dibinoaren partaide ere bada, eta horregatik, gure ekonomia saneatuz gero, gure jardunik nobleena egia bilatzea da, filosofiaren jorratzea.

Ez al da filosofia jorratzea baita testimonio historikorik fida-garrietan ere begiak ipintzea? Oraingoan ekarriko dut, muestra gisa, san Pauloren gutun bat, galaziarrei idatzia, eta euskaraz ez dut nahi ematerik pixka bat nahasia delako testua (purismo larregi dago euskalgintzan), eta nahiago izan dut gaztelaniazko testua, Jerusalemeko Bibliatik hartua, hara hemen: “ ! Oh insensatos galatas ; ¿Quien os fascino a vosotros, a cuyos ojos fue presentado Jesucristo crucificado ? Quiero saber de vosotros una sola cosa : ¿recibisteis el Espiritu por las obras de la ley o por la fe en la predicacion? ¿Tan insensatos sois? Comenzando por espiritu , ¿terminais ahora en carne? ¿Habeis pasado en vano por tales experiencias? !Pues bien en vano seria; El que os otorga ,pues, el Espiritu y obra milagros entre vosotros, ¿lo hace porque observais la ley o porque tenéis fe en la predicacion? “. Hara hor argi eta garbi mintzatze molde bat, eta ni ados nago Paulorekin honetan, Espiritua jasotzearekin batera mirakuluak ikusi zituzten galaziar haiek, eta hortik fedea hastea. Eta behin baino gehiagotan erran du dan bezala oso garrantzitsuak dira fenomeno sobrenaturalak, oraingoan mirariak, Errebelazioaren historian, izan ere, batera



datoz Errebelazioarekin, eta signoak dira, signifikadu bat dutenak: fedea ondo oinarritzea. Eta nik signoen estudioan baditut hastapen batzuk eginak, eta ez badut ezer holakorik ikusi inoiz sinesten dut fidagarriak direlako testimonioak, eta ez faltsuak. Bekatu handia litzateke judeokristau batentzat gezurrik erratea, jakina den legez. Eta filosofia jorratuz hara non ni katoliko bihurtua.

Erraten da Jainkoa inasiblea dela, baina aldi berean eza-gutzen dugu Aste Santuan, gogoratzen dena urtero, Jesusen pasioa eta heriotza eta berpiztea hirugarren egunean, sakrifizio definitiboa san Pauloren hitzetan. Eta Jesusek erran zuen ezen Bera janez lortzen ahal dela bakarrik betiko bizitza eta paradisua. Eta askok ez zuten ulertzen hori eta utzi zioten Hiri jarraitzeari. Baina grekeraz dago idatzia san Juanen ebanjelia, eta bertan afirmatzen da nola Jesus den Jainkoaren Verboa, grekeraz Logoa. Eta nik aspaldidanik darabilt buruan halako metafora bezalako bat esplikatzeko ahal duena, ahalik eta gehien, zer den Jainkoaren Logoa jatea. Handik elikatzea. Eta hori lortzen ahal da pentsatuz gure intelectoa dela, logika zuzen erabiliz, egiak antzematean elikatzen dena Logoaz, Jainkoaren Logoaz. Logikazko liburua bezalako da logoa, mundu guztiak erabil dezake, eta aprobetxatu molde diferentean bakoitzak, eta horregatik logika tratatua ez da zahartzen ez desagertzen, lehen egunean bezain bizi-bizi dirau. Agian profesoreak sufritu egingo du alumnoen hanka-sartzeekin, erretekin eta falazia-bideekin, maisu ona bada hori ezinbestekoa zaio, baina liburuak tratatzen duen “materia” inasiblea da. Eta hori gertatzen da filosofiako estudianteeekin.

Perspektiba horretatik begiratuta Jesusek ez zuen juiziorik gabe hitz egin Bere gorputza jateaz ziharduelarik. Erraten ere zuen hau: belarriak dituenak aditzeko adi beza.

Eukaristiak egiarendako gogoia pizten du nire baitan, eta eskakizun andana bat ere egiten ditut orduan, azken garai ho-

netan abandonatu egiten naizen arren, Berak nik baino hobeto baitaki zer behar dudan.

Komentario hau filosofiatik egina dago, baina egiaz nik ez dut konprenitzen, mundu honetako begi materialistekin, nire erlijioaren funtsa, sobrenaturala lehenetsiz. Gaur bertan ebanjelioan Jesusek talioneko legearen kontra hitz egiten du, eta ez gogortze aldera, alderantziz baizik, bigundu egiten du legea sakrifizioraino, norberaren buruaren sakrifizioraino. Badirudi Jesusen jarraitzaileak lege naturalen kontra jardun behar duela, justu logika mundanalak agintzen duenaren kontrarioa egin behar du, baina lege naturalaren kontrarioa baino diferente erran beharko genuke (jakinduria sobrenaturala baita proposatzen zaiguna, jakinduria mundalana baino goragokoa, eta horregatik jakinduria mundanala bere barnean konprenitzen du). Eta nik ez dut konprenitzen nola halako signoak egin dituen baten naturalezak ezagutu zuen halako heriotza. Inork ez zuen konprenitzen, jakinduria mundanala dugunok ez dugu konprenitzen erlijio judeo-kristauaren funtsa, eta jakina den moduan gutxi izaten dira jarraitzen dutenak azkeneraino, suizidioa baino martirioa delako, eta oso mingarria norberaren ego mundanalarendako. Ez gara askatzen gure ego mundanalatik, eta ez dugu ikusten hobe espero behar dugula.

Egia ere bada, nola izan edo ez izan jakinduria mundanala, denok gaude bideratuak heriotzara, eta erlijio judeo-kristauaren jarraitzailea jakinduria mundanaletik konprenitzen dena, ezerezera igarotzea, ez da hala konprenitzen jakinduria kristautik. Azkenik denok jarraitzen diogu Jesusi, baina bizirik gaudelarik jarraitu behar diogu, astutoki geure burua sakrifikatuz, soilik holaxe egiten ahal da mundu hau humanoagoa, eta soilik holaxe lortzen ahal da salbazio definitiboa, ez da goena mundu, kosmos, honetan.

Egia da Jesusen jarraitzaile moderno egiteak pixka bat lehen momentuetan nahastea dakarrela, dena aldrebes balego

bezala baita itxura batean, aldrebes baino diferentea dela erran beharko genuke, hobe, guk ez dugulako erlijio kristaua sinplifikatzen Shopenhauerren moduan, adibidez, baina ni nago ezen kristauok, geure barneko psikologian, ez garela diferente besteekin konparatuta, eta denok daukagu geure buruan hoberenaren, onenaren eta ederrenaren aldeko halako joera noblea, eta kristauok Jesus topatu dugu nobleena, alderik ere ezin daiteke neurtu bigarrenarekin, permititzen bazait txapelketa bezala aurkeztea eredu egokiaren bilatzea, eta horregatik funtsean ez gara dekadente, Nietzsche filosofo antikristauak aurpegiratzen zigun legez. Jakinduria sobrenaturalak, goragokoa denez gero, bere baitan konprenitzen ditu beste guztiak, mundanala ere, bistan dago, eta Nietscheren filosofia jakinduria mundanal molde bat baizik ez da.

Nola gu ez garen misterio kristauak ulertzera iristen, gure joera behinena gehienetan, ia ohartu gabe, jakinduria mundanalarri jarraitzea izaten da, horretara Jesusen bidea utziz, eta hara non datorkigun beste misterio bat gure salbamenerako aproposa, Jainkoaren errukia da hainbestearino handia ezen inork ez baitu konprenitzen, ezta aingeruek ere, eta ni ere hor babesten naiz: Jesus erruki zaitez nitaz. Zer erran nezake nire alde?, bada nire izkribuetan, beste gai batzuk ikutu baditut ere, batez ere nire fedea arrazonatu dudala, eta makur asko egin baditut ere (oraindik ez dut amaitu filosofiako karrera), interesantea iruditu zait nire lana, eta horregatik, makur eta guzti, hor ibili naiz saiatzeko publikatzeko, besteei transmititzeko nire fedebidea. Eta hori guzti hori euskaraz, eredu inperialistari eredu internazionalista oposatzen diodalako (interesante dena lingua franca nagusira itzuli daiteke), iruditzen baitzait etikoki askoz aurreratuago (zentzu horretan iruditzen zait berba egin duela aita santuak Corean erran duelarik ezen bere tradizioak mantentzen dituen herria herri jakintsua dela). Hori diot nik nire defentsan.

Hara hemen aita santu Frantziskoren esan bat “Evangelii gaudium” exortazioan: “aun las personas que pueden ser cuestionadas por sus errores, tienen algo que aportar que no debe perderse”. Nik esan horretan neure burua ikusi dut erre-presentatua, eta Jesusi berriro eskatzen diot erruki dadila nitaz. Suspentsorik ez dut nahi, notablerik ere ez dut uste merezi dudarik, ahaleginagatik aprobatu kaskar bat (maria bat balitz bezala), eta zerura.

*Roman Garmendia*

**GEREZIEN DENBORA  
PASTORALA**

2014ko uda herri ekitaldiz beteta iritsi zaigu Iparraldera. Lehen a ekainaren 7an eta 15ean Urruñan jokaturako kabalkada-zintzarrotsa izan zen, eta ondoren ekainaren 29an Baionan jokatu zuten *Gerezien denbora* izeneko pastoral aparta. Eta izan badira gehiago, uztailaren erdi aldean Azkaingo herriak Roger Idiart euskaltzale handia izandakoaren omenezko ikusgarria aurkeztuko baitu, eta uztailaren azken igandean eta agorrilaren lehenean Pier-Pol Berzaitzen pastoralaren tenorea izanen baita. Horretaz gain, uda honetan zehar, bi tobera gehiago izanen ditugu, lehen a Lekornen eta bigarrena Baigorriin. Beraz, Iparraldean ukanen dugu zer ikusi, zer ikasi, zertaz gozatu eta zertaz oroitu.

Ekainaren 29an, igandearekin, Iñaki Martiartu adiskidearekin eta Edu Zabala koinatarekin Baionara abiatu nintzen Itxaro Bordak idatzi pastoral a ikusteko asmoz. Goiz-goizean abiatu ginen hamarrak aldera iragarrita zituzten karrika ingurua, zintzur bustitzea eta mutxikoak ikusteko eta nola ez, baita goxoki parte hartzeko ere. Urruñatik Baionarako bid ean hodei beltzek estali zuten zerua eta Lapurdiko hiriburrur a iristeko sekulako euri-erauntsia edo uharra bota zuen. Saint Bernard portura iritsi ginenerako garbi genuen ezi nezkoa zela pastoral a bertan ezarrita zituzten ohol tza eta

harmailetan jokatzea. Bazkariak emateko prest zuten xapitorra hurbildu ginen, lurra estaltzen zuten putzu handiak inguratzuz, eta barruan kantatzen ari zirela entzun genuen; pastoraLEAN parte hartu behar zuten arizaleak ziren, euri zaparradaren azpian kantatzen. Guregana hurbildu zirenek pastorala Lauga kiroldegian jokatzekoa zela erran ziguten. Gainerako guztia bertan behera uzteko deliberoa hartu berria omen zeukaten. Beraz, autoan sartu eta Lauga aldera abiatu ginen.

Lauga aldeko zubi baten azpian piknikatu genuen. Bitartean, euri-jasak etengabe eta indar handiaz jarraitzen zuen. Ur gehiago zegoen Baionako karriketan Errobi eta Aturri ibaietan baino, edo guri horrela iruditu zitzaigun, bederen.

Arratsaldeko 3,30etan sarrerak saltzen hasi ziren. Horiek erosi, baita pastoral-liburuxka ere, eta barrura sartu ginen. Liburuxka biziki ederra zen eta testua euskaraz gain, gaskoieraz, frantsesez eta espainolez idatzia zen. Barne goxo zabal hartan, jadanik, jendea tokia hartzen ari zen. Oholtza ohi bezala apaindurik zen. Ezkerreko horma zabalean euskal ikurrina eta eskuinean Zuberoako entseina gorri lehoi-duna. Oholtzaren gibelean ohiko hiru ateak: urdina, zuria eta gorria. Gorrian zintzilikaturik pastoraletan ohikoa den deabrüa. Oihal zuriaren gainean *Gerezien denbora*, hau da, pastoralaren izena irakur zitekeen eta izenaren ezker-eskuin dotore jarrita: Lapurdiko eta Baionako armariak. Oihal urdinaren aitzinean errejentaren mahaitxoak. Beraz, dena prest zegoen.

4,30etan, hasiera eman zioten pastoralari. Musikariak pastoral-martxa jotzen hasi ziren eta arizale guztiak gibeletik sartu eta oholtzara hurbildu eta igo ziren. Huraxe zen bertan bilduta ziren 2.500 entzun-ikusleek itxaro zuten seinalea, publikoa zutitu eta gogotik txalotu baitzituen sartu berriak ziren arizaleak. Lehen predikua Mattieu Mendizabalek abestu zuen.



*9.- Langileen historia  
behar dukegu kondatu.  
Histen direla egunak,  
ez dadin arren hondatu.*

*15.- Altzairuzko erreinuan  
badugu zer ikasia,  
etorkizunaren dantza  
dela burdinez bazia.*



*Arizaleak oboltzan*

Segidan lehen jeltaldia etorri zen, eta satanek ohiko dantzari ekin zioten iragarpen gaiztoak zabaltzen zituztelarik. Bost neska-mutil ziren, Zuberoatik etorritako dantzari trebe eta finak. Zubereraz mintzo ziren. Historiak aurrera jarraitu zuen, Baionako altzairutegietan lan egiten zuten langileen bizimodu gogorra eta hitsa azalduz. 4. jeltaldiaren amaieran arizaleek batera honako kobla esanguratsuz bukatu zuten:



*57.- Dinbili danba burdina  
ubolde zaigu isurtzen,  
kasu egin behar dela  
oinetan delarik urtzen.*

5. jelkaldian hainbat langile frantsesez eta gaskoieraz mintzatu ziren, beraien penak eta sufrikarioak kontatzeko. Ondoren, lehen kantaren txanda iritsi zen: *Zizare pikatzaleak*. Itxaro Bordaren hitzak ekarri zizkigun langileen aldarri gisa:

*Lurretik gatoz, lurrera goaz  
bidea egin ondoan,  
artean zenbait dotore eta  
kolpe harturik gogoan.*

*Hautsetik datoz, hautsera goaz  
errauts daukagu bidea.  
mundu zaharra hautsiko dugu,  
aseko gosekidea.*



*Mattieu Mendizabal erdian kanta-kantari*

Hurrengo jeltaldietan eta langileen tristura eta nekeen artean, Itxaro Bordak amodiozko eta desamodiozko istorio irringarri bat kontatu zigun, Joan langile gaztearen eta Kattalin neska pertxentaren artekoa alegia. 11. jeltaldian, Kattalinek, Joan langilearen pobreziaz eta miseriaz asperturik, mutila utzi eta Kaskezur izeneko kontramaisu aberatsarekin ezkondu zen. 16. jeltaldian artzainak artaldea, zakurra eta astoarekin atera ziren oholtzara eta kantu bat eman ondoren, ohiko taloez gain gereziak ere jaurti zituzten publikoak betetzen zituen harmailetara.. 17. jeltaldian hirugarren güdüka izan zen eta langileek galdu zuten, oholtzako zolan bi hildako utziz.

Ondoren 6. kantua etorri zen, Itxaro Bordaren hitzak eta Julen Axiariren airea zituen kantu gorra eta tristea.

*Uholde beltzez bete da karrika  
emazte eta langile barroz,  
baina lehertu gaituzte harrika,  
tiroz bezain altzairuzko karroz.*

*Hilik botako naute kanalera  
eta urean naiz ustelduko,  
barne poza joanen zait lanera  
mundu begira dela helduko.*



*Artzainak kantari*

Greba eta manifestazio baten berri ematen zuen kantua bukatu bezain laster, Maddalen eta Jean-Pierre Rekaltek egin koreografia ederra eskaini ziguten Zuberoatik etorritako dantzari trebeek.

Hurrengo jelkaldian, hau da, 18.enean, pastoralari izena ematen dion

*Gerezien Denbora (Le temps des cerises)* izeneko kantu sentikorra abestu zuten, Itxaro Bordak euskarara ekarririk.

*Maiatz beteko lanbro artean  
barrotu dira gerezitzeak  
arropa zuritan  
bazter orotan esperantzaren  
lili ederrak ireki dira.  
Maiatz beteko lanbro artean  
barrotu dira gerezitzeak.*

*Xoxoa kantuz aditzen dugu  
gerezitzeen malde beroan  
maitasuna galdez,  
gerezi perlak gorritzen dira  
dabilan odol ttantta bezala.  
Xoxoa kantuz aditzen dugu  
gerezitzeen malda beroan.*

*Maiteko dut nik amodiozko  
oldarra eta gerezitzeen  
denbora betiko,  
xoxoen kantak ene zauriak  
ez ditut nehoiz ezabatuko.  
Maiteko dut nik amodiozko  
oldarra eta gerezitzea.*

20. jelkaldian Joan langileak bere moduko neska langile, pobre eta gisakoa bilatu zuen, Lili izenekoa, pastoralaren has-tapenetan ukan desamodioa amodio berri bihurtuz.

*160.- Batera biziko gara  
aberatsak izan gabe  
eta langile fedea  
bego beti gure jabe!*

*162.- Gosearen haurrideak  
eskuak hutsik gabiltza  
eta garai ilunetan  
amodioak du giltza.*

21. jelkaldiarekin pastora amaierara iritsi zen. Pastoraleko sùjeta edo pertsonaia kolektiboa zen, Baionako altzairutegie-tan ibilitako langileak alegia. Jelkaldi honetan sùjeta kolektibo hori irudikatuz Aixa emazte langile zaharraren heriotza jokatu zuten, pastoral guztietan, bukaera aldean, sùjeta hiltzen baita derrigorrez. Segidan aspalditik Lapurdin bizi diren Ixabel Gorbierre eta Martine Iriart-ek zuberotarrek, ahots ozen eta ede-rrrez, azken predikua kantatu zuten. Pastoral bikain baten-dako amaiera ederra.

*187.- Mila esker etorririk  
plazerez eta saldoan,  
elkarrekin asmatu-rik  
mundu berri bat... agian!*

Segidan azken kanta: *Garai ilunetako nazioartekoa* izene-koa. Errepikatzen zuten leloan honela zioten:

*Ikara da lurra,  
aiduru goldea,  
dezagun urra  
hutsaren oldea.*

Gero Beñat Axiari errejentak eskerrak eman zizkien pastorean parte hartu edo lagundu zuten orori, oso bereziki, Itxaro Borda pastoral-idazleari. Bukatzeko arizale guztiak oholtzara ilki ziren eta denak batera *Ostalersa* dantza-jauzi ospetsua dantzatzuz amaiera eman zioten baionarrek eskaini pastoral bikainari.



*Nagusiak eta bedexuriak langileak desafiatur*

Pastoral hau historiara pasatuko da hainbat gauzarengatik. Aipa ditzadan: 1.- Hauxe da, emakume batek idatzi duen lehen pastoralak. 2.- Euskara batu alderantz egin duen lehena eta 3.- Baionan, hiri giroan, eta baita Lapurdi osoan ere idatzi den lehena. Zuberoatik kanpo egin eta jokatu izan dira pastoralak, Biarnon eta Nafarroa Beherean, baina beti auzo herrietan, inoiz ez da Baiona bezalako hiri batean horrelakorik idatzi.

Itxaro Bordak idatzi eta Beñat Axiarik zuzendu pastoral honek indar handia zuen bere mezuan, baita arizaleek erakutsitako joko, kantu eta dantzetan ere. Baionan arrakasta itzela

atzeman zuen eta uztailaren 20an, Itsasun emanen duten bigarren emanaldian arrakasta bera lortuko dutelakoan nago. Zoriondu nahi ditut, beraz, idazlea, errexenta, musikariak, dantzariak arizaleak, jostunak eta gainerako guztiak pastoral hau mugarri izateaz gain paregabeko maisulana izan delako. Ene iduriko, pastoralen historian urrezko letretan idatzirik oroituko den pastoral hau ez da Itxaro Bordak idatziko duen azkena izanen. Geroak erranen.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*



*Arizaleak azken kantua ematen.*

***OLERKIAK***

***SANTA TERESAREN OLERKIAK***  
**Luis Baraiazarrak itzuliak**

## 1.

## VIVO SIN VIVIR EN MÍ

*Vivo sin vivir en mí,  
y tan alta vida espero,  
que muero porque no muero.*

Vivo ya fuera de mí,  
después que muero de amor;  
porque vivo en el Señor,  
que me quiso para sí:  
cuando el corazón le di  
puso en él este letrero,  
*que muero porque no muero.*

Esta divina prisión,  
M amor en que yo vivo,  
ha hecho a Dios mi cautivo,  
y libre mi corazón;  
y causa en mí tal pasión  
ver a Dios mi prisionero,  
*que muero porque no muero.*

¡Ay, qué larga es esta vida!  
¡Qué duros estos destierros,  
esta cárcel, estos hierros  
en que el alma está metida!  
Sólo esperar la salida  
me causa dolor tan fiero,  
*que muero porque no muero.*



1.  
NEUGAN BIZI GABE BIZIZ

*Neugan bizi gabe biziz,  
hain nago goi-bizi minez,  
hiltzen bainaiz hil ezinez.*

Ni neugandik at bizi naiz,  
maite-sutan hil ondoren;  
Jainko baitan bizi bainaiz,  
Hark beretzat nahi izanik:  
neure bihotza emanik,  
jarri zuen idazbidez:  
*hiltzen nago hil ezinez.*

Jainkozko espetxe honek  
–nire maitezko egoitza–  
Jauna ene gatibu egin du;  
eta aske nire bihotza.  
Jainkoa ene gatibu  
ikusiz, hain nago garrez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

Ai!, hau bai bizi luzea!  
eta erbeste zakarra,  
arima preso daukaten  
kateak jasan beharra!  
Noiz irtengo egote hutsak,  
hain betetzen nau ni minez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

¡Ay, qué vida tan amarga  
do no se goza el Señor!  
Porque si es dulce él amor,  
no lo es la esperanza larga:  
quíteme Dios esta carga,  
más pesada que el acero,  
*que muero porque no muero.*

Sólo con la confianza  
vivo de que he de morir,  
porque muriendo él vivir  
me asegura mi esperanza;  
muerte do el vivir se alcanza,  
no te tardes, que te espero,  
*que muero porque no muero.*

Mira que el amor es fuerte;  
vida, no me seas molesta,  
mira que sólo me resta,  
para ganarte perderte.  
Venga ya la dulce muerte,  
el morir venga ligero  
*que muero porque no muero.*

Aquella vida de arriba,  
que es la vida verdadera,  
hasta que esta vida muera,  
no se goza estando viva:  
muerte, no me seas esquiva;  
viva muriendo primero,  
*que muero porque no muero.*

Ai!, hau bai bizi garratza,  
Jaunaz gozatzen ez dena!  
gozo bada maitasuna,  
ez itxarote astuna:  
Ken biezat Jainkoak zama hau,  
altzairu astun dudanez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

Soilik hilko naizelako  
konfiantzaz bizi naiz ni,  
hilez joanez bizitza,  
ziurra dut esperantza;  
heriotza bizirako,  
ez luza, zain nauzu minez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

Sendoa da maitasuna;  
bizia, ez izan astuna,  
zutaz jabetzeko soilik  
zu galtzea geratzen zait.  
Betor herio gozoa,  
betorkit pauso arinez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

Goi-goiko bizitza hura,  
benetakoa duguna,  
bizi hau hiltzen den arte  
bizirik goza ezin dena.  
Herio, ez zakizkit muker;  
lehenik bizi nadila hilez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

Vida, ¿qué puedo yo darle  
a mi Dios que vive en mí,  
sino es el perderte a ti,  
para merecer ganarle?  
Quiero muriendo alcanzarle,  
pues tanto a mi Amado quiero,  
*que muero porque no muero.*

## 2.

## VUESTRA SOY, PARA VOS NACÍ\*

*Vuestra soy, para Vos nací,  
¿qué mandáis hacer de mí?*

Soberana Majestad,  
eterna sabiduría,  
bondad buena al alma mía;  
Dios alteza, un ser, bondad,  
la gran vileza mirad  
que hoy os canta amor así:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Vuestra soy, pues me criastes,  
vuestra, pues me redimistes,  
vuestra, pues que me sufristes,  
vuestra pues que me llamastes,  
vuestra porque me esperastes,  
vuestra, pues no me perdí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Bizia, zer emango ote  
nigan bizi den Jaunari,  
zerori galtzea baizik,  
hartaz gozatzeko hobeki?  
Hura maite baitut soilik,  
erdietsi nahi dut hilez,  
*hiltzen bainaiz hil ezinez.*

2.

ZUREA NAIZ

*Zure naiz, sortzez zurea,  
zer nahi duzu egitea?*

Maiestate Gorengoa,  
jakitate betikoa,  
nitzat ontasuna bera,  
Zu Jainko goren onbera;  
hona ezereztasuna,  
maite-kantaz diotsuna:  
*zer nahi duzu egitea?*

Zurea naiz, Zuk hazia,  
zurea, Zuk eresia,  
Zuk bainauzu onez jasan,  
Zuk dei egin baitzenidan;  
zurea, Zuk itxaronik,  
lortu baitut ez galtzea:  
*zer nahi duzu egitea?*

¿Qué mandáis, pues, buen Señor,  
 que haga tan vil criado?  
 ¿Cuál oficio le habéis dado  
 a este esclavo pecador?  
 Veisme aquí, mi dulce Amor,  
 amor dulce, veisme aquí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Veis aquí mi corazón,  
 yo le pongo en vuestra palma,  
 mi cuerpo, mi vida y alma,  
 mis entrañas y afición;  
 dulce Esposo y redención,  
 pues por vuestra me ofrecí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Dadme muerte, dadme vida:  
 dad salud o enfermedad,  
 honra o deshonra me dad,  
 dadme guerra o paz crecida,  
 flaqueza o fuerza cumplida,  
 que a todo digo que sí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Dadme riqueza o pobreza,  
 dad consuelo o desconsuelo,  
 dadme alegría o tristeza,  
 dadme infierno o dadme cielo,  
 vida dulce, sol sin velo,  
 pues del todo me rendí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Zer daukazu, ene Jauna,  
mirabe kaskarrantzat?  
Zer langintza da duzuna  
menpeko txatxar honentzat?  
Hemen nauzu, ene kutuna,  
hementxe nauzu maitea,  
*zer nahi duzu egitea?*

Hona hemen nire bihotza,  
ezartzen dizut eskura:  
gorputz, arima, bizitza,  
erraiak eta jaidura;  
zuri eskaini bainatzaizu,  
Senar leun eta eroslea,  
*zer nahi duzu egitea?*

Heriotza edo bizitza,  
osasuna edo gaitza,  
ohore edo desohore,  
eman gerra edo bakea,  
ahul nahiz sendo egotea;  
guztiari *bai* diotsat,  
*zer nahi duzu egitea.*

Aberats, pobre izatea,  
eman poza, nahigabea,  
alaitasun nahiz tristura,  
infernua nahiz zerua,  
bizi leun, euzki argia,  
denera bainaiz jarria:  
*zer nahi duzu egitea?*

Si queréis, dadme oración,  
 si no, dadme sequedad,  
 si abundancia y devoción,  
 y si no esterilidad.  
 Soberana Majestad,  
 sólo hallo paz aquí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Dadme, pues, sabiduría,  
 o por amor, ignorancia;  
 dadme años de abundancia,  
 o dé hambre y carestía;  
 dad tiniebla o claro día,  
 revolvedme aquí o allí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Si queréis que esté holgando,  
 quiero por amor holgar.  
 Si me mandáis trabajar,  
 morir quiero trabajando.  
 Decid, ¿dónde, cómo y cuándo?  
 Decid, dulce Amor, decid:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Dadme Calvario o Tabor,  
 desierto o tierra abundosa;  
 sea Job en el dolor,  
 o Juan que al pecho reposa;  
 sea viña fructuosa  
 o estéril, si cumple así:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*



Nahi bada orazioa,  
bestela lehortasuna,  
nahi bada debozioa,  
edota idortasuna.  
Gorengo Maiestatea,  
hemen dut soilik bakea,  
*zer nahi duzu egitea?*

Eman, ba, jakinduria,  
nahiz maitezko jakineza;  
saso oparo guria,  
nahiz gosea eta eza;  
egun beltza nahiz argia,  
han nahiz hemen izatea:  
*zer nahi duzu egitea?*

Pausa nadin nahi baduzu,  
pausatu nahi dut maitez,  
lana agintzen badidazu,  
hil nahi nuke lan egitez.  
Esadazu: non, nola, noiz?  
Esadazu bai, Maitea:  
*zer nahi duzu egitea?*

Eman Golgota nahiz Tabor,  
eremu nahiz lur emankor;  
nadila Job min artean,  
Joan haren bular gainean;  
nadila mahasti emankorra,  
nahiz ongi bada, agorra:  
*zer nahi duzu egitea?*

Sea José puesto en cadenas,  
de Egipto adelantado,  
David sufriendo penas,  
ya David encumbrado;  
sea Jonás anegado,  
o libertado de allí:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Esté callando o hablando,  
haga fruto o no le haga,  
muéstreme la ley mi llaga,  
goce de Evangelio blando;  
esté penando o gozando,  
sólo vos en mí vivid:  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Vuestra soy, para vos nací,  
*¿qué mandáis hacer de mí?*

Jose katetan jarria,  
nahiz Egiptoko handia,  
edo David penatua,  
edo jada goratua;  
nahiz Jonas urperaturik,  
nahiz bertatik salbaturik;  
*zer nahi duzu egitea?*

Isil nahiz hitzaren jabe,  
fruituz nahiz fruiturik gabe,  
legean zauria ageri,  
Berri Onean igeri;  
minetan nahiz atseginez,  
nigan zu soilik zaitea:  
*Zer nahi duzu egitea?*

*Zure naiz, sortzez zurea,  
zer nahi duzu egitea?*

## **BERTSOEN TXOKOA**

MARTIN ORBE MONASTERIORI AGURREAN

### **Zeruko kaminerua**

1

Erdi galduta nabil  
dana da hutsune.  
Apurtuko bidean  
galdu haz ai ene!  
Kaminerua bila  
hasi ene seme,  
Errigoititik gora  
dago Martinene.

2

Luzaro ibilita  
barrua egarri.  
Orduan gerizpetan  
gaitezan jesarri,  
eguzki zein euria  
nitzat kaltegarri,  
iturriko freskoa  
laster dot ekarri.

3

Berez erne ete zan  
eguzki izarra?  
Jainkoak eban goia  
erein barra-barra.  
Pertsona ez da, beraz,  
munduan bakarra.  
Hemen azkena ez da  
izango negarra!

4

Zer tresna dozu, Martin  
hori jakiteko?  
Kaminoak egiten  
ez naz arkitekto,  
nor edo nor izan zan  
gaurkoen aurreko,  
ni pikatxoi, atxur zein  
paleaz konpleto,

5

Zelan dakizu, nora  
joatzun bidea?  
Isilean usainduz  
eguzki-lorea,  
bihotz maiteminduen  
sugar kolorea,  
opari emon jatan  
betiko fedea.

6

Mila esker bihotzez  
danon adiskide,  
hara omenaldiko  
saria zeuri be,  
esperantzarik eza  
sasizko gurpide,  
kamineru ez eze  
Martin dogu bide.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*

*2014-10-18*

**egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!**  
(urteko harpidetza: bakarrik 14€).

Izena-deiturak -----  
Kalea ----- Zbkia. ----- Solairua -----  
Herria ----- Tfnoa. ----- Postakoadea -----  
Herrialdea -----

### **Ordainketa**

Banku edo Aurrezki Kutxa -----

Kontu korrontea/libreta \_-----

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

\* \* \* \* \*

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza

Karmengo kalea, 5

48270 Markina (Bizkaia)

(Tel. 946 166 019)

[www.karmelaldizkaria.com/karmel](http://www.karmelaldizkaria.com/karmel)

